


# Goienkaria

2009ko uztailaren 3a > Egubakoitza > IX. urtea > 383. zenbakia > Doan banatzeko

www.goiena.net

"Likiniano zintzoa zen,  
gauzak zuri  
edo beltz  
ikusten zituen,  
erdibide barik"

Luis Jimenez  
Aberasturi  
Idazlea > 09



## EKONOMIA

Txinarekin negozioak nola egin  
ikasteko jardunaldia egunean > 04

## ERREPIDEAK

Uztailaren 6tik 9ra mozketak  
egongo dira AP-1 autobidean > 07

## ARAMAIO

San Martin jaiak ospatuko dituzte  
gaurtik astelehenera arte > 33-35

## LEHIAKETA

Goienak abian jarri du Udako  
Argazkien V. Lehiaketa > 38



## G2a

Jean Marie Auel  
idazlea Lezetxikin

*Los hijos de la tierra*  
sagaren egilea zazpigarran  
eleberriar dokumentatzera  
etorri da Arrasateko  
kobazulora. Iruñan Auel  
Alvaro Arrizabalaga  
Lezetxikiko indusketen  
arduradunarekin. > 37

AZOKA > LANBIDE HEZIKETA

## Lanerako formazioaren gaineke azoka egunean

**ARRASATEN** Mankomunitateak  
antolatu du formazioaren  
garrantziaz jabearazteko; hilaren  
9an izango da, Kulturaten

**ERAKUSMAHAIAK** Ibarreko Lanbide  
Heziketako zazpi ikastetxeek  
lanerako formazioa lortzeko dauden  
aukerak erakutsiko dituzte > 05

## Uztaileko udalekuetan 1.564 umek hartuko dute parte

Uztailean sartu gara, eta dagoeneko hasi dira udaleku ibarreko hainbat herrian. Antzuolan, Bergaran eta Oñatin uztailaren 1ean, eguztuna, hasi zituzten; Aretxabaletan eta Arrasaten, osteria, atzo, eguna, eta gainontzeko herriean datorren astean hasiko dira.

Umeen uztaileko aisia-  
dia osatzeko eskaintza gero  
eta zabalagoa da: ohikoena  
jolas egiteko udalekuak badi-  
ra ere, Oñatin ingelesa ikas-  
teko udaleku ere bada eta  
Bergaran udaleku musikalak  
antolatu du Musika Eskolak,  
lehenengo. > 06



JOLAS EGIN Bergarako udalekuetako umetxo talde bat Usondo parkean soka-saltoan.

ARANTZAZU EZKIBEL

## AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-07  
Iritzia > 08  
Elkarrikzeta > 09  
Gutunak > 10  
Herriak > 13-35  
Kirola > 36  
Kultura > 38-39  
Sailkatuak > 40  
Gazteak > 42  
Telebista-Irratia > 43  
Zerbitzuak > 44  
Berri-zakua > 45  
Eskelak > 45  
Non-zer > 46-47

**ION** leihoa

ZORUAK LEIHOAK ATEAK HORMA ARMAIRUA

Debagoiena industrialdea, 11. pab.  
Uribarri auzoa (Markulete ondoan)  
ARRASATE Tel.: 943 79 11 35

OLAGUBEL 51  
01003 GASTEIZ  
Tel./Fax: 945 26 71 73

KÖMMERLING K21

Salneuri gomendatua Ford Mondeo Econetic TDCi 125 ZP, USB Trend eta Convers paketeekin, BEZA, garraioa, sustapeneko deskontua, matrakazio zerga, 2000E plana eta konzesionarioaren ekarpena barne. Hilabete bukaera arte balagarría izakinak agortu arte. Ikerketan den modeloak ez dala zertan lizar eskanzientzen denea. Mondeo gama, batez besteko kontsumoa: 5,7-9,3 l/100km. CO<sub>2</sub> igorpenak: 151-222 g/km.

**NUEVO ECOBONO FORD**

Ford Mondeo TDCi  
**19.900** eurogatik

MUGARRI AUTOAK  
Araba Etorbidea, z/g  
ARRASATE

Feel the difference



Bataioa Landako urtegian.



Elizako detaile bat.



Eliza, batzar edo meza baten jendez beteta.



Elizako umeak, E



Euskadiko beste ebanjeliko eliztar batzuekin batzartzen dira noizean behin.



Ezkontza bat ospatzan.



Batzarren ondor

ERLIJOA &gt; ELIZA KRISTAU EBANJELIKOA

# Fedea pozik bizi eta etorkinei integratzen laguntzen dien Eliza

**EHUN KIDE** Abenduan sei urte beteko ditu Arrasateko Eliza Ebanjelikoak, eta ehunetik gora fededun ditu dagoeneko

**JATORRI ASKO** Elizako lagun gehienak Latinoamerikakoak dira jatorriz, baina bailarako fededun asko ere badituzte

**IKURRAK** Kristorengan fedea, norbere esperientziaren garrantzia eta liturgia alai eta parte-hartzaileak dituzte zeinu

tik bi ordutegiz irekitzen dugu Eliza: 11:30ean eta 18:00etan", dio artzainak.

Eurek ez diote meza esaten, baizik eta batzarra; eta, egitan, hobeto doakio izen hori. Hasi errebatzen hasten dira; gero, artzainak Ebanjelioa irakurtzen du, salmo bat, eta ondoren Alabantzalako zatia dator, beharbada Eliza Ebanjelikoaren irudia ezagun eta bereizgarri egin duena: "errezoa da, baina oso alaia", dio Arevalok. Segidan, Jakinarazpenak eta Testigantza datoz, hau da, "Jainkoak pertsonon bizitzan egin duenaren testigantza", azaltzen du artzainak. Horren ondoren, jende berria badago, artzainak ongietorria ematen die; eta, bukatzeko, predikua dator.

Ebanjeliko batzarren beste berezitasun bat da, bukaeran, hileko lehenengo domekan, Afari Santuaren omenez, baziak geratzen direla elizan bertan; norberak plater bat dakar. Horri esanahi berezia ematen diote: "Bibliak esaten du Fedearren Familia garela eta, edozein familiak bezala, elkarrekin egon behar dugu, elkar ezagutu eta elkarri lagun egin".

Euren batzarretan, askotariko ekintzek dute tokia; tartean, zuzeneko musikak. Hainbat musika-tresna dituzte, baina orain ez dituzte erabiltzen: "Bizi-lagunei traba egiten die musikak, eta ez dugu jotzen. Gure lokal hau txikiak eta desegokia da orain, eta beste lokal bat topatu dugu; orain, hara joateko baimena esku tu dugu eta ea zer esaten dugten", esaten du Arevalok.

**ETORKINAK INTEGRATU**  
Debagoineneko Eliza Ebanjelikoak beste zeregin oso garrantzitsu bat ere betetzen du: etorkinei integratzen laguntzen die. Izan ere, Eliza horretako kide gehienak Latinoamerikatik immigratu duten lagunak dira. Eta Elizaren lana bi aldetik egiten dute: batetik, iri-

**Ebanjelioan inspiratutako dramak edo antzezpenak euren mezua helarazteko modu bat da**

**Batera baziak zati gisa: "Fedearren familia gara, eta elkar ezagutu behar dugu"**

**LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE**  
Isil-isilik eta jendartera, kalera, nahiko luketen adina irten barik ere, dagoeneko ehun fededunetik gora ditu Arrasaten kokatuta dagoen Eliza Kristau Ebanjelikoak. Eliza Arrasaten daukaten arren (San Juan Taldea etxaldeko behebarru baten daukate, kartel batek adierazita), Debagoin osoko fededunak dituzte. Gehienak Erdi edo Hego Amerikakoak dira –ia herrialde guzietakoak daude: boliviarrak, ekuadortarrak, brasildarrak, kolonbiarrak, perutarrak, nikaraguarrak, salvadortarrak, hondurastarrak, dominikarrak, venezuelarrak, argentinarrak...–, baina badaude euskaldunak eta espainiarak ere. Horiek, ohikoak; baina bisitan jende asko joaten zaie, izatez ebanjelikoak ez direnak, sarritan. Euren gidari lanak egiten, orain zortzi urte Ekuadortik ailegatutako eta orain sei urtetik hona Arrasateko ardura duen Jairo Arevalo artzaina daukagu.

Eliza Ebanjelikoa lau sinesmen-oinarri bereizten dute: norbere konbertsioaren esperientzia; Bibiliaren autoritatea; ebanjelismoa edo norbere fedearren esperientzia konpartitzea; eta Jesukristoren salbatzaile papera. Baina, teoriaren gainetik, eguneroko bizitza zelan bizi dugun, hori da gakoa, eta halaxe diosku Jairo Arevalo artzainak: "Jesus etorri zen erlijio-ekintza eta forma batzuekin apurtzen. Jende askok

uste du kristaua izatea dela hau edo bestea egin ahal ez izatea, baina ez; jokatzeko libre gara. Kristaua izatea bizimodu bat da, eta Jesusek erakusten digu hori bere bizitzarekin. Pozik bizi izatea, zoriona da gure bizitzako oinarria", dio gizon abegitsu horrek.  
**"KALERA IRTE NAHI DUGU"**  
Eliza horrek beste erlijio batzuek dituzten erritu formaletatik ihes egiten du, eta jendearen parte-

hartza, fedearren esperientzia pertsonala eta kaleko jarduera ditu gustuko. Hala, joan zen domekan, Misioen Egunean, kaleera eraman zuten euren fedea, eta Altamira auzoan jaialdia egin zuten. Kaleko eta eurendako egiten duten lanean, antzerkiak edo, eurek deitzen dioten moduan, dramak berebiziko papera du: Ebanjelioko pasarteak antzezten dituzte eliztarrek eurek, "eta bat ere ez da aktorea", gogorarazten du Arevalok. Pena bat dute: "Oraingoz, ez dugu baimenik guk nahi bezala kalera gehiago irteko eta dramak kalean antzezteko; guk hori gurago genuke lokal txiki batentzat sartuta egotea baino", diosku artzainak.

Horrek guztiak ez du esan gura liturgiarik egiten ez dutenik: astelehenetan, egubakoitzetan, zapatauetan (gazteak) eta domeketan batzen dira; domeka da Elizaren kultu orokorra egitteko eguna. "Fededun askok ostaritzan dihardute, eta horregat-



banjelioan oinarritutako drama bat antzezen.



Amaia Antzokian egin zuten drama bat hainbat herriko eliztarrek, 2006an.



en, sarritan batera baskaltzen dute, elizan bertan.



Elizako sarrerako kartela. ARGAZKIAK: ARRASATEKO ELIZA EBANJELIKOIA

tsi berriei ahal duten orientazio gehienetan ematea; eta, bestetik, euskal jendartera integratzen laguntzea: "Asko sinesmen okerrekin datoza: adibidez, askok uste dute umila izatea oso pobrea eta zoritzarrekoia izatea dela, eta guztiz kontrako da; edo aita edo senar ona izateko matxista izan behar dela. Sinesmen horiek kentzen laguntzen diegu", esaten du artzainak. "Gaur egun, elizako latinoamerikar askok euskaldunak dirudite", esaten digu. Integrazioa bete-betean lortu dela erakusten du dagoeneko hainbat bikote misto ezkondu dituela Arevalok, kide bat etorkina eta bestea hemen sortutakoa.

Kezka horren bidetik, Arrasateko Udalak orain dela gutxi egindako Immigratio Planean parte hartu du Eliza Ebanjelikoak; euren iritziz, informazio falta da zuzendu beharreko akats nagusia: "Irtitsi berri diren askok ez dakite nora jo, zer egin, lana non bilatu... Guk, neurri baten, lan hori egiten dugu, baina Udalak eta erakundeek daukate informazio guztia". Oraingo Udalarekin harremana oso ona dela dio artzainak eta hitz onak besterik ez ditu alkatearenganako.

**LAGUNTZARIK EZ DUTE JASOTZEN**  
Eliza horrek, beste batzuek ez bezala, ez du "inongo dirulaguntzarik" jasotzen; "bakarrak kideek emandako ofrendekin sostengatzen da", esaten du Arrasateko arduradunak. Baina, kanpotik laguntzarik jaso ez arren, Eliza Ebanjelikoak, bere burua mantendu ez ezik, misioa ere egiten du: "Diruaren zati bat da hemen-dik irten ziren misiolariendako; bestetik, hainbat herrialdetako proiektuei laguntzeko -Kolonbian eta Argentinan pobreei, batez ere umeei laguntzeko proiektuak dauzkagu".

Euren lanarekin bat egin edo, beste barik, Eliza Ebanjelikoak gertutik ezagutu nahi dutenek atea zabalki topatuko dituzte.

## Jairo Arevalo > Eliza Ebanjelikoko artzaina "Euskal Herrian, askok Elizari uko egin diote, eta gero, Jainkoari"

L.K. > ARRASATE  
Ekuadortarra da, eta irakaslea zen sorterran. Orain zortzi urre etorri zen Euskal Herrira bizi izatera, eta sei urre daramatzatza Arrasateko Eliza Kristau Ebanjelikoko artzain.

Ze erakusten duzu Elizan?

Irakasle nintzen, eta erakustea gustatzenten zait. Immigratzen duten batzuek ohitura okerrak dituzte, eta ondokorari eragiten die. Nik ez diot inori esaten "egin hau, ez egin bestea"; Hitzean oinarrituta, erakutsi egiten diet, eta norbera aske da horri jarraitzeko edo ez. Irakaspen guztiak gure eguneroko bizitzara aplikatzen dira.

Beste lanik egiten duzu Elizan?

Aholku eskatzen didanari eman egiten diot; horretan, artzaina psikologo antzeko bat da. Nire sinestunak seme-alaba bezalakoak dira niretan.

Esango dizkiguzu zuen fedearren oinarri batzuk?

Jesukristo onartzen dugu eta Espiritu Santua gugan bizi da; gure esku dago, gure bizitzarekin, sugar horrek bizirik irautea. Guk ebanjelioa (*berri onaesan nahi duena*) zabaltzen dugu.

Horrez gain, sinisten dugu salba-



zioa ez dela ekintzakin irabazten den zerbaite, opari bat baizik.

Fedeia izanez gero, dena egin daitekeela sinisten dugu; horregatik, gure otoitzera ere fedeo oinarrituta dago. Norberak zerbaite egin ahal duela sinistu behar du. Guk izan genuen kasu bat, droga-mendekotasuna zuen bikote batena; emakumeak fedeia izan zuen eta osatu egin zen, eta bere etsen-

pluarekin, bikotekidea ere ia guztiz osatuta dago gaur egun.

Zelan ikusten duzu Euskal Herria, fedearen ikuspuntutik?

Hemen, jende askok Elizari uko egiten dio, bere historiarengatik, eta horren bidetik, Jainkoari uko egitera iristen dira. Baina gure Elizan badira euskaldunak jarraha hori zutenak eta konbertitu egin direnak.

Emakumeek ere ardurak izan ditzakete zuen Elizan?

Bai, halada. Adibidez, gurean, hiru emakumeek dute Elizako sail banaren ardura; eta emakumeak artzain ere izan daitezke. Bestalde, artzainak bere familia izan behar du, izan ere, ezkon-bizitza ezagutzen ez badut, ezin izango diot bati aholku egokirkir eman.

**"Fedeia izanez gero, dena egin daitekeela sinisten dugu; hala, gure otoitzera fedean oinarritzen da"**

**"Gure Elizan, emakumea ere izan daiteke artzain, eta gurean hiruk dute sail banaren ardura"**

ASTELEHENKO  
**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa

## Harpidedunen txoko Ekaineko zozketa

Sariak irabazteko  
**HARPIDETU!**  
Tel.: 943 08 10 50  
[harpidetza@goiena.com](mailto:harpidetza@goiena.com)  
Kuota: 20 euro

MUNDUMIRA PACK-A

Jose Antonio Crespo Fernandez  
(Bergara)

UMEENTZAKO PUZZLEA

Juan Arriolabengoa Lasaga  
(Aramaio)

KAMISETA

Floren Arana Barandiaran  
(Arrasate)

PENDRIVE

Maite Beitia Abarrategi  
(Aramaio)

## SARI NAGUSIA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOKETATUKO DA



BELAONTZI BATEAN IRTEERA HONDARRIBIATIK

J.L. Abuinen eskutik

**J.L. ABUIN / PUY BIDEBURU**

25 urtetan teknika naturalak zure eskura jartzen

Mendia jauregia  
639 02 47 14

S. Josepe, 10  
943 77 01 33

Kirolegia  
943 77 16 77

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZA dei bakoitzeko.  
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatua baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoo sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotuan sartzeko, haien zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: [harpidetza@goiena.com](mailto:harpidetza@goiena.com)

EKONOMIA &gt; TXINA

# Txinarekin negozioak egiteko jardunaldia izango da egunean

Gipuzkoako Txinatar Institutoak enpresen eta profesionalen kezkei erantzongo die, eta bere hezkuntza-eskaintzaren berri emango die

LEIRE KORTABARRIA &gt; ARRASATE

Gipuzkoako Txinatar Institutoak Txinan negozioak egin nahi dituzten edo dagoeneko han sartuta dauden enpresa txiki eta ertaineizuzendutako jardunaldia egingo du egunean, hilak 9. Debagoieneko Mankomunitateak antolatu du, eta haren egoitzan izango da, Arrasaten (Nafarroa Etorbideko 17. zenbakian, 2. solairuko Udalaitz Aretoan), 17:30-19:30. Izena emateko, 943 79 30 90 zenbakira deitu edo [empresa@debagoiena.net](mailto:empresa@debagoiena.net) helbidera mezua bidali behar da.

Jardunaldiokin, hainbat helburu bete nahi dituzte: Txinak eskaintzen dituen negozio aurkerei buruz informatu eta enpresaek zer kontuan hartu behar duten; eta, bestetik, Txinatar Institutoak enpresendako eta profesionalendako duen eskaintza jakinaraziko du.

**BI HIZLARI**

Txinatar Institutuko Miren Gabilondoaren esanetan, "askotan, Txinara joan diren profesionalak isolatuta geratzen dira, hizkuntzaren barrerarenengatik eta hango jokabide-ereduak ezagutzen ez dituztelako". Hizlarietako bat Alberto Bodero izango da, eta isolamendu horren esperientzia izan zuen Txinara joan zenean;

horren berri emango du jardunaldian. Zuzenbidean lizenziaduna eta Txinako enpresa munduan aditua da Bodero. Institutuko kolaboratzalea da.

Bigarren hizlaria Saran Qin txinatarra izango da, Institutoko irakaslea eta Ekonomian eta Nazioarteko Komertzioan lizenziaduna. Ingelesez egingo du berba.

**JARDUNALDIA**

> **NORENDAKO** Txinako merkatua zelan antolatuta dagoen jakin nahi duten edo internazionalizatu nahi duten enpresa txiki eta ertainendako.

> **EMAILEAK** Gipuzkoako Txinatar Institutoko irakasle Saran Qin eta kolaboratzaile Alberto Bodero.

> **GAIAK** Txinak merkatitarako eskaintzen dituen aukerak eta mehatxuak; Txinako enpresa profila; hornitzaleak eta bezeroak bilatzea; misio komertzialak Txinan; kultura aldeak eta negozio arrakastatsua; logistika eta nazioarteko garraioak; merkataritzababes neurriak...

Institutuaren jarduera hizkuntza eta kultura erakustean oinarritzen da, baina oraino jardunaldian enpresen beharretara egokitutako gaiak landuko dituzte: Txinak merkatitarako eskaintzen dituen aukerak eta mehatxuak; Txinako enpresa profila; hornitzaleak eta bezeroak bilatzea Txinan; misio komertzialak Txinan; kultura aldeak eta negoziazio arrakastatsua; logistika eta nazioarteko garraioak; merkataritzababes neurriak eta Txinako importazioei aplikatutako aduana praktikak; nazioarteko merkatuetan erabilitako ordainbideak; eta beste.

**IRAKASKUNTZA**

Gipuzkoako Txinatar Institutoa Donostian dago eta bi urte daramatza lanean. Hizkuntza erakus-tearekin batera, Txinako protoko-loa, jokabide-ereduak eta kultura ere erakusten dituzte. Jardunaldira joaten direnek euren ikastaroen berri zehatz jaso ahal izango dute hantxe.

**ESANAK**

**"Txinara joaten diren profesional asko isolatuta geratzen dira, hizkuntza eta jokabide-ereduak ez dakitzitelako"**

Miren Gabilondo > Txinatar Institutoa

EKONOMIA

## Aurrezpen Karroa aurkeztu du Eroskik

Premiazko produktu batzuen prezio merkeena duela agintzen du Eroskik

L.K. &gt; ARRASATE

Eroskik Aurrezpen Karroa delako promozioa aurkeztu du. Eroski saltokia dagoen inguruaren premiazko produktu jakin batzuek daukaten prezio baxuenean batzen ditu Karroak. Bezeroak produktuetako bat edo antzeko bat Eroskin baino merkeago topatzen badu, erosketa-xartela aurkez dezake, eta Eroskik produktua doan emango dio eta haren prezioa jaitsi egingo du.

**ONDO ADIERAZITA**

Eskaintza hori Eroski hipermerkatuetan eta Eroski Center eta Eroski City saltokietan dago, garbi ikusteko moduan.

Esnea, arrautzak, jogurtak, atuna, arroza, garban-tzuak, komuneko papera, arropa garbitzeko xaboa eta xanpua dira, besteak beste.

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

[www.debagoiene.net](http://www.debagoiene.net)


**Lanbide profilak**  
**Debagoieneko Hasierako Lanbide Prestakuntza zentroan garatzen diren profilak honako hauek dira:**

- 1. maila**
  - Industri mekanikoko langilea
  - Sukalde eta zerbitzuko langilea
- 2. maila**
  - Instalazio elektrikoetako langilea
  - Iturgintzako langilea

Profil bakotzean gutxienez 10 ikasle behar dira, horrela ez balitz, posible litzateke talderen bat martxan ez jartzea.

**MATRIKULAZIOA**  
**Ekainaren 29tik Uztailaren 15era**  
**09:00etatik 12:30era**  
**Non: Debagoieneko Garapen Agentzia**  
**Lanbide Hastapeneko egoitzan**  
**Nafarroa Etorbidea, 21 Pk: 237 20500 Arrasate**  
**e-mail: idazkaritza@lanbidehastapena.com**  
**Telf: 943 792890**

**2009-2010 IKASTURTEA**



Ikasketak dituen langabe talde bat INEMekin batera prestatutako mekanika ikastaroa egiten Bergarako Miguel Altuna institutuan.

JOKIN BEREZIARTUA

**FORMAZIOA > LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXEEN ERAKUSLEIHOA**

# Formaziorako aukerak erakutsiko dituzte Lanbide Heziketako ikastetxeek

Debagoieneko Lanbide Heziketako azoka egingo dute Arrasaten uztailaren 9an

Mankomunitatearen helburua da lanerako formazioari buruz informatzea

**OIHANA ELORTZA > ARRASATE**  
"Formazioak garrantzia duela" antolatu du Mankomunitateak Debagoieneko Lanbide Heziketako erakusleihoa. "Langabeziak gora egin duela-eta, hasierako ideia zen langabeei zabaltzea, eskaintza, formazioaren bidea. Baino formazioa jasotzea, osatzeko eta esperientzia baloratzeko aukerak ere eskaintzen ditu Lanbide Heziketak, eta, beraz, edonorendako izango da interesgarria erakusleihoa hau", dio Amaia Irizarrek, Mankomunitateko Garapen Agentziako teknikariak.

**INFORMAZIOA ETA HITZALDIAK**  
Datorren egunean, uztailaren 9an, egingo dute Debagoieneko Lanbide Heziketako azoka Arrasaten. "Kulturateko klaustroaren bueltan mahaiak egongo dira, ikastetxe bakoitzak eskaintzen dituen aukerei buruzko informazioarekin beteta. Ibarreko Lanbide Heziketako ikastetxe guztiak egongo dira: Oñatiko

ETEO eta Zuazola-Larraña, Bergarako Mariaren Lagundia eta Miguel Altuna, Arrasateko Arizmendi eta Goi Eskola Politeknikoa eta Aretxabaletako Lanbide Eskola. Helduen Eskolako ordezkariek ere egongo dira. Gainera, ikastetxe bakoitzak ordu erdiko hitzaldia eskainiko du, Kulturateko gelaren baten", zehaztu du Amaia Irizarrek

## ESPERIENTZIA NOLA BALORATU

Ikastetxeen informazio hitzaldieze gain, bestelakoak ere egongo dira. Adibidez, lanean hartutako esperientzia nola bihurtzen den ofizial azalduko du Luis Herrero del Arcok, Lanbide Heziketako kalitate eta lehiakortasunaren ebaluaziorako Euskal Agentziaren ebaluazio sailaren

arduradunak. "Langile asko dago urteak egin dituena lanbide batean lanean, baina ikasketarik gabe. Pertsona horrek sekulako esperientzia du, lanbide hori ondo ezagutzen du, baina ez du "titulurik". Badago aukera bat esperientzia hori ofizial bihurtzea, balorazio ofizial bat emateko. Hori lortzeko zer egin behar den, zer hartzen duten kontuan eta nola baloratzen duten azalduko du aditu horrek", azaldu du Mankomunitateko Garapen Agentziako teknikariak. "Lanbide Heziketak eskaintzen duen beste aukera bat da hori, eta horren gaineko informazioa ere egongo da erakusleihoa", jarraitu du.

Izan ere, formazioari buruzko aukera asko dituzte eskaintzeako Lanbide Heziketako institu-

DATUA

7

## LANBIDE HEZIKETA IKASTETXE

Debagoienean Lanbide Heziketa eskaintzen duten zazpi ikastetxe daude: Oñatin bi, Bergaran bi, Arrasaten bi eta Aretxabaletan bat. Horiez gainera, Helduen Eskolako ordezkariek ere izango dira Kulturateko azokan.

tuek. "Aukera bat da gai zehatz bat buruzko informazioa jasotzea. Baino horrez gain, badaude beste batzuk ere; adibidez, etengabeko formazioaren aukera eta kredituak eginez moduluak

osatzeko aukera", azaldu du Ina Larrañagak, Bergarako Miguel Altuna institutuko zuzendariak.

## BESTE HERRIETAN ERE BAI

Uztailaren 19an bigarren matrikulazio epea zabalduko dute Lanbide Heziketako ikastetxeek. "Horregatik erabaki dugu azoka hau hilaren hasieran egitea, jendeak ikusteko ze aukera duen eta datorren ikasturterako izena eman ahal izateko", zehaztu du Mankomunitateko Garapen Agentziako teknikariak. "Helburua da formazioari buruz informatzea eta jendeari ikuspegia zabaltzea, aukera ezberdinak daudela erakustea. Beraz, azoka txiki hau bailarako beste herriean egiteko aukera ez dugu baztertzen", jarraitu du.



J.B.

Ina Larrañaga > Miguel Altunako zuzendaria

## "Zeharkako formazioa ere jaso behar dugu"

**O.E. > BERGARA**

Bergarako Miguel Altuna institutua ere egongo da Debagoieneko Lanbide Heziketako erakusleihoa. Informazioa eskaintzeaz gainera, Bizikasi proiektua aurkeztuko dute.

### Zer da Bizikasi proiektua?

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza lantzen du proiektu horrek. Duela hiru urte hasi ginen lantzen eta horren berri eman nahi dugu, zabaldu egin nahi dugu.

### Nola prestatu behar dugu krisiaren bueltarako?

Formazioa izan behar dugu, horretan ez dago dudarik. Baino horri beste zerbaite gehitu behar diogu: taldean

lan egiten jakitea, berritzaleak izatea, sortzaileak ... Argi dago teknologia ere menperatu behar dugula, baina hori besteek ere egingo dute, eta guk zeharkako beste formazio hori ere jaso behar dugu.

Enplegu bulegoetara bezala, zuek ere nabaritu duzue formazio bilajoen den langabeen kopurua hazi egin dela?

Asko, gainera. Duela bi urte, 30 langabe inguru etorriziren formazioa jasotzen; egun, ia 400 daude apuntatuta. Gainera, horien profila ere aldatu egin da. Lehen, langabezian zeuden gehienak formaziorik gabekoak ziren, baina egun, ikasketak dituzten asko daude lan barik. Horri neurrira egindako ikastaroak prestatzen lagundu du INEMek.



Bergarako umeek eguztenean hasi zituzten udaleku irekiak. Irudian Usondo parkean marrazkiak egiten.

ARANTZAZU EZKIBEL

**ZERBITZUAK > UDALEKUAK**

# Uztailean zehar 1.564 ume ibiliko dira udaleku irekietan

Udalekuak euskaraz izaten dira, eta, hain zuzen, hori da helburua: euskaraz ondo pasatzea

**Antzuola, Bergara, Oñati, Aretxabaleta eta Arrasaten hasi dituzten dagoeneko udalekuak**

**ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA**  
Irtsi da uda, eta baita umeen opor garaia ere. Bi hilabete luze dituzte etxeko txikienek eskolako erritmoa alde batera utzi eta beste ekintza mota batzuk egiteko. Baino askotan ez dute jakiten ez umeek ezta haien gurasoek ere nola egin aurre opor garai honi; hau da, eguna nola antolatu.

Horretan pentsatuta, ibarreko udaleku irekiak eskaintza plazaratzen dute urtero. Aurten 1.564 bat ume ibiliko dira udaleku irekietan ibarreko herriean.

**DAGOENEKO HASI DIRA**

Uztailean sartu garenez, dagoeneko hasi dira udalekuak ibarreko hainbat herriean. Antzuolan, Bergaran eta Oñatin uztailaren 1ean, eguztenea, hasi zituzten udaleku irekiak; Aretxabaletan eta Arrasaten, osteria, atzo, egunean hasi zituzten. Gainontzeko herriean uztailaren 6an, astelehena, hasiko dituzte eta Aramaiaren uztailaren 8an.

Arrasaten Txaxilipurdi arduratzetan da udaleku irekiak antolatzearaz. 2 eta 10 urte bitarteko 306 neska-mutiko ibiliko dira uztai-

lean udalekuetan. Erdigunean, Musakolan eta San Andresen ibiliko dira, goizez. Uztailaren 22an egingo dute azken festa Txatxili-purdi elkartekoek eta umeek.

10 eta 16 urte bitartekoendako, berriz, udaleku itxiak antolatu dituzte. Azken horiek Etxarrira eta Oriora joango dira. Bestalde, herrian bertan ere gaztetxoek ez dute aspertzeko astirik izango. *Udaixe* egitasmoak, esaterako, hamaika ekitaldi eskainiko dizkie astean hiru egunetan. Egitasmoari bukaera emateko hiru eguneko irteera egingo dute.

**EUSKARAZ ONDO PASATZEA**

Udalekuak euskaraz izaten dira, eta, hain zuzen, hori da helburua: umeek euskaraz berba egiten duten bitartean ahalik eta ondoen pasatzea.

Bergaran Xipizaro elkartea arduratu izan da azken 14 urteetan udaleku irekiak antolatzearaz. Aurten, 300 ume izango dituzte, uztailaren 1etik uztailaren 24ra. Eguraldiaren arabera antolatzen dituzte udalekuak, baina helburua izaten da kanpora begira egin daitezkeen ekintzak antolatzearaz; adibidez, igerilekura joatea, San Martzialera, Gorlara...

Oñatin Udala arduratuko da udalekuetan; horretarako, ludote-

ka eramaten duen enpresa bera kontratatu du. Aurten iaz baino 46 ume gehiago ibiliko dira, uztailaren 30era arte.

Aramaion uztailaren 8tik 21era egingo dituzte udalekuak, Elgetan eta Eskoriatzan hilaren 6tik 24ra, Gatzagan hilaren 6an hasi eta 15 egunez, eta Aretxabaletan uztailaren 2tik 24ra.

Esan behar da Gatzagan Gurel guraso elkartea arduratzetan dela udalekuetan, eta beste herrietan ez bezala, arratsaldez izaten direla. Astelehenera arte eman daiteke izena udalekuetan.

**ARIZMENDI IKASTOLA**

Opor garaian, uztailean, zaintza zerbitzua eskaintzen du Arizmendik. 1. mailatik 5. mailara arteko umeei zuzendutako da, eta programazioa ludikoa da.

**UDALEKU MUSIKALAK ETA INGELESEZKOAK**

## Bergaran, udaleku musicalen bidez, erritmoa, musika eta dantza landuko dituzte

Aurten, lehenengo aldiz, Bergarako Musika Eskolak udaleku musicalak antolatu ditu. Astelehenean hasi ziren umeak eskolak hartzen, eta uztailaren 10era arte ibiliko dira, 09:30etik 13:00etara. 4 eta 7 urte bitarteko 22 umeak eman dute izena: "Lehenengo aldia denez, adin tarte mugatu egin dugu, baina aurrerantzean ume gehiagori aukera ematea gustatuko litzaigu", adierazi digu Marije Ugaldetako. Udaleku horien helburua da gaur egun derrigorrezko hezkuntzan gutxi lantzen diren arloak lantzea; adibidez, musika, erritmoa, dantza... Horretarako, Nerea Muruamendiaraz Nafarroako Unibertsitateko Pedagogia arloko arduraduna eta Rakel Guridi kantu irakaslea dabilta irakasle lanetan.

Bestalde, Oñati Txantxiku ikastolan *Enjoy English* udalekuak antolatzen dute. Uztailaren 21a arte ibiliko dira 38 gazte udalekuak.

### Ume kopurua herriz herri

HERRIA	UME KOPURUA
ANTZUOLA	115
ARAMAIO	85
ARETXABAleta	220
ARRASATE	306
BERGARA	300
ELGETA	40
ESKORIATZA	185
GATZAGA	17
OÑATI	296
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.564</b>

ITURRIA: UDALAK

> DEIALDIA  
**Dirua behar dute  
Saharako umeak udan  
gurera ekartzeko**

Nubi eta Iesbaa elkarteeak deialdi berezia egin dute Saharako haurrek Euskal Herrira ekarri ahal izateko. Aurreikusita zeuden 19 haur etorri beharrean 14 ekartzea erabaki dute, diru faltagatik. Hala ere, 15.000 euro behar dituzte 14 haur horiek udan gurera ekartzeko. Diru hori uztailaren 7a baino lehen lortu behar dute; bestela, proiektua bertan behera gelditzeko arriskua dago. Egoera larria ikusita, bi elkarteeak dei berezia egin dute herritarren parte-hartza eskatuz. Proiectuan parte hartu gura duenak 685 724 817 telefonora deitu, edo ondorengo helbidera idatzi besterik ez du: *nubielkar-tea@gmail.com*.

> GARRAIOA  
**Lurraldebus txartela  
bost euro kostako da  
aurrerantzean**

Lurraldebus txartela ateratzea euro bat garestiagoa izango da aurrerantzean; hain zuzen, bost euro kostako da. Igoera horren zergatia plastikoaren prezioa eguneratzea da. Plastikoak txip elektroniko bat darama, hiriarteko zerbitzu guztia batzen dituena. Lurraldebus txartelaren bidaiak %40 merkeagoak dira. Bestalde, Foru Aldundiak erabaki du aurten txartel arrunten prezioa ez garesitztea.

Talde berezietako bigarren txartela eskatzen dute-nei, bestalde, bigarren txartela 5 euroko saldoarekin eta dagozkien hobariekin emanago zaie. Txartel bakarra ezaarriz zenetik 129.321 txartel banatu dira dagoeneko.

> ELIZA  
**Apaiz errepublikarrak  
omentzeko elizkizuna  
uztailaren 11n**

Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako gotzainek mezu bateratua plazaratu dute gerran hil zituzten apaiz errepublikarrak gogoan hartzeko. Horretarako, meza egingo dute hilaren 11n Gasteizko katedral berrian, 12:00etan.

Gogoan hartuko dituzten apaizzen artean bi debagoiendar daude: Leonardo Guridi Araosla oñatiarra eta Jose Iturrikastillo Arantzabal elgetarra. Guztira 14 izango dira omendutako apaizak. 1936 eta 1937. urteetan hil zituzten apaizok gerra irabazi zutenek. Apaiz haiei ez zitzainen egin hiletza-elizkizunik. Hala, oroiaren garbiketa egin eta barkamena eskatzea da elizkizunaren helburua.

HIRIGINTZA > KUDEATUZ PROIEKTUA

# Aretxabaletan eta Bergaran parte-hartzea bultzatuko dute

Herrien gobernu sistemak hobetzeaz hausnarketa egitea da Kudeatuz proiektuaren beste asmoa

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Gipuzkoako hamar herrik, tarte-an Aretxabaletak eta Bergarak, bat egin dute Kudeatuz proiektuarekin. Horrela, datozen hilabete- etan azterketak egingo dituzte herritarrek udal-politiken gainean duten iritzia jasotzeko, eta herri bakoitzak aurkeztutako proiektu zehatzten gainean herritarren parte-hartza bultzatzeko hainbat prozesu egingo dituzte.

Edurne Egaña Lehendakari- tzako foru diputatuaren esan- tan, Kudeatuz proiektuak bi hel- buru ditu: gure herrien gobernu sistemak hobetzeari buruzko hausnarketa egitea eta herritarraren parte-hartza sustatzea. Gipuzkoako gobernantza sistema hobetu nahi da erakunde eta herritarren arteko komunika- zioa sustatuz eta parte hartzeko programak abian jarriaz.

KALE-GARBIKETA

Bergaran Udalak eraiki behar duen erabilera askotariko antzokia diseinatzeko eta perfilatzeko eskatuko da herritarren partai- detza eta kale-garbiketa zerbi-

tzua hobetzeko ebaluatuko da politika publikoa.

Aretxabaletan, berriz, zehaztuko da eraikiko duten kiroldgi aurreko lursailari eman beharreko erabilera, eta ezagutu nahi dute herritarren iritzia kaleen, plazan eta gune publikoen garbi- ketaren, egokitzapenaren eta ordenaren gainean.



Garro eta Barruso proiektuarekin bat egin duten gainerako alkateekin. GOIENKARIA

ERREPIDEAK > AUTOBIDEA

## Uztailaren 6tik 9ra AP-1ean mozketak izango dira gauez

I. A. > ESKORIATZA

AP-1 autobidea gauez moztu egingo dute uztailaren 6tik 9ra bitartean segurtasun arrazoiengatik. Uztailaren 6ko 22:00etara uztailaren 7ko 06:00etara bitartean mozketa izango da, *by-pass*-arekin Eibarko noranzkoan Isuskitzako tunelean ke eta aerodinamika probak egiteko; Uztailaren 7tik 8ra bitartean eta ordutegi berean proba berberak egingo dituzte Zarimuzko tune-

lean eta zati hori moztu dute Eibarko noranzkoan; uztailaren 8tik 9ra arteko gauean Lukuko tunelean izango dira probak eta mozketa Gasteizera- ko noranzkoan.

ISUSKITZAKO TUNELA

Azkenik, uztailaren 9tik 10era 22:00etatik 06:00etara Eskoria- eta Luku arteko zati guztia itxiko dute Isuskitzako tunelean su probak egiteko.

> POLITIKA

### Albertia Eguna ospatuko dute domekan, uztailaren 5ean, Araban

EAE-ANVk Albertia Eguna ospatuko du uztailaren 5ean Legutio eta Landa arteko Gaztelua hariztian eta Albertiako tontorrean. 12:00etan gudariei tontorrean omenaldia egingo diete eta EAE- ANVko kide batek, preso politiko ohi batek eta Lau Haizetara plataformako kide batek hartuko dute parte; 13:30ean Gaztelua hariztian egingo den ekitaldi politikoan LABeko, Ezker Abertzaleko eta EAE-ANVko kide banak hartuko du hitza. Gero, herri bazkaria izango da Urbinan.

etxeko leihotik



Monika Belastegi > 'mbelastegi@goina.com'

## Belaunaldien arteko katea ez eteteko ekimena

U da heldu da eta horrekin batera ikasleek opor garaia hasi dute. Aspaldi eskola utzi genuenok oraindik oporturak noiz hartuko zain egon behar gara. Igerilekuak, jolaslekuak, hondartzak... jendez beteta daude -batik bat egunotan egiten duen berotzarrarekin-. Izan ere, horiek eta beste hainbat aukera dituzte gazteenek aisiaidiaz gozatu ahal izateko.

Esan ohi da elkartasuna eta voluntario lana ez direla gaur egungo gazteen ezaugarri nagusia. Baliteke orokorrean horrela izatea, baina asteon iritsi da 12 laguneko gazte taldea Bergarara, lan egitera, eta ez edonolako lana, gainera. Mizpirualde zaharren egoitzan dauzen egoiliarrei laguntzera etorri dira, Udalak hala eskatuta Jaurlaritzak antolatutako auzolandegien baitan.

Eguneroko bizitzan askotan ahaztuta ditugun nagusienendako haize freskoa izango da gazte hauen jarduna. Gasteoek uztail hotonetan Mizpirualdeko nagusien bizitza apur bat alaituko dutela ziur nago, baina hori horrela izanda ere, gazteek ez dituzte maletak hutsik eramango euren etxeetara. Maleta horietan urte askotan pilatutako esperientziak eta biziak joango dira, Mizpirualdeko nagusien gandik jasotakoak, hain justu. Belaunaldien arteko katea ez eteteko jarduera eta ekimen ezin hobe da Mizpirualden uztalean barrena egingo dutena.

> San Martzial

erromeria ospatuko dugu etzi Bergaran. Gustuko jaia da herritarren artean, tradizio handikoa. Eskerrak temperaturak behera egingo duela iragarri duten; izan ere erromeria hori egariarekin izugarria izan daiteke...

> Gidabaimena

daukaten gipuzkoarren %85k jaso dituzte Trafikok sari gisa emandako bi puntuak. Gainerako %15a da kezkagarria, batik bat puntuak galdu baditzute edanda gidatzeagatik edo baimendutako abiadura gaintzeagatik.

MENDIA > AIZKORRI

## Bi mendi ibilaldi Aizkorriko Lagunen Egunean domekan

Aizkorriko aterpetxeak uztailaren 8an beteko ditu 75 urte eta plaka ipiniko dute

I. A. > ZEGAMA

Uztailaren 5ean, Aizkorriko Lagunen Eguna ospatuko dute Zegaman. Goizean bi mendi ibilaldi izango dira: 07:00etan Zegamako plazatik Aizkorrira eta 08:00etan apeaderotik plazara Aizkorrondoko kanalean zehar.

Bestalde, uztailaren 8an Aizkorriko aterpetxeak 75 urte beteko dituenez, Zegamako Udalak orioimen-plaka ipiniko du aterpetxeen hilaren 5ean, 09:30ean.

HEGALUZE DASTATZEA

Mendizaleak Zegamara bueltazen direnerako, 11:30erako, Eusko Labeleko hegaluez dasatzea antolatu dute egun horretarako eta jaia bukatzeko txikienendako Poxpolo eta Moko-lo pailazoaren emanaldia izango da Zegamako frontoian.

Zegamako Udalak jai horretan parte hartzen gonbidatu nahi dituzte Aizkorri eta inguruak gustuko dituztenak.

HEZKUNTZA > LEGE SOZIOLOGIA INSTITUTUA

## Konplexutasuna, gatazkak eta justizia aztergai 20. urteurreneneko kongresuan

Nazioarteko 230 aditutik gora elkartuko dira Oñatin lege soziologiaren azken 20 urteotako lorpen garrantzitsuenetan hausnartu nahi dute, "alferriko galduak aukerak eta bete ez diren promesak aztertzat eta gaur egungo gizarte aldaketa eta gatazkak direla-eta zuzenbidearen ikerketa soziologikoari sortutako galderak berriak planteatzu.

Nazioarteko 230 aditu baino gehiago elkartuko dira eta iker- taileek batera egingo diren sei bil-kuren artean aukera dezakete. Saioak udaletxean, kultura etxe- an, Bake Lekuaren areto nagusian, Santa Ana auditoriumean eta LSNERen egoitzan izango dira.

GATAZKA ETA TENTSIOAK ULERTU

Gaur egungo gatazka eta tentsioen konplexutasuna ulertzea da arlo sozio-juridikoko adituen erronka. Aztertuko dute diziplinak zein lotura dituen beste gizarte-zientziekin, giza zientziekin eta politikarekin.

Saio teorikoez gain, bestelako ekintzak ere izango dira kongresuko partaideendako: Oñati-ko elkartea gastronomiko batean afaria; Donostiako Santa Cecilia abesbatzaren kontzertua Arantzazuko Basilikan; Oñati-ko Udalak eskainitako koktela eta buka- tzeko, Donostiarra txangoa.



zabalik

Oskar Elizburu

## Euskaraz jo ta fuego!

Dragoi-janerako prestaketenetan genbizen eta billerara lelo barrioxak eruan bihar! Ez da makala leluak asmatzia, izan be, AED eta AEKKUOK badaroia guz elkarlanian hamai-katxo urte. Zer ez dogu aldarrikatu ba? (*gu gara garra, ez badarabizu erdoolduko jatzu, euskara ahoz aho...*)

Ideia berrioxak batu eta botaziñua egiten dogu, onenari 3 puntu, bigarrenari 2... Aurten: *Dragoia jan da gero, euskaraz jo ta fuego*. Leluak badauka indarra eta mamiña.

Dragoi-janian jolas moduko bat egittia be pentsatu genduan: leluaren erdixa azaldu txarteltxo batzuetan, galderia jarri eta lelo osua idazten zebenen artian zozketia egittia. Opari pare bat eman (sekretua datorren urterako) eta irabazliak euskararen garraren zaindaria izan bihar, urtebetearako. Baino, infraestructura arazo batzuk zirala ta, ezin izan genduan burutu. Hurrengorako hobeto lotu beharko!

Mezu da garrantzitsuena Dragoi-janean. Dragoia da Arrasateko ikurra; eta guk, jaixak aprobeta, dragoiaren garra eta indarra euskararen aldeko akuillu gisa erabili nahi izaten dogu.

**"Arrasateko ikurra  
dragoia da; haren  
garra eta indarra  
euskararen aldeko  
akuillu gisa erabili  
nahi izaten dogu"**

*Jo ta fuego* esamoldia barik, gaur egun jo ta ke darabigu gehiagotan, dana dala, nahizago nik sua keia baiño. Sua ekintza da, keia... *Hitzak haiziak darioiaz* esateko ohitura be bidaukagu, esatiak eta egittiak gauza bera ez direla azaltzeko; baiña haiziak bestion belarrietara eruaten dittu berbok, eta euskarazko (euskaldunon) hitzok bide hori egin biarra dauke.

### usteak uste

Irati Agirreazaldegi

## Hemen ez da giro!

Uda gurera ere heldu da. Uztailera sartu orduko, bero zapa gertuko. Euria goian behean denean tantek bustitzen gaituztelako kexu gara, eta orain kexatzeko arrazoi beroa eta udara, edo aldamenekoaren izerdi tanta guri erori zaigula beharbada. Bero, hala ere denok hondar-tza eta igerilekuetako bezero, eta inurrien modura pilatzen gara gero. Termometroa zenbat eta gorago igo, jende kopuru ere gora doa astiro-astiro; hemen sekulako beroa dago, baina ez da giro!

## Goienkaria

Argitaratzailea Goien Komunikazio Berbiztua Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE

Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendarri nagusia** Iñaki Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Saietako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak), Xabi Urzelai (Kirola), Edi Mendibil (Goienka2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Oinarrizko diseinua** Goi Arana **Maketazioa** Imanol Soriano **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Ziorra Martín, Ixasoz Bereziar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaiztzarain, Ane Bereziar, Iratxe Bengoa.

### EGOITA NAGUSIA

**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12

Posta-e: goienkaria@goina.com

### ORDEZKARITZAK

**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00

Posta-e: arrasate@goina.com

**ARETXABAleta** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxabaleta@goina.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09

Posta-e: public@goina.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goina.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 20.000 ale • Difusioa: 19.724 ale.



OID erakundeak  
ikuskatutako astekaria



## marrakiz

Unai Busturia



## blog-top

### Eliseo Gil eta Idoia Filloy epailearen aurrera

Juan Martin Elexpuru  
[www.goiena.net/blogak/elexpuru](http://www.goiena.net/blogak/elexpuru)

Epailearen aurreko deklarazioek, batetik, eta iritzi-artikulu, txosten berri, hitzaldi eta abarrek, bestetik, aktualitatera ekarriko dute Iruña-Veleiako auzia hurrengo egunetan.

1. Epailearen aurrera. Asteartean, ekainak 30, eguerdiako 12etan, Eliseo Gil zuzendari ohia eta Idoia Filloy zuzendari-kide ohia epailearen aurretik pasatu beharko dira deklaratzeera. EuskoTrenek kerella sartu die *por estafa*, eta 600.000 euro eskatzen die. (...)

2. Iritzi-artikulu interesgarria. Jabi Otxoa de Alda Historian lizentziatuak oso artikulu argigarria idatzi du auziaz *Noticias de Alava* egunkarian (ekainak 26).

3. Zer esana emango duen txosten. Koenraad Van den Driessche geologoak *El problema de la falsedad/autenticidad*

de los ostracones de Iruña-Veleia. Evidencias físicas txostenia idatzi du.

4. Hitzaldia: Uztailaren 7an, astearte, 19:30, hitzaldia Gasteiz, Goiuri/Villasuso Jauregian. Hizlariak: Eliseo Gil, Idoia Filloy, Koenraad Van den Driessche eta Juan Martin Elexpuru.

### Antisistema

Txuma Murugarren  
[www.berria.info/blogak/txuma](http://www.berria.info/blogak/txuma)

Gaurko berrietak bat da agure bat hil dutela (dela) Inglaterran eta bideo bat agertzen da non ikusten den nola poliziak, zakarki, bultzaten duen lurrera. Handik gutxira, altzatu eta hil omen zen bihotzkoak jota. Ikertuko dute poliziaren bortizkeriagatik izan den. Honek izua altzatu omen du Inglaterran, izan ere, denek aipatzen dute ez zela "antisistema" bat, langile xume bat baino. Bigarren irakurketa batean, ondorioztatu daiteke "antisistema" hiltzea ulergarria dela, eta hala balitz, poliziaren ekintza ondo dagoela eta ez dela ezer ikertu behar. (...)

## koplak

Enaitz Alustiza

### San Martzialak

Bergaran ere ospatzen dira nahiko bazeenute jakin baina lotura gutxi daukate Irungo San Martzialekin.

Ze guapak diren Konpainiaren aurretik joaten direnak eta Bergaran kantineroak dira kantinan daudenak.

Ume, gazte, heldu ta jubilatu neurri gabe edanez hara: Bergarakoa mundu guztiko boteiloi handiena da.

Asteartean zazpi t'erditan igo ziren mezetara baina ez dakit zer / gustatzen zaien meza ala txokolatada.

Ohar zaitezte Mansori esker Ardoa debalde dela Enologoek esaten dute Kimiko onak direla.

Nahiz festa hauiek / ezautzen diren San Martzialek izenez mozkor mordo bat aurki daiteke baina santa-santurik ez..

## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria**

Luis Jimenez Aberasturi Korta (Donostia, 1943) editorea da eta Txertoa argitaletxearen sor-

tzailea. Spainiako gerrak Kan-tauri itsasoaren aldean sortu-tako ondorioengaineko lau libu-

ru idatzi ditu. Tardean, Felix Likiniano arrasatearra eta haren emaztea ezagutu zituen. Orain

esku artean dituen bi liburuek, baina, gerrarekin zerikusirik ez dutela esan digu.

Luis Jimenez Aberasturi > 'Casilda miliciana' liburuaren egilea

# "Likiniano zintzoa zen, gauzak zuri edo beltz ikusten zituen, erdibiderik gabe"

MIREIA BIKUÑA > ESKORIATZA

Felix Likinianoren gaineko era-kusketaren inaugurazioan egon zen Casilda miliciana liburuaren egilea. Luis Jimenez Aberasturik eman dizkigu liburuaren gaineko azalpenak eta Casilda Hernaezi buruzko argitasunak.

**Felix Likinianoren emazte Casilda Hernaezi elkarriketa egin zenion, eta hitz horiek liburu batean jaso zenituen, Casilda miliciana izenekoa. Noiz elkartu zinen harekin?**

1984. urtean egin nion elkarriketa. Ezagutzen nuen, eta banekien istorio asko zituela kontatzeko. Era berean, banekien beste pertsona asko ahalegindu zirela harekin berba egiten, baina ez zutela ezer lortu.

Nik Felix Likiniano eta Manuel Chiapuso ezagutzen nituen, euren gaineko liburu bat idatzi nuelako, eta haien kon-bentzu zuten Casilda.

Biarritzeko merkatu plazan elkartu ginen, eta ahal izan nuen informazio guztia atera nion. Gustura geratu nintzen liburua-rekin, baina sentsazioa izan nuen etekin handiagoa ateratzeko ema-kumea zela.


**Zerk harritu zintuen gehien?**

Emakume apala zen, eta anonomatuan bizi izatea gustuko zuen. Natura gustuko zuen, mendian paseatzen zuen eta hondar-tzan biluzik bainatzen zen. Kon-tatutako pasarteekin, haren bizi-tzako gidoia egin nuen. Casildak erakutsi zidan CNTko kide iza-tea ez dela bakarrik bonbak ipin-tea. Orduko emakumeen alde lan itzela egin zuen; bestea beste, euren askapenaren alde, soldata duinaren alde, greba egiteko zuten eskubidearen alde eta bizi-rik irauteko eskubidearen alde. Bestalde, prostitutak defendatu zituen. Oro har, garai hartan zapalduta zeuden emakumeekin hartu-eman sendoa izan zuela esango nuke.

Bestalde, etxeko ateak zaba-liz zituen beti. Ihesi zetorren edo-zein pertsona hartzen zuen etxe-an, azalpenik eskatu gabe. Emakume zintzoa izan zen hil arte, ez zituen izarea eta pentsatzeko moduak aldatu.

**Jendartea Casildaren eta Felixen gaineko iritzi okerra zue-la esango zenuke?**

Bai. Milizianoa da askatasu-naren alde lan egiten duen gizon edo emakumea. Euren helburuak



Luis Jimenez Aberasturi, Eskoriatzako Ibarraundi museoko erakusketaren inaugurazioan.

LARRAITZ ZEBERIO

## BORROKALARIAK

**"Garai harten zapalduta zeuden emakumeekin hartu-eman sendoa izan zuten; bestea beste, prostitutekin"**

lortzeko bide eta ate guztiak ixten dizkietenean, borrokarako bidea erabiltzen dute. Pertsona horiek bizitza eman dute euren ideien-gatik. Casilda eta Felix faxismoaren kontra borrokatu ziren Espainiako gerrako hainbat frontetan, euren helburuak lortzeko asmoarekin.

## ERRESPETUA

**"Anarkistak oso matxistak ziren arren, errespetu handia zioten Likinianoren emazte Casilda Hernaezi"**

Emakume borrokalaria zen. Nola ikusten zuten harekin borrokatzentz zirenak? Borrokalaria zen, bai, eta emakumeen eta gizonezkoen artean ezberdintasunek ez zeude-la uste zuen. Borroka egiteko orduan fusila hartu eta lehen lerroan jartzen zen.

## LIKINIANO

**"EZ nuen horrenbeste jende espero Likinianoren erakusketaren aurkezpenean"**

Bartzelonan bizi izan ziren garaian, tailer eta haurtzaindegi bateko arduradun moduan jarri zuten haren kideek. Hase-rretu egin zen. Borrokarako ger-tu zegoela esan zien eta frontera joan zen. Orduko anarkisten artean matxismoa zen nagusi, baina Casildak guztien errespetua lor-

tu zuen. Iraultzailea zen, baina gizonezkoen eta emakumezkoen errespetua lortu zuen. Hark zio-en errespetua ezinbestekoa zela, inguruau dugun egoera bat edo bestea izan. Casildak eta Felixek bikote sendoa osatzen zuten.

**Casildak irakurri egin zuen liburua hil aurretik?**

Bai, irakurri zuen, eta behin eta berriz esan zidan berak kon-tatutakoak ez zuela baliorik, ez zuela merezi kontu guztiak liburu baten sartzea.

**Casildaren bitartez ezagutu zenuen Felix Likiniano?**

Ez, alderantziz. Casildari buruzko liburua trilogia baten barruan sartzen da. Lehen liburu La comuna de San Sebastián izan zen, eta hura idatzeko Manuel Chiapusorekin eta Fermin Likinianorekin egin nuen berba. Orduan ezagutu nuen Casilda, eta pertsona interesgarria zela iruditu zitzaidan.

Trilogiaren hirugarren liburu da El Gobierno Vasco y los anarquistas.

**Nolakoa zen Felix Likiniano?**

Akzio gizona zen. Adibide bat jarriko dizut: Irunen sute bat izan zen gerra garaian, baina inork ez zekien nortzuk ziren egileak. Manuel Chiapusok eta Casildak zioten ez zirela anarkis-tak izan. Gure ama ere han zegoen, eta askotan esan zidan ez zekiela zer geratu zen. Baina Likiniano zintzoagoa zen, eta aitortu zuen anarkistek egin zute-la sutea. Likinianok gauzak beltz edo zuri ikusten zituen, erdibiderik gabe.

**Likinianoren gaineko erakus-ketaren inaugurazioan izan zinen Eskoriatzan. Gustatu zaizu?**

Egia esan, bai. Alde batetik, ikusten da pertsona batzuek lan asko egiten dutela ahalik eta material gehien biltzeko; filmak eta orduko egunkariak, bestea beste. Gainera, trintxera bat jarri dute.

Beste alde batetik, antzeman-ten da emakumeek ukitu berezia eman diotela erakusketari. Bestalde, asko harritu ninduen zen-bat pertsona egon ziren aurkezpenean; Likinianoren senitarte-koak eta lagunak, Eskoriatzako, Gatzagako eta Arrasateko udal ordezkarriak eta komunikabide-ak egon ziren. Asko poztu nin-tzen.

## Kulturate

**Agustin Fernandez**

Arrasate

Antza denez, Arrasateko Kulturateko liburutegia zabalik dago astelehenetik egubakoitzera, egunean zortzi ordu baino gutxiagotan. Hori salatu dute hainbat ikaslek, baina Gabonetatik hona ez dute inolako erantzunak jaso egindako kexuei. Eta hori ikasle horien eskubideak urratzea litzateke.

San Juan jaietan liburutegi hori itxita egon da egunero, justu, ikasturte amaierako etsaminetan dihardutenean ehunka ikaslek.

Iruditzen zait Arrasateko Udalak erakusten duela ardurarik eza Kulturateren funtzionamenduarekin, eta herriko kultura gune garesti eta bakkala gutxiegi erabiltzen dela, kontuan izanda unibertsitate bat daukagula eta, komeni zaigunean, Arrasateri laugaren hiriburu deitzen diogula.

## Eguzkilarutarrooi

**Irune Gabilondo** (Txatxilipurdi)

Arrasate

Eskutitz honen bitartez eskerrak eman nahi dizkiegu Arrasateko San Juan jaietan, Eguzkilaru egunean, parte hartu duten guztie; haur, gazte, heldu, guraso, aitonamona, eta abarri, egun hau hain polita eta desiragarria egitearren. Eta, nola ez, egun hau aurrera eramatzen lagundu diguten haiei ere: Arrasateko Udalari; Kultur Saila eta Brigada, zuen laguntzarik gabe amets hau ez zelako posible izango. Eta ezin ahaztu Txatxilipurdiko hezitzaleak, umeak bezain garrantzitsuak zarete-noi. Mila esker, beraz, eguzkilarutarrooi.

## Oroimena garbitu

**Rikardo Blazquez, Joan Maria Uriarte eta Miguel Asurmendi (Bilboko, Donostiarra eta Gasteizko gotzainak, hurrenez hurren) eta Mario Iceta**

Bilbo

XX. mendean Espanian izandako 498 martiriren beatifikazioa egin zen, 2007ko urriaren 28an, Errroman. Hietako batzuk jatorriz gure elizbarrutietan sortuak ziren. Egokiera hartaz baliaturik –baita lehenago eta geroztik ere–, gogorarazi izan digute 1936. eta 1937. urteetan hamalau apaiz –hauek ere gure elizbarrutietakoak– hil zituzte-

la gerra irabazi zutenek. Apaiz haiei ez zitzaien egin zegokien hileta-elizkizunek, eta kasu gehienetan ez zen haien heriotza erregistratu ere Elizbarrutiko Aldizkari Nagusian. Bilbo, Donostia eta Gasteizko gotzainok arretaz entzun dugu zuzendu diguten eskaria, onartu ditugu arrazoak eta bidezkotzat jo dugu egiteke dagoen eginkizun hau betetzea.

Guk, geure elizbarrutietako kristau-elkarteekin batera, "oroimenaren garbiketaren" (Joan Paulo II.a) ekintza burutu nahi dugu. Joan Paulo II.ak gure garairako emandako argibideei jarraituz egin nahi dugu hori; hau da, "etorkizuneko bidean geure urratsak" sendotuz, "geure burua apalago eginez eta Ebanjelioarekiko geure atxikipenean arreta handiagoa jarriz" (Mateo Mujika).

Zazpi hamarkada baino gehiago joan dira Gerra Zibilak ekarritako bizikidetzaren haustura tragico hartatik. Eragin mingarriak izan zituen gertaera hark, artean bakarra zen Gasteizko elizbarrutian. Mateo Mujika jauna –gaur, haren oroipena orhoratz, Jaunaren aurrean gogoan duguna– zen garai hartan elizbarruti hotentako gotzaina. Oso nahasia zelako, lana eta nekea erruz ekarri zion egoera zail batean egokitutu zitzaion Gasteizko elizbarrutia gotzain bezala zerbitzatzea, hildako, desagertu, espoxeratu eta deserriratu asko eta asko eragin baitzuen gatazka hark. Eliz elkartea bera ez zen sufrimendutik libratu, ezta hurrik eman ere: laiko, erlijioso-erlijiosa eta apaiz ugari hil zuten; beste askok zigorrak eta konponbiderik gabeko galerak jasan zituzten. Hirurogeita hamar apaiz eta erlijioso baino gehiago hil zituzten Gasteizko elizbarrutian, alde baten zein bestearren kontrolpean zeuden lurralteetan.

Erunka lagun exekutatu zuten, gorrotoaren eta mende-kuen biktima. Denen oroipena eginez, adierazpen honek hau du helburu: garaileek hilak eta isilpera baztertuak izan ziren apaiz haiek bereziki gogora ekartzea. Honako hauek dira zehazki: Martin Lekuona Etxabeguren, Gerbasio Albizu Bidaur, Jose Adarraga Larburu, Jose Ariztimuño Olaso, Jose Sagarna Uriarte, Alejandro Mendikute Lizeaga, Jose Otano Migelez C.M.F., Jose Joakin Arin Oiartzabal, Leonardo Guridi Arrazola, Jose Markiegi Olazabal, Jose Ignacio Peñagarikano Solozabal, Zelestino Onaindia Zuloaga, Jose Iturrikastillo Aranzabal eta Roman de San Jose Urtiaga Elezburu O.C.D.

Hauak ez zuten izan hiletak ospakizun jendaurrekorik. Elizbarrutiko Aldizkari Nagusian eta hildako apaizen erregistroan lehenengo bien izenak bakarrik dato, eta biak Mateo Mujika gotzain jaunak Elizbarrutik derrigorrez alde egin aurretik hildakoak ziren. Dagozkien parrokietako liburuetan ere ez dago hauen heriotzaren arrastorik.

Aipatutako gertaerek zer pentsatua ematen digute geuri eta gure elizbarrutietako elkarteei.

Egia zerbitzatu nahi dugu, hori baita justizia, bakaera eta adiskidetza eraikitzeo oinarri funtsezkoetako bat. Ez ditugu zauriak berriro ireki nahi; alderantzik, zauriak sendatzen edo leuntzen lagundu nahi dugu. Ahaztuak edo baztertuak izan direnei duintasuna aitortzen eta beren etxeako eta sendikoen mina arintzen lagundu nahi dugu.

Barkamena eskatzen eta barkamena eskaintzen dei egin nahi dugu. Ez da inola ere gure asmoa geure burua besteen epaile jartzeko; alderantzik, iraganeko nahiz oraingo geure mugak aitortu nahi ditugu Jainkoaren aurrean. "Kristoren Gorputz mistikoan batzuk eta besteok batzen gaituen loturagatik badakigu, geure aurrekoen hutsegite eta erruen zama daramagula, nahiz eta erantzukizun pertsonalik izan ez eta Jainkoaren epaia saihestu ez, bera baita bihotzak ezagutzen dituen bakarra". Barkamena eskatzean, Elizak, lehenik eta behin, biziaren eta bakearen iturri den Jainkoari zuzentzen dio bere eskaria. Berari eskatzen diogu "geure arteko desadostasun politikoak eta sozialak konpontzeko bide bezala indarkeria eta heriotza erabiltzeari beti uko egiten jakiteko beharrezko dugun argia eta indarra" (Espaniako Gotzainen Batzarra) Berak baska ditzala gure hobenak eta erakuts diezagula geure hobendunei barkatzen.

Oroimenaren garbiketa honen ageriko adierazpen bezala, honako ekimen hauek burutzea erabaki dugu:

Hileta-elizkizun bateratua ospatza, haiek beren garaian izan ez zuten aipamen eta aitormenta berezia eginez. Uztailaren 11ko larunbatean egingo dugu ospakizuna, gu geu gotzain guztiok buru garela, Gasteizko Katedral Berrian, eguerdiko hamabietan. Jainkoaren herri osoa dago ospakizun honetara gonbidatua eta, bereziki, gure elizbarrutietako biktimen eta apaiz haien senitartekoak.

Elizbarruti bakoitzeko Aldizkari Nagusian berri hau argitaratzea, baztertuak izan

ziren haien bizitzako eta heriotzako datuak jasoz.

Haien izenak Elizbarrutietako hildako apaizen erregistroan eta dagozkien parrokia liburuetan sartzea.

Oroimena garbituz; egia zerbitzatzuz; barkamena eskatuz, eskainiz eta onartuz begiratu nahi diogu iraganari, orainaldi eta etorkizun berriak nola eraiki ikas dezagun.

## Alkatearen neurriak

**Basili Ormazabal, Dina Mujika eta Joseba Lezeta**

(Antzuolako Udaleko EAJ taldeko zinegotziak)

Antzuola

Duela hiru bat aste badira Antzuolako Udalak krisi ekonomikoari aurre egiteko hartutako neurriei buruz komunikabide desberdinan guk geuk harriduraz entzun eta irakurri ahal izandakoak. Aurreikusitako inbertsio batzuk ez egitea, gastu korrontearen jaitsiera eta langileen kontratazioa dira Udalak egoera ekonomiko kaxkarrari aurre egiteko hartutako neurriak.

Gure taldea ados dago batez ere Fondo Foralak datorren diru sarreraren jatsierarenagatik (250.000 euro) erabakiak hartu behar izatea, baina ez gaude ados alkateak bere kasa hartzen dituen erabaki demagogiko eta presidentzialistekin.

Urteko aurrekontuak Plenoan eztabaidatu eta onartzen dira, eta, nahiz eta Udal Gobernuan gu ez egon, Plenoko kideak gara eta Komisio Informatiboa ere parte hartzen dugu. Horregatik, uste dugu, aurrekontuen inguruau hartzen diren edozein erabakiren aurrean, eta komunikabideetara zabaldu aurrekotik, Komisioetan eztabaidatu eta Plenoan onartu behar direla.

Udal zinegotziekin alkateak adierazitako sentsibilitate eta errespetu eza horrez gain, prentsari aurreratutako informazioa ez da guztiz egia.

1. Egin nahi ez diren inbertsioak ez daude 2009ko aurrekontuan sartuta, beraz, ez dio horrek inongo aurrezpenik suposatuko udaleko dirukutxan.

2. Eman beharreko diru laguntzen inguruau, alkateak aurreikusten duen %10aren jaitsiera intentzio demagogikoa bat besterik ez da, jakin dakigunean bere ekimenari esker Antzuolaren loturariak ez duten elkarteei dirutzak eman zaizkiela, eta Komisio Informatiboa onarpenean barik gainera. Eta hori gutxi balitz, aurrekontuetan sartu barik

zeuden subentzio berriak ere bultzatu egin dituela.

3. Langile batzuk kontratazko lanari zuzendutako laguntzei esker, berriz, alkateak ganorazko brigada bat herrian antolatzeko duen ezintasunaren seinalea besterik ez da. Bi urte pasatu dira udal langile bik lagatako lanpostu hutseak bete ez direla, eta Udalaren zaitasun ekonomikoak konpondu nahi ditu bi langile hauek lagatako soldatekin, horrekin herrian hain garrantzitsua den brigada zerbitzua zeharo ahuldua lagaz. Hau da, kontentsua lortzeko asmoz, alkateak aurre kanpainan adierazi nahi izan zuen transparentzia eta elkarritzeta?

## Adinduendako eserlekuak

**Marian Erostabarre**

Oñati

Etxez etxeko gizarte laguntzalea naiz eta hainbat adindu oñatiar zaintzea egokitu zait. Bada, Oñatiako kaleetan barrena zaharrekin egiten ditugun ibilaldietan, ohartu naiz adinduek arazoak dituzte-la ibilaldia amaitzeko. Izan ere, ezin dute atsedenik hartu. Eta ez da eserlekuak ez daudelako, herrian barrena ondo banatuta baitaude, baizik eta hauek oso baxuak direlako eta laguntzariak ez duten pertsona adinduak ezin daitezkelako altzatua beren kabuz. Egoera hau baezta dezakete afektatu eta zaintzaile askok.

Zaitasun hauetaz jabetuta, adindu askok eserleku horietan jazartzea saihesten dute eta saiatzen dira esertzen autobus geralekuetako markesinetako aulkietan, hauek apur bat altzeagoak direlako. Autobusaren zain daudela dirudien arren, atseden hartzen daude.

Une honetan, Udalak herriko hainbat kale egokitzen dihardu, adinduen eta gutxituen erabilerraztasuna bermatzeko, eta iruditzen zait Udalak aintzat hartu beharko lukeela kaleko altzariak, eserlekuak hain justu ere, ezkaituen beharretara egokitzeko.

Arazo honi aurre egiteak ez dakar inbertsio handiegirik. Nahikoa izango litzateke altzagarri batzuk jartzeari. Horiek, gainera, altzariak saltzen dituztenek hornitu ahal izango lituzkete. Eta altzari berriak eroasterakoan, arazo hau kontuan har dadila.

Eserlekuak pintatzeaz gain, Udalak kontratutako langabe taldeak beste mantenu lan batzuk ere egin ditzake, zaharrak gehien erabiltzen dituzten lekuetako eserlekuetatik hasita.



Kutxa Inbertsio-Irtenbideak

Ez duzulako  
galtzea jasaten.

EUROLIDER  
GORDAILU BERRIA

IRABAZTEKO ASKO,  
GALTZEKO DEUS EZ.

%100  
BERMATUTA

Errentagarritasun handiko aukerak  
eta zure kapitalaren %100  
bermatuta dituen gordailua.  
Etorri **kutxara** eta galde iezaguzu.

Eusko Jaurlaritzak baimendutako publizitatea, 090203 espediente zk-duna.

zer nahi duzu bihar?

[www.kutxa.net](http://www.kutxa.net)

 **kutxa**

## UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENKO GOIENKARIA V. LEHIAKETA

# Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak

...eta hiru sari bikainetako bat irabazi ahal izango duzu!


Argazki guztiak fotoblog honetan: [www.goiena.net/blogak/argazkiak](http://www.goiena.net/blogak/argazkiak)

AURREKO URTEKO IRABAZLEAK



MIREIA LIZARRALDE

Har ezazu parte!



XABIER ARABAOLAZA



JOSE RAMON TXINTXURRETA

**Baldintzak**

- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakaoak izatea edo beste uda batekoak.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiok.
- Argazkiak jasotzeko epea hasiko da uztailaren 3an eta amaituko da irailaren 18an.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Debagoineneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarrak izango).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (horrela izanez gero, paperean erreproduzitzeko moduko bereizmen eta kalitatearekin).
- Bidali ahal izango dira e-postaz [argazkiak@goiena.com](mailto:argazkiak@goiena.com) helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri: Arrasate: Otarola Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate. Bergara: Irizar jauregia, Barrenkalea 33, 20570 Bergara. Aretxabaleta: Durana 11, 2. solairua, 20550 Aretxabaleta edo Basabe poligonoa E-O-5, 20550 Aretxabaleta.
- Egoitzara ekartzekotan kartazal batean sartuta (egilearen izen eta abizenkin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPEG formatuan.
- Parte-hartzaleek, gehienez, 5 argazki bidali ahal izango dituzte.

- Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri-beltzean.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira: egilearen izen eta abizenak, adina, harremetarako telefonoa eta argazkiaren erreferentzia (noiz eta non ateratakoa den, zer edo nortzuk agertzen diren, edo beste komentario labur bat).
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero uztailaren erdialdetik aurrera ASTELEHENKO GOIENKARIAn eta *Goiena.net*-n sortutako foto-blogean. GOITBn ere emango dira.
- Irabazoleak nortzuk diren urriaren 5ean jakingo dugu ASTELEHENKO GOIENKARIAn.
- Epaimahaia Goienako kideek eta bailaroko argazkilari profesionalek osatuko dute.
- Epaimahaia argazkiak kalitate, originaltasun eta balio historikoa hartuko ditu kontuan.
- Horrez gain, GOIENAKO beste hedabideek ere egingo dute lehiaketaren jarraipena.
- Argazki asko jasotzen baditugu, ez ditugu guztiak argitaratuko. Onenak aukeratuko ditugu orri batean kabitzen direnak argitaratzeko, egilea aipatuz eta beste komentario labur batekin.
- Jasotako argazkiak ASTELEHENKO GOIENKARIKO artxiboa gordeko dira eta aurrerantzean erabiltzea erabakitzetan, badugu egilearen izena ipiniko dugu.

**Sariak**

**1. saria:** Bergarako kiñu argazki dendaren eskutik.

- Live View AF sistemarekin
- 10 milioi pixel.
- Zuiko digital 14-42 mm-ko objektiboa.
- Flash eta guzti.
- 2,7 hazbeteko LCD pantaila atzeldean.



**2. saria:** Cantabriako Treceño herriko Hotel Palacio de Guevara-n Astebukaera bateko egonaldia bi lagunendako. Gosaria eta larunbateko afari berezia barne Arrasate Bidaia-ek eskutik.



**3. saria:** Bi pertsonarendako afari/bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

Laguntzaileak:



**OLYMPUS**  
Your Vision, Our Future

**GURE AMETSIA**  
JATETXEA

Arrasate Bidaiak  
BIDAI-A-AGENTZIA ELKARTUA



**ASTELEHENKO**  
**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedun egiteko:

**943 08 10 50**  
Astelehenetik egubakoitzera  
09:00etik 18:00etara

# Herriak

Arrasate > 14-18 Bergara > 19-22 Aretxabaleta > 24-26 Oñati > 27  
Eskoriatza > 28-29 Antzuola > 30 Elgeta > 31 Aramaio > 32 Gatzaga > 33



> ARRASATE  
Udazabal udako egitarauak dantza, musika eta zinema batzen ditu > 15



> BERGARA  
Udal agintariak egingo dute aurreskua San Martzialetan > 19



> ARETXABAleta  
Boccian Spainiako txapeldun etorri da Avilestik Hector Prieto > 25



> ELGETA  
Ferixa Nagusian, etzi, 22-25 idi pare inguru erakutsiko dituzte > 31

ARAMAIO > ZERBITZUAK

## Aramaioko baserri bakoitzera bidea esaten duen GPSa egin dute

### LARRIALDIAK

Erabilera nagusia larrialdi zerbitzuetarako da, bidean gal ez daitezten

### INTERNETEN

'Alava-caserios.com' webgunean dago tresna, eta PDArA deskarga daiteke


LEIRE KORTABARRIA > ARAMAIO

Turismoa egiten joanda baserri zehatz bat non dagoen ez jakitea eta bidean galtzea gauza bat da, baina oso bestelakoa da baserri horretan larrialdi bat egonda, horri erantzutera doan anbulantzia bidean galtzea eta horren ondorioz zoritzarra areagotzea. Bada, hori gertatu zen Aramaion, eta Aramaioko alkatea, Asier Agirre, Arabako Foru Aldundia zuzendu zen horren berri eman eta irtenbide bat proposatzeko: GPS sistema bat garatzea.

Proposamen hori Alava-caserios.com webgunean gorpuztu da. Arabako Foru Aldundiako Tokiko Administrazioko zuzendariak, Alfredo de Miguelek, eta Lurrarde Orekaren zuzendariak, Iñaki Nafarrate aramaioarrak, aurkeztu zuten asteluhenean. Geotech enpresa arabarrarekin batera, hori baita aplikazioa garatu dueña. Horren erabilpen interesgarriena larrialdi zerbitzuendako da, izan ere, Aramaioko baserri bakoitzera gidatuko dituen GPS sistema gisa erabil daiteke aplikazio hori, eta helburu nagusi horrekin egin da.

### "EZ DIRA INON AGERTZEN"

Arabako Foru Aldundiak udalek euren Hiri-Lurralde Antolamendu Planak egin ditzaten dirulaguntza bat dauka. Dirulaguntza hori emateko bidean konturatu ziren sakabanatutako populazio-guneek, hau da, baserri-guneek, gabezia batzuk zituztela Araban, eta tartean, leku jakin bakoitzak



Barajuen auzoko Eguzkitza baserria (irudi handian, laukian) agertzen da Alava-caserios.com aplikazioan (irudi txikian).

ARRITXU BARRUSO/USOA AGIRRE

ezagutzen ez dutenendako ez dela egoten erreferentziarik baserri horiek topatzeko; "kasu batzuetan, auzokoek bakarrik dakizkite baserrion izenak, ez dira inon agertzen, eta horri orografia bihurria gehituta, ulertzeko da baserri horiek topatzen zailak izatea", azaltzen du Foru Aldundiako pren-

tsa arduradun Miguelan Rodriguezek. "Araban, egoera hori, batez ere, Aramaio aldean eta Araiako bailaran gertatzen dela ikusi genuen", gaineratzen du. Horregatik, GPS tresna lehenengo Aramaiorako prestatu dute, plan pilotu gisa, eta gero hedatzeko asmoa daukate.

### KONTUAN HARTZEKO

### Norbanako guztiendako da 'Alava-caserios.com', ez bakarrik larrialdietarako

"Administrazio, zerbitzu eta norbanako guztiendako" egin dute Alava-caserios.com tresna, dio Foru Aldundiako bozeramaile Miguelan Rodriguezek; erabilera librea da, eta ez da bakarrik larrialdi zerbitzuetarako. Hala, Rodriguezek azaltzen duen moduan, "hirigintza planak egiteko ere balio du, adibidez, lursaila handitu behar bada; edo, baserritar batek turismo zerbitzua eskaini nahi badu, baimena eman dezake bere baseria -jatetxea, landetxea, e.a.- aplikazioan agertzeko, bere telefonoarekin eta norbere datuekin".

Horrez gain, jakina, norbera orientatzeko eta baserri jakin bat topatzeko, bisita turistikoak antolatzeko... ere balio du webguneak.

Lehenengo, tokian tokiko lana egin zuten Foru Aldundiokoek: Aramaiora joan ziren eta baserriek baserri ibili ziren, han inor bizi zela egiaztatzen, etxekoei baserriaren izena eta beste nola deitzen duten eta beste datu batzuk galdezen eta gero aplikazioaren egileei baserria kokatzeko koordenadak jakinazten. Hortik garatu zuen Geotech-ek tresna berria.

### KONTROL-ZENTROAN ETA PDA-N

GPSa Google Earth baliabidean oinarrituta dago eta itxura berbera dauka. Funtsean, bidaia simulagailu bat da, eta ezkerraldean dagoen menu bat da bere berezitasuna. Hor, abiapuntuatzat aukera daiteke Txagorritxuko, Basurtuko edo Donostia ospitalea. Gero, Aramaioko auzo guztienderra eta, bat aukeratu ondoren, horko baserri guztienderra agertzen dira. Horrenbestez, ibilbidea markatzen digu aplikazioak.

Rodriguezek azaltzen digu larrialdi zerbitzuek zelan erabiliko duten tresna berria: "SOS Deien Kontrol-zentrokoak sartzen dira webgunean. Larrialdi-deia jasotzen dutenean, baserriaren izena bilatuko dute eta gida-tzen doanari esango diote zelan ailegatu. Era berean, gidariak bere nabigatzalean, PDAn edo Tomtom-ean ere izango du ibilbidea, horietara deskarga daitekeelako informazioa".

Beste alde on bat da baserriaren argazkia ere ematen duela baliabide horrek. Hala, gidariak egiaztatu ahal izango du begirada batez leku zuzenean dagoela.

### PANELA

Aramaioko alkateak beste neurri bat ere aurrera eraman gura du: auzo bakoitzeko sarreran panel bana ipini nahi du, baserriren gaineko informazioarekin. Oraingoz, baina, Aldundiak ez du asmo horren gainean ezer egin.

AZPIEGITURAK &gt; FERIXALEKUA-ALTAMIRAKO IGOGAILUAK

# Hasi dira igogailuaren pasabidea muntatzen

Pasabidea jarri artean semaforo baten bidez bideratuko da trafikoa; bi igogailuen lanak urri hasieran amaituta egongo dira

**JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE**  
 Martitzenean ekarri zuten Ferixalekua-Altamirako igogailuaren pasabidea, Jose Luis Iñarra kalea eta Gernika Oinezkoen Zumardia lotuko dituena. Pasabidea muntatu bitartean, Jose Luis Iñarra kalera bidean doazen ibilgailuek eta kale horretatik irteten dabiltsanek txandaka pasa beharko dute, eta horretarako semaforoa ipini dute. Hori bigarren igogailua da; izan ere, Otalora kalean beste bat jarriko dute.

**LANAK, BIDE ONETIK**  
 Bigarren igogailuaren lanak bide onetik doaz. Hiru elementu ditu igogailuak: egitura, pasabidea eta igogailuaren kutxa. Altzai-



Pasabidearen lehen zatia. IRATI GOITIA

ruzko pasabidea muntatzen dute-nean egitura jarriko dute. Hirigintza Sailak aditzerako eman due-nez, aste bi barru amaituta egongo da lan hori. Gero, igogailuaren kutxa ipiniko dute. Lanen arduradun nagusi den Construcciones Amenabar enpresak –Orona S. Koop enpresarekin batera UTEa sortu du– azken ukituak egiten ia uztail osoa emango dutela gaineratu du.

**UDATIK BUELTA AMAITUTA**  
 Lehen igogailuaren egitura altxatzeari abuztuan ekingo diote. Obren enpresa arduradunak jakinarazi duenez, lehen igogailu horren zimendatze lanak konplexuak izan dira, "sartzen erraza ez den lekua delako eta material bereziekin egin delako".

Hirigintza Sailak jakinarazi duenez, irail amaierarako edo urri hasierarako bi igogailuak amaituta egongo dira. Hala ere, oraindik ezin dute esan erabilgari noizko egongo diren. Obra garrantzitsua da Ferixalekua-Altamirako igogailuena. Aurrekontua 2.118.658 euro da.

EKONOMIA &gt; ENPLEGU SUSTAPENA

## 46.500 euro bideratuko die Udalak enplegua sustatzen duten Arrasateko enpresei

J.B. &gt; ARRASATE

Enpresei laguntza ematea lanpostu egonkorak sor dezaten. Hori da, finean, Udalak asteon aurkeztu duen enpresendako 2009ko dirulaguntza deialdiaren helburu nagusia. Udalak guztira 46.500 euro ditu erabilgarri zeregin horretarako eta horietatik, gehienez, 3.600 euro banatuko dira sortzen den lanpostu bakoitzeko.

Hori bai, Udalaren laguntza jasotzeko enpresak zenbait baldintza bete behar ditu. Hala, legez eratutako enpresa berrieik, 15 langile baino gutxia-

go dituztenek, lantokia Arrasaten dutenek eta gutxienez lanpostu egonkor bat bermatuko dutenek jaso ahalko dute dirulaguntza. Hala, Udalak ez ditu lagunduko taberna edo antzeko negozioak, bezero bakarra duten enpresak –jardueraren lehen 12 hiletatik aurrera fakturazioaren %75 bezero bakanretik dutenek– eta partaidetza publikoa duten enpresak.

**ABUZTUAREN 24A, AZKEN EGUNA**  
 Dirulaguntza eskakizuna BAZen egin behar da, abuztuaren 24a baino lehen.

&gt; HERRI GALDEKETA

### Biteri plazaren erabilera funtzionala areagotzeko proiektuaren bigarren bilera, uztailaren 7an

Udalak parte-hartze esperientzia abiarazi zuen herritarrekin, Biteri plazaren erabilera funtzionala areagotzeko helburuarekin. Lehen bilera joan den maiatzaren 26an egin zuten eta hainbat arrasatear batu ziren udaletxeo osoko bilkuren aretoan.

Orain, bada, bigarren bilera parte-hartzailea egiteko unea heldu da. Bigarren saio horretan ere interesa duen edozein herritarrek har dezake parte. Hitzordua datorren martitzenean da, uztailak 7, 19:00etan. Saio hori ere osoko bilkuren aretoan egingo da.

## Babes ofizialeko etxeetarako eskaintza bereziak



**i K E R**

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR



Kultura teknikari Karmelo Alberdi eta zinegotzi Oihana Aranburu, aurkezpenean.

MIRIAN BITERI

**KULTURA > UDAZABAL EGITARAU**

## Uda sasoirako kultura eskaintza zabala prestatu du Udalak

UdaZabal egitarauak musika, antzerkia, dantza, zirkua eta zinema batzen ditu datozen asteotarako

**MIRIAN BITERI > ARRASATE**  
Arrasateko Udalak UdaZabal egitaraua aurkeztu zuen eguztenean. Bihar, zapatua, emango dioite hasiera horri, Eivissako (Ibiza) Brisa de Portmany eta Arrasateko Lore Gazteak taldearen dantza ikuskizunarekin.

Kultura zinegotzi Oihana Aranburuk eta Kultura teknikari Karmelo Alberdik aurkeztu zuten egitaraua. Aranburuk azaldu zuen eskaintza zabala antolatzenten saiatu direla, bai taldeen jatorriari dagokionez eta baita modalitateari dagokionez ere.

Horrekin batera, gogorarazi zuen ikuskizun guztiak doakoak eta, hasiera baten, aire librean izango direla.

### DANTZA

Alberdik, bestalde, eskaintzaren berri eman zuen. Biharko ikuskizunaren ondotik, uztailaren 10ean beste dantza emanaldi bat iragarri zuen: Kukai taldearen *Soka*, hain zuzen. Alberdiren esanetan, "hasierako bi ikuskizun horiekin tradizioa eta modernitatea uztartu gura izan ditugu". Hirugarren dantza emanaldi bat ere egongo da: uztailaren 21ean, Sri Lankako Sama balletak eta Hego Afrikako Gauteng-eko probintziako taldeak egingo dutena.

### EUSKARAZKO HIRU FILM

Zinemari dagokionez, urtero moduan, uztailletik irailaren erdialdera Monterronen film emanaldiak izango direla esan zuen. Tartean, euskarazko hiru izango dira: *Sukalde kontuak*, *Aukera gazteak* eta *Munduaren bira, doan*. Zirku eta kale-animazioaren harira, hiru ikuskizun egongo dira, hirurak Herriko Plazan: uztailean, Ganso & Ciaren *Renato*; eta irailean, Xabi Larrearen *Filamento farolaria* eta Trio Zindareren *La Vuelta*. Azkenik, musika kontzertu bi izango dira: Inglaterrako Graffiti Classics eta Balkan Beat Box taldeena.

UdaZabal egitarauak irailaren 12ra arte iraungo du. Udalak 70.000 euro inguru bideratuko ditu horretarako.

## UdaZabal, egunez egun

### Uztailak 4, zapatua

22:30 Brisa de Portmany eta Lore Gazteak dantza taldeak, Monterron parkean.

### Uztailak 10, egubakoitza

22:00 Kukai dantza taldearen *Soka* kaleko ikuskizuna, Herriko Plazan.

### Uztailak 17, egubakoitza

22:30 Inglaterrako Graffiti Classics taldearen kontzertua, Monterron parkean.

### Uztailak 21, martitzena

22:30 Sri Lankako Sama balleta eta Hego Afrikako Gauteng-eko probintziako taldea, Monterron parkean.

### Uztailak 24, egubakoitza

20:00 Renato kale antzerkia, Herriko Plazan.

### Irailak 5, zapatua

19:30 Xabi Larrearen eskutik, *Filamento farolaria* zirkua, Herriko Plazan.

### Irailak 12, zapatua

19:30 Trio Zindare taldearen *La Vuelta* zirkua, Herriko Plazan.

ITURRIA: Arrasateko Udalak.

## UZTAILEAN PREZIO PAREGABEAK!

Zure bidaiaren kostuaren %10era arteko txartel oparia emango dizugu urtean zehar erabiltzeko.

### MAIAR ERRIBERA 2x1

690 euro.

Riu Lupita hotela.  
5 izar. 7 gau.



### SALOU

Mantenu osoa.

### 3 IZARRETAKO HOTELA

38 euro egunean. Umea doan.


### 4 IZARRETAKO HOTELA

52,50 euro egunean. Umea doan.



### EZTEI-BIDAIAK

%12ra arteko  
deskontuak.



### AUTOKARABANA

- Bizikleta-eramatekoa
- Eski-eramatekoa
- 160 € egunean



**Arrasate Bidaiaik**

CIE 2214

BIDAIA - AGENTZIA ELKARTUA



### ARRASATE BIDAIAK

Kontzeziño kalea 12 – ARRASATE

Tel.: 943 71 25 30 / Faxa.: 943 79 74 45

E-posta.: d4051@marsans.es

Oharrak: tasak eta erregaiak ez daude barruan.

Arrasateko Udal Gobernu Taldea

# "Udalak bultzatutako etxebizitzak guztiak errentan emateko izango dira"

**UBANE MADERA > ARRASATE**  
**Kostata, baina iritsi gara 2007-2011ko agintaldiaren erdira. Arrasaten denetarik gertatu da bi urteotan: Isaías Carrasco zinegotzi ohiaren hilketa, Ino Galparsoro alkatea kartzelaratzea, EB-Zutik eta Eusko Abertzale Ekintzaren (EAE) arteko Udal Gobernuaren apurketa, EAE legez kanporatzea, presoen argazkiak erretiratzea... eta krisia. Balorazioak eta errepasoak landu ditugu Udal Gobernuarekin zein oposizioarekin. Udal Gobernuak lanean segituko duela azpimarratu du.**

**Agintaldiaren erdira iritsita, zein balorazio egiten duzue?**

Gazi-gozoa, halabeharrez, nekeza eta intentsua izan baita eginko bidea. Aurreko agintaldian ezker abertzalearen presentzari ezak eta Udalean aurkitutako egoerak lana zaildu zuen, ondoren mozio *etikoa*, ilegalizazioa, alkatea kartzelaratzea... hainbat dira bizi izandako uneak. Bainaz zailtasunen gainetik, bideak merezi duela argi dugu eta herri honen alde lanean jarraitzen borondatze eta gogoz jarraitzen dugu.

**Orain urtebetetik, alkatea kartzelan zen; ahaztuta duzue hori ala oraindik gertu-gertu?**

Egia esan, ez digute ahazten uzten, estrategia berarekin jarraitzen baitute. Gainera, Arrasate jo *puntuan* daukate, etengabe aitzakia bila ari dira ezker aber-

tzalea Udal Gobernutik kanporatzeko, Estatu interesak herritarren beharren gainetik ipiniz, eta edozertaz baliatzen dira aurrez aipatutako helburua lortzeko. Bainaz gaituzte apartatuko gure lanetik; arrasatearrek gugan ipini duten konfiantzak gure ahalegin guztsia merezi du.

**Alkatearen kontrako prozesua ez da amaitu...**

Horrek hor jarraitzen du, Damoklesen ezpata batek bezala; beste herri batzuetan ere ikusiten ari gara estrategia berbera darabiltela. Nahiz eta Arrasaten bereziki fijazio hori agerikoagoa den, etengabe gure lana baldintzatu eta oztopatu nahi dute.

**Eragin du horrek guztiak Udal Gobernuaren jardunean?**

Bai, noski; baina hainbat traiba bidean izan arren, gu gogotsu gabiltza herritarrekin har tutako konpromisoak betetzeko lanean. Badakigu denbora eta dedikazio handia eskatzen due la, baina ziur gaude ahalegin horiek herriari onurak ekarriko dizkiotela.

**Talde Mistoaren sorrera dabil orain zalantzan ipintzen Estatuko abokatua; zela dago hori?**

Estatuko abokatuak eskatutako suspentsioa ez du onartu Justizia Auzitegi Gorenak; beraz, oraingoz, taldearen izaera inda-


rrean dago, nahiz eta ez jakin zer erabakiko duten. Hala ere, garbi utzi nahi dugu indarrean dagoen legediaren arabera gu ez gaituztela udal taldetik bota; ez eta guk berau utzi ere. Eta, beraz, eskubide osoa dugu talde izaera izaten jarraitzeko.

**Jaurlaritza berria hasi da har tenen orain arte hartu ez diren neurri politikoak; Arrasaten ere aplikatu dituzte. Zela ikus ten duzue ildo aldaketa hori?**

Neurri horiek aurretik aipatutako eta geroz eta gogorragoa den Spainiako Estatuaren estrategia ukatzailearen barruan kokatzen dira; ezberdintasun bakarra da lehen EAEko gobernu aliatu bezala zeukatela eta orain, berriz, EAEko gobernu euren dela.

**Politika arazo gutxi ez eta, gainera, orain krisia...**

Krisia ez da kasualitatez eta egun batetik bestera iritsi. Epe motzera jokatzea, neurrigabeko hazkunde eta kontsumoa, kontrol publiko bako operazio finantzario iruzurti erraldoiak... azken batean, hazkunde neurrigabean inspiratutako sistemak goia jo du. Sistema ekonomiko kapitalistak egoera kritikora ekarri gaitu. Egoera horrek luzera joko du eta sistema ekonomikoa bera jarren du zalantzan. Datozen urteei begira, inkognita asko deszi-



Udal Gobernu osatzen duten zinegotziak, behean, ezkerretoik: Patxi Arburua, Ino Galparsoro eta

fratu beharrean izango gara, sis temari berari buruzkoak barne. Beraz, erantzukizunetan eta zuhur tiaz jokatu beharra dago.

**Asko igarri du Udalak?**

Ba, bai; Erkidegoko zergen sistemaren banaketaren ondorioz, Arrasateko Udalak 2008an 1.700.000 euro bueltatu behar ditu eta 2009an, gaur egungo informazioaren arabera, 2.800.000 euro inguru gutxiago izango dugula jakinarazi digute.

Bestalde, udal diru sarrerek ere beheranzko joera izango dute, zerga bilketan sor daitezkeen arazoak ugarituz joango dira eta

beharren aurreikuspena egitea inoiz baino zailagoa izango da.

Azkenik, langabezia tasa ia %13ra igo da, orain dela urtebetetan %7 azpitik zegoenean, eta, egoera berri honek sortzen dituen gabeziei aurre egiteko, noski, Udalaren esku dauden baliabideak egokitzen behartzen gaitu.

**Zela daude Arrasateko Udaleko diru kontuak?**

Momentu honetan ez horren gaizki, baina etorkizun ilunarekin: lehen aipatutako diru sarren murrizketak (eta gastuaren gehikuntzak) arazoak sorrarazi dizkigu nahi ditugun hainbat egi-

GAINERAKO ALDERDIEN BALORAZIOAK

## Aritz Arrieta

PSE-EE

**"Joan den gobernuak utzitako ondarea kudeatu besterik ez dute egin"**

Arrasateko Udaleko Alderdi Sozialistaren balorazioa ezin da txarragoa izan. Gobernuan dauden zinegotziek ez dute berezko ekimenik eduki, egin duten guztsia joan den gobernuak utzitako ondarea kudeatzea izan da, eta, gainera, gaizki dabilta hori egiten. Horretaz gainera, Madrilgo Gobernuak ordaintzen ditu bere osotasunean gaur egun Arrasaten martxan dauden proiektu garrantzisuenak: Aldai parkeko lanak, Santa Marinako lanak... Noizko arrasatearentzako udal gobernuaren ekimenak? Noizko Arrasate garbi edukitzeko ordenantza? Noizko Eusko Jaurlaritzarekin elkarriketak tranbiaren ibilbidearen trazatua hitzartzeko? Noizko Batzar Nagusiekiko elkarlana? Noizko Eudelek markatzen dituen irizpideen aplikazioa? Noizko beste instituzioekin elkarlana? Noizko ETaren biolentzia gaitzesten duen Udal Gobernuak? Eta abar.

## Luis Mari Apraizt

EAJ

**"Agintaldiak puntu argi eta ilunak ditu; orokorrean, ez da guztiz ona izan"**

"Krisiak ez du ekarri Gobernuaren jarreran aldaketaik; aurreko agintaldietako soberakinak izanda, ez dira sentibera krisiarekiko. Sentsibilitaterik ezak ekarri du bereziki giza baliabide eta gastu korrontearren kontrolaren kudeaketa ez egokitzea egoerara. EAJ ahalegindu da indar politiko guztiekin lan eraikitzailea egiten, kudeaketa efizientearen alde, eztabaida antzuak saihestuz. Adostasunerako ahalegina nahiko zabala izan da, gai politikoetan izan ezik. Beste puntu ahal bat da normalizazio politikoan aurrerapen txikia. Diskurso bakar eta aldaketa bakoa izan dute. Ezin ahaztu zinegotzi sozialista ohiaren hilketa zorigaitzokoa, eta ondorioak: agintaldiko punturik negatiboak. Arlo positiboan daude egin izana babes ofizialeko etxebizitzak, eta Iturbide eta Abaroako obrak. Faltan igarri ditugu kale eta fatxaden garbiketa, aparkalekuen kudeaketa eskasa eta mugikortasuneko politika".

## Ander Rodriguez

ALTERNATIBA-ZUTIK

**"Krisi ekonomikoaren sindromepean dago jarduten Udal Gobernuak"**

"Egiaztatu duguna da gobernu akordioa apurtu zenetik jarrera kontserbadoreagoetara jotzeko joera handitu dela, eta aliantzen politikan aldaketa gertatu dela, azken hilabeteotan hartutako erabakietan EAJ euskarri bilakatu delako. Onartutako azkeneko aurrekontuek agerian utzi dute gastu eta inbertsioetarako lehentasunak zehazteko orduan Udal Gobernuarekin ditugun desberdintasunak. Urtebetetan Iturbideko langileen baldintzen hobetza gauzatzeko dago, Udal Gobernuaren konpromisoa erretorika soil moduan geratuta. Egitamu Orokorra, hiri eredu berrazterezko prozesua, hasteke dago. Baita ere erabakietan herritarren parte-hartze zuzena bideratzeko mekanismoak. Krisi ekonomikoaren sindromepean daude jarduten, baina ezkerreko politiken koiunturan gestio ereduaren aldaketa aldeko apustua egitearen nabarmendu beharko lirateke".



Juan Mari Sanpedro; goian, ezkerretik hasita, Izadi Mondragon, Oihana Aranburu, Arkaitz Biain eta Yolanda Perez de Arenatza. GOIENKARIA

tasmo burutzeko. Egoera berrieta egokitzen ikasi beharko dugu denok.

#### Beste zerbitzu batzuk, berriz, indartu egin dituzue, ezta?

Esan dezakegu konpromisoa hartu dugula, bai gizarte zerbitzuetan eta baita enplegua sustatzeko planetan ere, gure eskutan dauden baliabideak ahal den neurrian horra bideratzeko.

#### Hori kontuan hartuta, badago atzeratu edo bidean utzi behar izan duzuen proiekturen bat?

Bidean utzi baino gehiago, lehentasunen arabera antolatu-

tako plangintza zehazteria era man gaitu.

#### Zela aurreikusten dituzue agintaldia bukatzeko falta diren bi urteak?

Gogorrak; bai egoera ekonomikoak markatuta eta baita ere gaur egun Udal honetan eta Euskal Herrian, oro har, bizi dugun gure kontrako estrategia bortitzaren ondorioz; baina egoera zailetatik ateratzen dira, askotan, konponbiderako aukerak ere.

Zeintzuk izango dira lehentasunak? [adibidez, tranbia, Arrasateko urbanoaren hiru-

garren linea, herritarrendako zinegotzia bideratze...]?

Arrasaten benetako mugikortasun arazoan sortzen du bailara mailako zirkulazioa (%80 inguru), eta autobideak, aurreikusten genuen moduan, ez dio hori irtenbiderik ematen. Ondorioz, tranbia edo Debagoinaren beharrei erantzuten dion garraio publikoa defendatuko dugu Jaurlaritzaren aurrean, Bizkaia-rekin loturak ahaztu gabe.

Herri barruko mugikortasun arazoari aurre egin nahian, urbanoaren azterketa egiten gabiltza, datorren urtean abiarazteko.

## POLITIKA "Herri honen alde lanean jarraitzeko borondate eta gogoz jarraitzen dugu"

## EKONOMIA "Udalak 2008an 1.700.000 euro bueltatu behar ditu; 2009an 2.800.000 euro gutxiago izango ditugu"

## LANGABEZIA "Langabezia tasa ia %13ra igo da, eta orain urtebete %7 azpitik zegoen"

## TRANBIA "Tranbia edo Debagoinaren beharrei erantzuten dien garraio publikoa defendatuko dugu Jaurlaritzan"

## URBANOA "Herri autobusaren azterketa egiten gabiltza, datorren urtean abiarazteko"

emateko izango dira. Udal honetan gehiengoak onartu du hemendik aurrera Udalak bultzatutako etxebizitza guziak errentan emateko izango direla.

Eta zela daude Arrasateko obra nagusiak? Gelmako etxebizitzak, La Caixakoak, igogailu publikoak, Aldaiko parke berria...

Igogailu publikoetan dagokienez, Bizkaia etorbideko martxan dago, nahiz eta hobekuntza batzuk egin beharrean egon oraindik.

Ferixalekutik Altamirarako igogailuak eraikitzen dabilta eta urri alderako bukatuta egon behar dute.

Aldaiko parke berriko obra-dagokionez, hora ere martxan dago eta negua iritsi aurretekibetan bukatu eta erabili ahal izateko moduan izango dugu.

Eta etxeee dagokienez, La Cai xako 148 etxebizitzen giltzak banatuta daude. Gelmako eta Uribarriko babes ofizialeko etxebizitzen (131+44) giltzak ere banatuta daude. Eta Gelmako 337 etxebizitza libreetatik, 143 lehen okupazio baimenarekin daude.

Baina ezin dugu salatu gabe utzi Gelmako urbanizazioaren inguruan aurreko agintaldian egindako gehiegikeria, komponbide errazik ez duena; laburbilduz hauxe da, zenbakitan: aurreikusitako baino babes ofizialeko 81 etxebizitza gutxiago eta 160 libre gehiago egin dituzte. Eta gainera, lehen, etxe txikien orubea barruan sartzen zen (bederatzi gordeta), modu horretan hiltzeko zaharreko biribilgunea eta Maalakoaren artean lotura egokia lortzen zuen.

#### Besterik gura baduzue gaineratu...

Ba, beti bezala, lanean jarraituko dugula, Arrasateren eta Euskal Herriaren alde lanean; hori da herri honek eman digun babesari erantzuteko daukagun eta dakigun modu bakarra; Udaletik, herri nahiz nazio mailan, eskuan tean ditugun arazoei irtenbidea bilatzen jarraitzeko asmo sendoa dugula, arrasatearrei benetan eskerrak eman beharrean gaudelako eskaini diguten gertutasunagatik.

## Pello Urizar

EA

### "Gobernuak borondatea du erabakiak hartu aurretik konsultatzeko"

"Agintaldia hasi zenetik egoera politiko orokorra Euskal Herrian zaildu egin da eta horrek udal egoera ere zaildu egiten du. Herriko arazoen konponketarako txarra izaten da. Hortik aurrera, Gobernuak borondatea du gauzak tratatzeko eta erabakiak hartu aurretik konsultatzeko. Joera da akordioa lortzeko intentzioa. Adibidea: aurrekontuak. Aurrez zuten euren ideia, baina guk aurkeztutako hausnarketa eta proposamenen arabera aldatu zituzten.

Hala ere, ikusten dut konplikazio soziala ekar lezaketen gaietan erabakiak hartza kostatu egiten zaiela. Ortu ekologikoak, adibidez. Proiekta sortu zen ortu alegak kentzeko asmoarekin, eta ez da hori gauzatu. Eta zirkulazio eta aparkaleku inguruko arazoa ere hor dago. Hala ere, aurrekontuak negoziaztean konpromisoa hartu zuten 2010erako urbanoaren aldaketa aztertzean, arazoari konponbidea emateko".

## Itziar Lamarain

PP

### "Flotatzen baleude bezala daude, erabakiak hartzeko indar barik"

"Lerro gutxitan bi urteotako jarduna baloratzea eskatu didate. Orduko EAE eta EB-Zutik-en artean gobernu batzarra eratzea asko kosta zen eta Udalean 2007a galduzako urtea izan zen.

2008ko martxoko gertakariekin, Isaias Carrascoren hilketak izugarriak, konponezina izateaz gainera, udal jardunean ere izan zuten eragina. Apurtu egin zen EAE-EB-Zutik hitzarmena. EAE legez kanpo utzi zuten eta ondorioz, udal geldialdia agerikoa izan zen. Eta 2008a ere joan zen. Egin duten edo egiten dabiltsan apurra da aurreko agintaldiko proiektuak bukatu, berez, atzerapen handia zeramaten proiektuak bukatu. Eta ez askoz gehiago. Eta 2009ko uztailean gaude.

Talde Mistoko kideen gobernuak dugu; flotatzen baleude bezala daude, arrasatearrek merezi duten erabaki garantzi tsuak hartzeko indar edo autoritate barik. Luza nintek eta puntz puntu puntualizatu, baina hemen ez daukat espaziorik".

## Joxe Etxeberria

ARALAR

### "Ez dugu Udalak Iturbidekoen erabili duen negoziazio eredu hori gura"

"Iturbide egoitzan Untzako langileekiko bideratu den negoziazio ereduak arduratzentz gaitu bereziki, besteak beste. Negoziazio guztiak bi alde egoten dira gutxienez, eskaera-eskaintza jokoan lotuta. Negoziazio izeneko horrek makina bat hilabete-tako iraupena izan du: eskaera-eskaintza-greba-Udalak martxoan egindako eskaintza (besteak beste, langileei soldata %30,65 igo)-hartsu-emakan eten-greba amaitu-langileek Udalaren eskaintza onartu-Udalaren azken erantzuna: 'Eskaintza langileek ez zutela onartu posible izan zen bitartean' (iraungitze data?) 'gainera, erantzun desproporzionatua eman zutela mugagabeko grebaren bitartez'. Horra hor gertatuko. Ez dugu negoziazio eredu hori guretako gura; hortaz, ez diezaiogun inori halakorik inposatu. Bidea egiteko harriak jartzen hasi beharra dago, onerako edo txarrerako Iturbide egoitza oraindik Udalaren esku dago-eta".

## GAINERAKO ALDERDIEN BALORAZIOAK

SASKIBALOIA &gt; OINTXE!

# "Saio erakargarriak egin behar ditugu derrigor"

Saskibaloiko jokalari gazteek gaur egingo dute Ointxe!-k antolatutako azken teknifikazio saioa; Gorka Zurututzaren aginduetara ibili dira ikasten



Ointxe!-ko teknifikazio saioan parte hartzen dabiltsan gazteak, eguzteneko saioan.

XABIER URTZELAI

**XABIER URTZELAI > ARRASATE**  
Uztaileko lehenengo astea, oporetan dauden gazte asko eta asko igerileku edota hondartzan. Argazkian azaltzen diren gaztek, berriz, entrenatzent eman dute astea, astelehenetik egubakoi-zeria, Gorka Zurututzaren eta hainbat laguntzaileren esanetara: "Egiten duen eguraldiarekin gazteak gustura etortzeko derri-gorrezko da teknifikazio saio erakargarriak antolatzea, jola-

sekin, txapelketekin eta bestelakoekin", adierazi du Zurututzak. Hau da, entrenatu eta norberaren teknika landu bai, baina udan gaudela kontuan hartuta: "Gainera, bi ordu eta erdiko saioak dira, eta jende gaztea da".

Teknikazio saio horietan hainbat laguntzaile izan ditu Gorka Zurututzak, klubak berak abian jarri zituen entrenazaileak formatzeko kurtsoetan parte hartu zuten lagunak, hain zuzen.

Orain, eurei dagokie kurtso horietan ikasitakoa praktikan jartzea, eta horretarako erabili dute, baita ere, aste barruan egin dituzten teknifikazio saioak.

## HARROBIA

Denboraldian zehar lehenengo taldearen gorabehererek izaten dute oihartzun handien, baina ekimen horiek dira etorkizunean saskibaloi taldean fruitua emango dutenak.



GOIENKARIA

## Llodio eta Murua, Lakuan nagusi

Arrasateko pilotari gazte Ander Llodio eta Ander Muruak -erretiratuaren ezkerrean- txapela jantzi eta garaikurra irabazi zuten joan den astean, Gasteizen jokatutako Lakuako pilotxa txapelketako finalean. Txapelketa luzearen ondoren finalera iritsi, eta hor, Arrasateko mutilek 16-9 irabazi zieten Errioxako kontrarioei.



X.U.

## San Juan de Dios, txapeldun

Joan den egubakoitzean jokatu zuten Arrasateko San Juan de Dios ospitalekoek areto futboleko osasun mentaleko XII. txapelketako finala, eta, durangarrak faborito baziren ere, Arrasatekoek ezustea eman zuten (2-4). Zaldibarren jokatu zuten finala, ikusle askoren aurrean, eta Arrasatekoak txapeldunaren garaikurrarekin itzuli ziren.



**OÑATI GARAJEA**

PEUGEOT ETXEKO TAILER OFIZIALA

*Salmenta, mekanika, txapa eta pintura*

Goribar auzoa 9, OÑATI  
Tel.: 943 78 13 50 • Faxa: 943 78 33 69  
[garageonati@euskalnet.net](mailto:garageonati@euskalnet.net)



**Zenbaki  
Ahokulariak**



### • Juridikoa:

- Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak, ...
- Penala: Hutsegite epaiketak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
- Administratiboa: Zigortzaile txostenak, Errekursoak, ...
- Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak, ...

- **Laborala:** Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioak, ...
- **Fiskala:** Etxebizitzen salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak, ...
- **Kontabilitatea:** Pertsona fisiko eta juridikoak, ...

Basabe poligonoa F-O-10, 1. ARETXABAleta. Tel.: 943 71 21 12 • [www.zenbaki.es](http://www.zenbaki.es)

**UGARAN**  
Jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

**ad Ibabe**  
**IBABE GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**  
Gesalibar auzoa z/g.  
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

**Monte  
taberna**

Maalako errabala 2  
Tel.: 943 79 20 56

**Lore**

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10  
Tel.: 943 79 52 50

JAIAK > SAN MARTZIALAK

# Ohiko meza, herri kirolak eta aurreskua etzi San Martzialen

14-16 urte artekoen prebentzioa bultzatzeko, haiendako jolas eta herri kirolak egongo dira

MONIKA BELASTEGI > BERGARA  
San Martzialgo erromeria ospatuko da domekan, eta guztia prest dago ordurako.

Udalak antolatutako egitarauari dagokionez, domekara itxaron barik, bihar, zapatua, hasiko dira ekitaldiak. Besteak beste, erraldoiei izena jartzeo egindako lehiaketako irabazleek saria jasoko dute, 19:45ean, San Martin plazan; Bergarako Orkestra Sinfonikoak emanaldia egingo du, 20:00etan, San Pedro parrokiian; eta 20:30ean erromeria egingo da Munibe plazan.

Domekako erromeriari dago-kionez, 10:00etan abiatuko da gurdia San Martzialerantz, ohi-turari jarraituz, eta 11:00etan meza nagusia izango da. 12:00etan dantza emanaldia egongo da eta, gero, ohiko aurreskua egingo dute Udal Gobernuko hainbat kidek. Bertsolariak ere izango dira. Kintinaren kasuan, Beti Busti kirol elkartea kudeatuko du eta txosna, Antxintxika triatltoi taldeak.

## PREBENTZIOA HELBURU

Bazkaldu eta gero, ume zein gaztetxoendako ekintzak egongo dira, 16:00etan, zelaian.

15 urterako artekoendako egongo dira malabare tailerra eta pertsonaz osatutako *futbolina*. Eta 15 eta 16 urtekoendako, herri kiro-

lak eta pertsonaz osatutako *futbolina*. Udalaren nahia izan da bazkalondotik nagusien jokoak eta dantzaldia hasten direnera arte zereginha ematea gazteei, modu horretan prebentzioa bultzatzu. Ekintzotan parte hartzea izenematea zelaian egingo da, 15:00etan.

Nagusiendako herri kirolak 18:00etan hasiko dira, eta baita dantzaldia ere. Herri kiroletako izenematea 17:00etan egingo da.



Duela hiru urte berreskuratutako tradizioari jarraituz, Udaleko agintariekin egingo dute aurreskua.

GOIENKARIA

## MAHAI ETA AULKIAK

Udaletik gogora ekarri dute erromeria eguneko mahaiak eta aulkia banatuko dituztela bihar, zapatua, 17:00-20:00 ordutegian, San Martzialgo kantina ondoan. Domekan, ospakizuna bukatu eta gero, 19:00-21:30 artean entregatu beharko dira hartutako lekuak. Materiala entregatzean, zigilua emango diote hartzaleari fidan-tza errekuperatzeko.

Argazkiak  
gora eta  
behera

E sperotakoa ikusten ari gara. Eta hasi besterik ez gara egin. Egunero berri txar bat entzun beharrean izango gara. Telebistan, eguraldiari buruzko emankizuna albiste bihurtu da. Borraska atmosferikoarekin ohituak geunden eta orain borrasaka indartsuagoa agertu da: politikoa eta geografikoa. Euskal Herria bere mugak nondik nora diren ez dakigula agertzen zaigu!

Eta liburu artean murgildurik, A eredu indartu behar dela dio Kontseilariak porrota demasa izan arren, -euskal-

"Sandinistentzat  
berebiziko ohorea  
izan da iraultzaileen  
argazkiak herriaren  
aurrean azaltzea"

ONDAREA > INDUSKETAK

# Hilaren 15ean hasiko da Seminarioko elizako indusketa

Indusketak iraun bitartean bisita gidatuak egingo dira "lurrazpiko altxorrak" ezagutzera emateko

M.B. > BERGARA  
Udalak Zehazten enpresari esleitu dizkio Seminarioko elizako indusketa lanak. 108.397,23 euro-

tan egin da esleipena eta sei hilabeteko epea izango du bukatzeko.

Mikel Elkoroberezibar Kultura Ondare zinegotziaren esane-

tan, uztailaren 15ean hasiko dira eta garrantzi handia izango dute Bergarako historia hobeto ezagutzeko. Izan ere, eliza eraiki aurrelik baziren zoru horretan beste eraikin batzuk eta litekeena da orduko aztarnak ere aurkitzea. Horregatik, egin behar diren lanek "seriotasun osoa eskatzen dute eta Zehazten enpresak aurkeztutako lantaldeak hori beramtuta lagatzen du".

## HERRIAN ZABALDU

Lanok herritarren artean eman nahi ditu ezagutzera Udalak eta, horretarako, irauten duten bitartean, bisita gidatuak egingo dituzte. Elkoroberezibarrek azaldu dueitez: "Uste dugu garrantzitsua dela


bergararrok gure historia bertatik bertara ezagutu ahal izatea. Horregatik, indusketekin batera, garrantzia eman diogu haien ezagutta eta zabalkundeari, lur azpiko altxorrak ezagutzera emateari".

Hori horrela, lanak gertutik ikusteko bisita gidatuak egingo dira eta, egunero, arkeologoek lanean diharduten bitartean, ber taratzeko aukera izango da. Herriko ikastetxeek ere nahi beste bisita egiteko aukera izango dute. Horrez gain, esku-orriak ere egingo dituzte eta baita lanen prozesua jasoko duen DVDA ere.

Era berean, indusketan agertzen den materialarekin erakusketak bat ere egingo dute Seminarioko elizan bertan.

duntze alorrean oztoporik nabariena eta pozoiduna suertatu da-. Osakidetza euskarra soilik plus modura erabili behar dela dio, mikrobio patogenoak nola garatzen diren jakitea dela balio duena. Eta Ertzaintza; euskara jakitea baino beste zerbaiz zintzo betetza da premiazkoena.

Azken egunotan kaleetan argazkiak kentzen edo apurtzen batzuk, eta berriro ipintzen besteak. Nikaraguaren sandinistak garaile atera zirenean, buruzagi batek zera zuen: "herriaren askapenean espetxeratuak izan direnak herritarren bistatik ezkutatu eta ahazten diren unean garaipenak ihes egin du". Eurentzat berebiziko ohorea izan da iraultzaileen argazkiak herritarren aurrean azaltzea.



**OGIZUN**  
koop. elk.  
okindegia

Ibargarai 44-46 BERGARA  
943 76 45 53

Ibargarai 17 behea BERGARA  
943 76 21 37



Obradorea. Zubillaga 10 OÑATI  
943 78 24 13

Argazkia Kiñu

UDALAK &gt; OHIKO OSOKO BILKURA

# Puellesen hilketa salatzeko mozioa airean geratu zen

Bozketan berdinketa egon zen eta Agurne Barruso alkateak ez zuen kalitatezko btoa erabili nahi izan

**EDU MENDIBIL** > BERGARA  
Uste baino azkarrago joan zen asteleheneko ohiko osoko bilkura. Gai zerrendako puntu guztiak aho batez onartu zituzten, bat izan ezik: PSE-EEko bi zinegotziak abstentu egin ziren EAeko trenbide sare berriaren plataformaren aurrean ekainaren 12an alkateak emandako dekretua baiezatzerakoan.

Eduardo Antonio Puelles poliziaren hilketa salatzeko PSE-EEk mozioa eraman zuen, baina azkenean EAJrekin eta EArekin adostutako eraman zen botaziora. EAJk, PSE-EEk eta EAk baiezko btoa eman zuten (sei bota guztiar, Juanjo Arrieta eta Rafa Amorrain EAJko zinegotziak ez

zirelako egon); Aralarko ordezkarriak abstentu egin ziren eta ezker abertzaleko sei zinegotziak kontra azaldu ziren. Boto berdinaren aurrean, Agurne Barruso alkateak ez zuen kalitatezko btoa erabili nahi izan: "Nahiz eta horretarako eskubidea izan, ez noa kalitatezko btoa ematera; beraz, mozioa ez da onartzen, baina ezta atzera botatzen ere". Iñigo Iñurategi Aralarko zinegotziak honela azaldu zuen bere abstentzia: "Gure alderdia beti hilketen kontra azaldu da, baina testuak onartzen diren hainbat elementu ditu". Ez zuen zehaztu zeintzuk ziren elementu horiek.

## HIZKUNTZA ESKUBIDEAK

Azkenik, Agurne Barrusok esera bat egin zuen: "PSE-EEk behin baino gehiagotan salatu du gobernutik hizkuntza diskriminazioa bultzatzen dugula. Horren aurrean, osoko bilkurara aurkezten diren testu guztiak bi hizkuntzatan sartzea eskatzen dut, bestela ez ditut gai zerrendan sartuko". Bozketan, alderdi guztiak horren alde azaldu ziren.



Irudian, neguko beherapenetan egindako azoka txikia.

GOIENKARIA

MERKATARITZA &gt; BEDELKAR ELKARTEA

# Bedelkarkoek azoka txikia egingo dute aste bukaeran

Gaur eta bihar izango da eta 30 bat dendak hartuko dute parte, udako merkealdiekin

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Bedelkarko dendarieiek azoka txikia egingo dute gaur, egubakoitz, eta bihar, zapatua. Elkarteko 30 bat dendak hartuko dute parte ekimenean eta beherapenetako produktuak jarriko dituzte herritarren eskura.

Kalera aterako dituzte euren produktuak; hau da, dendak aurrean jarriko dituzte salgai, neguko beherapenetan egin zuten moduan. Hori horrela, egubakoitz arratsaldetik itxita egongo dira Barrenkale eta Bidekurutzeta, saltzaile zein erosleak eroosoago ibili ahal izateko.

## GIROA SUSPERTU

Kaleko giroa suspertzeko, berriz, egubakoitzean Oihularri Klown taldeak jardungo du 18:00etatik 20:00etara herriko kaleak alaitzen.

## oharrak

KINTADA

> **1967an jaiotakoek kinto-afaria egingo dute**

Irailaren 12an egingo dute. Izena emateko 20 euro aurreratu behar dira Euskadiko Kutxan: 3035 0009 19 0090084407.

JAIAK

> **San Kristobal jaiak ospatuko dituzte Aldai-Egia auzoan**

Egunetik domekara arte izango dira. Eguenean pinua jasoko dute 22:00etan eta gero saihestia, sagardoa eta txokolatea egongo da joaten direnendako. Hilaren 10ean, San Kristobal eguna, meza egingo da 12:00etan eta gero autoak bedeinkatuko dituzte. Hilaren 12an ere bedeinkatuko dituzte, 12:00etako mezaren ondoren.

KZGUNEA

> **Uztailaren ikastaro gehiago izango dira KZgunean**

Beste zortzi ikastaro egin ahal izango dira uztailaren KZgunean: Internet+e-administrazioa; Sinadura eletronikoa; Skype; Blogger; Google Maps eta Earth; Zuhaitz genealogikoa; Google tresnak; eta Sare sozialak. Uztailaren 6an hasiko da lehenengoa. Informazio gehiago eta izenematea: tutor.bergara@kzgunea.net eta 943 76 73 24.



# LARRAÑAGA MASTERREKA 10ean GAUDE

A U T O E S K O L A



**Masterreka 10 Tel.: 943 76 16 63 BERGARA**  
**Santa Ana 11 Tel.: 943 74 10 11 ELGOIBAR**

MUSIKA > BERGARAKO ORKESTRA SINFONIKOA

# Orkestra, gaur Antzuolan eta bihar San Pedro parrokian

Gaur, egubakoitza,  
Torresoroan joko du,  
22:00etan; eta bihar,  
San Pedron, 20:00etan

Erreperitorio klasikoa  
gertatu dute  
denboraldiko azken bi  
hitzorduetarako

EDU MENDIBIL > BERGARA  
Bergarako Orkestra Sinfonikoak  
hitzordu bikoitza izango du orain-  
go asteburuan. Gaur, egubakoitza,  
Antzuolan joko dute, Torre-  
soroan, 22:00etan. Eta bihar, zap-  
tua, emanaldia egingo dute San  
Pedro parrokian, 20:00etan.

Dagoeneko ohikoa bilakatu  
da San Pedro eta San Martzial  
jaietako kontzertua. Alfredo Gon-  
zalez Chirlaquek zuzenduta,  
honako hau izango da zapatuko  
emanaldiko programa: *Jupiter  
Hymn* (Holst); *Alceste* (Von



Orkestra Sinfonikoak 25 urte beteko ditu 2010-2011 ikasturtean. Gaur egun 55 lagun dira taldean.

GOIENKARIA

Gluck), *The Montagues and Capu-  
lets* (Prokofieff), *Cinema Paradi-  
so* (soinu banda, Ennio Morricone-  
nerena) eta, azkenik, *Bost Ierro*,

Gonzalez Chirlaquek Musika  
Eskolaren 25. urteurrenerako  
idatzitakoa. Antzuolan, bezpe-  
ran, pieza berberak joko dituzte.

Zapatukoa denboraldiko  
azken kontzertua izango da. Ban-  
dak, osteria, Antzuolako eta San-  
ta Marinako jaietan joko du.

MUSIKA > 'OSTIRAL MUSIKALAK'

## Blues emanaldia Espoloian gaur

Valladolideko Bluedays taldeak irekiko du  
aurtengo 'Ostiral musikalak' zikloa

E.M. > BERGARA  
*Ostiral musikalak* programari  
hasiera emanez, gaur, egubakoitza,  
Valladolideko Bluedays taldearen emanaldia izango da Espoloiko kioskoan, 22:30ean. T-Bone  
Walker, Albert King, Johnny  
Copeland, Albert Collins, B.B.  
King eta Steve Ray Vaughan *blues-*  
*man* handien eraginak aitortzen

ditu taldeak. Zuzeneko emanaldi  
bikainak emateagatik ospea dau-  
kate eta hain zuzen, euren bigarren  
diskoa, *Una noche Llantén* (Gaztelupeko Hotsak), zuzenean  
grabatutakoa da. Carlos Sanz  
(gitarra eta ahotsa), Jorge Otero  
*Jafó* (baxua), Angel Hidalgo (gita-  
rra eta koroak) eta Julio García  
(bateria) dira Bluedays.



Bluedays taldearen zuzeneko goraipatu dute musika adituek.

GOIENKARIA

**trinmer**  
telecomunicaciones

**tdt** televisión  
digital terrestre

**Bergaran ere badago  
Lurreko Telebista Digital!**

Kontsulta iezaguzu eta soluzio onena eskainiko dizugu,  
ez itxaron gehiago eta alda zaitez TB digitalera.

**TRINMER 20 urte antenetan**  
LTDerako aurrekontuak. Protokoloa eta Boletina barne

TRINMER Telekomunikazioen instalatzaile ofiziala 1305  
Egogain Kalea 2-Bac 20600 EIBAR  
Tel.: 943 12 73 50 - 943 10 89 43 | Faxa: 943 20 73 60  
antenas@trinmer.com | www.trinmer.com

**ANTIA**

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09

**GURIA**  
*Taberna*

Bidekurutzeta 5  
BERGARA  
943 76 20 34

**CAMACHO**  
Drogeria  
Usaindegia

Bidekurutzeta 24  
BERGARA  
943 76 13 35

> IRTEERAK  
**Hainbat irteera  
uztailean Udalaren  
eskutik**

Kultura zerbitzuak eta gazte-  
txeak uztailaren 11n Lekeitio-  
ko nazioarteko kale-antzerki  
jaialdira joateko irteera anto-  
latu dute. 18 urtetik gorako-  
eizuzendutakoa da eta zozke-  
ta bidez 50 plaza emango ditu-  
te doan. Izenematea uztai-  
laren 5a baino lehen egin dai-  
teke, gaztetxean edo kultura  
etxeen.

Bestalde, Zarautzen surf  
egitera (uztailaren 15ean) edo  
Arcachoneko aquaparkera  
(hilaren 22an) irteerak anto-  
latu ditu Udalak. Argibideak  
kultura etxeen (943 77 91 60).

> ERAKUSKETA  
**Agirre 'Keixeta'-ren  
margoak Aroztegi  
aretoan**

Gaur, egubakoitza, Txiki Agirre 'Keixetaren margo erakus-  
keta zabalduko dute Aroztegi  
aretoan, 19:00etan. Erakus-  
keta uztailaren 19ra arte  
izango da ikusgai Barrenka-  
leko aretoan.

Bestalde, Euskal Herriko  
Gay eta Lesbianen Askapene-  
rako Mugimendua kultura  
etxeen jarritako *Borrokaren  
koloreak* erakusketa ikuste-  
ko azken eguna gaur, eguba-  
koitza, izango da. Kultur etxe-  
ko aretoa 18:00etatik 21:00eta-  
ra dago zabalik.

> MUSIKA  
**Organo eskolak  
Musika Eskolan  
09/10 ikasturtean**

Musika Eskolan organo esko-  
lak jasotzeko aukera egongo  
da datorren ikasturtean. Hain  
zuzen ere, eskolak emateko,  
San Pedroko parrokiak organo  
berria erosi du, Oberlin-  
ger etxeak. Dagoeneko bi  
emanaldi antolatu dituzte  
organoa ezagutzera emateko.

Organo eskolak jasotze-  
ko interesa dutenek eskolara  
jo dezakete uztailaren 15a bai-  
no lehen, 09:00etatik 13:00eta-  
ra, edo bestela 943 76 57 80 tele-  
fonora deitu argibide eske.



Ciprus eta Ugarrixa taldeek jokatu zuten iazko finala. Eskoriatzako Ciprus nagusitu zen (7-5).

GOIENKARIA

**ARETO FUTBOLA > 24 ORDUKO SAN MARTZIAL TXAPELKETA**

# Egun osokoa, baina deskantsua hartuta

Gaur, 19:00etan hasiko dute Komando Piperrak eta Ahal Dugu taldeek 24 orduko txapelketa

XABIER URTZELAI &gt; BERGARA

Gaur, egubakoitza, hasiko duten 24 orduko San Martzial txapelketak aldaketa nabarmen bat du iazkoarekin alderatuta: 04:30etik 08:30era taldeek atseden hartu ahal izango dutela. Tarte horretan pilotalekuco ateak itxiko dituzte, eta goizean goiz ekingo diote berriro ere txapelketari.

Ondoko zutabeen lehenengo faseko partiduak dituzue, eta zapatuan, 15:00etan hasiko dituzte final-laurdenak. Final-erdia lehenengo partidua, berriz, 18:25ean hastea aurreikusten dute antolatzaleek, eta kanporaketa horretan aurrera egiten dutenek 20:45ean jokatuko dute finala, geratzen zaien indarrekin.

**Ordutegia**

19:00	Ahal dugu-K.piperrak
19:40	Mongitxarrak-Ez dakiu
20:20	Infernukua-Indar Gorri
21:00	Irish Pub-Internacional
21:40	Santana River-Arrano T.
22:20	The purple-Belengua Tab.
23:00	Komand.Piperrak-Neskak
23:40	Infernukua-Santana River
00:20	Ahal Dugu-Mongitxarrak
01:00	Irish pub-The purple
01:40	Indar Gorri-Arrano Team
02:20	K.Piperrak-Ez dakiu
03:00	Internacional-Belengua
03:40	Ahal dugu-Neskak
04:30	Atsedena (4 ordu)
08:30	Ahal dugu-Ez dakiu
09:10	Infernukua-Arrano Team
10:00	Mongitxarrak-Neskak
10:40	Irish Pub-Belengua
11:20	Indar Gorri-Santana River
12:00	Internacional-The purpl
12:40	K.Piperrak-Mongitxarrak
13:20	Ez dakiu-Neskak

**FUTBOLA > IPINTZAKO TXAPELKETA**

# Amaika eta La Juve, lehenengo finalerdian

Amaika, La juve, Txokokuak eta Santana River sailkatu dira Ipintzako final-erdia jokatzeko

X.U. > BERGARA  
Datorren astehenean eta martitzenean jokatuko dituzte gizon-nezkoek futbol 11ko finalerdiak.

Aste barruan jokatu dituzte kanporaketak, eta hauetan izan dira emaitzak: Amaika-Indar Gorri (3-1); La Juve-A ze flaxa (3-0); Txokokuak-Eskalibur (2-0); Santana River-Ez dakiu (1-0).

Hala, astelehenean 19:30ean neurrtuko dituzte indarrak Amaikak eta La Juvek, eta martitzenean, 19:30ean, Txokokuak eta Santana Riverrek. Bi partidu horien aurretek jokatuko dituzte kopako finalerdiak, 18:00etan.

Gizonezkoen txapelketari dagokionez, aipatzeko da La Juve taldea egiten dabilen txapelketa, kontrario gogorrak utzi ditu-eta atzean. Bestalde, iazko irabazole Getokuak taldea ligatik eta kopatik kanpo geratu da aurten.

Beteranoek atzo jokatu behar dituzten finalerdiak, eta egunean jokatuko dute finala, 19:30ean. Neskek, berriz, eguztenean jokatuko dituzte finalerdiak, (19:00).

**SASKIBALOIA > II. SORALUCE S.COOP. TROFEOA**

# Datorren asteburuan egingo dute hirunako txapelketa

Domekan, hilak 5, amaituko da Bergarako hirunako saskibaloi trofeoan izena emateko epea

taldeek [www.bergara3x3.blogspot.com](http://www.bergara3x3.blogspot.com) webgunetik jaitsi dezakete izena emateko orria, eta bete eta gero, [bergarasaskibaloia@gmail.com](mailto:bergarasaskibaloia@gmail.com) helbide elektronikora bidali.

**KATEGORIA GUZTIAK**

Txapelketa kategoriaka bantuako dute, eta hau da txapelketan parte hartzearen ordaindu beharrekoa: alebin eta infantilek 8 euro taldeko, kadeteek eta gazteek 12 euro taldeko, 1991n edo lehenago jaiotako koadrilek 20 euro, eta elite maiako seniorrek 40 euro taldeko.

Hala, kuota BKEk Kutxan duen ondorengo kontu korrontean sartu behar da: 2101 0070 80 0010595338, taldearen izena jarrita.



Iazko txapelketak saskibaloi eraman zuen Bergarako erdigunera.

J.A.

**ZIKLISMOA > TOURREKO KINIOLA**

# Lokatzak Tourreko kiniola egiteko postuak jarriko ditu

X.U. > BERGARA  
Tourreko Lokatzako porrak zazpi garren edizioa du aurten. Hala, txirrindularitzako zaleek euren apustuak egin ahal izango dituzte asteburuan eta, bide batez, herriko ziklismo taldeari lagundu. Jokalari bakoitzak 20 euroren truke 15 ziklista aukeratu ahal izango ditu, eta apustuak Nahikari, Avenida, Fronton,

Usoa, Deportivo, Zabala jatetxeen eta Antzuola okindegian egin ahal izango dira. Bihar, zapatua, Lokatzakoek postu bat jarriko dute Domingo Irala kalean (13:00-22:00), eta domekan beste horrenbeste egingo dute San Martzialen (12:00-14:00). Gainera, zaleek [www.goiena.net/blogak/lokatza](http://www.goiena.net/blogak/lokatza) blogean jarraitu ahal izango dute txapelketa.



Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

PINTXOAK eta OGITARTEKOAK SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g  
Bergara  
943 76 07 92

*Mujika*  
gozategia



Bizkotxoak  
Erreilenoak  
Tostoiak


Artekalea 3 BERGARA  
943 76 10 34

**BEHEKO TABERNA**

Menestra  
eta untzia dira  
gure berezitasunak

ANGIOZAR  
Tel.: 943 76 55 74

# ZURE AUTOAREN PIEZAK PUNTU-PUNTAUAN



  
**ALMACENES LASCAR**

Amillaga 32 • 943 76 10 38 / 943 76 19 11 • Bergara

**DESA/CRISTAL**

Santalaitz 6, 5. pabilioia • 943 76 36 09 • Bergara  
Ibaiondo bailara 17, 8. pabilioia • 943 69 16 16 • Irura

**ION AUTOAK**

Amillaga 36 • 943 76 47 49 • Bergara

  
**LAGUN GARAJEA**

Santalaitz 3 • 943 76 11 20 • Bergara

**MARKIEGI autoak**

Leizeaga 1 • 943 76 35 09 • Bergara

  
**Murillo Garajea**

EUROTALLER  
Leizeaga 4 • 943 76 13 84 • Bergara

  
**T. Blanco**  
Nonito Blanco Sampayo

Amillaga 22 • 943 76 17 35 / 943 76 51 35 • Bergara

  
**TXOMIN GARAJEA**

Santalaitz 3 • 943 76 11 20 • Bergara

Bost eta 50 langile artean dituzten enpresa berritzaleak izatea eskatzen du Udalak

Teknikariak prestatzeko, inbertsioak egiteko eta eraketa gastuetarako dira laguntzak

**MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta**  
Herrian enpresa ekimenak bultzatzeko ordenantza duka Udalak. Enpresa berriak sortzea du helburu horrek, eta horretarako hainbat dirulagunza bideratzea. Ordenantza ez da berria, baina krisi sasoian inoiz baino garantzitsuagoa da.

**ENPRESA TXIKI ETA ERTAINAK**  
Egoera ekonomiko larriaren ondorioz enpresak ixten dabiltsan sasoian, herrian enplegua eta aberastasuna sortzea gura du Udalak. Hori horrela, enpresa txiki eta ertainei zelan lagundu duka jasota ordenantzan. Dirulaguntzak jasotzeko enpresa berritzaleak izan behar dute teknologia berriak erabili... eta bideragarritasun plan egokiarrekin. Horrez gain, hainbat baldintza beteko dituzte enpresa horiek, tartean ondorengoa: gehienez ere urtebeteko antzintasuna izatea; 5-50 langile artean izatea; Aretxabaletan erroldatuta egotea sustatzaileak (gutxienez erdiak); beste laguntzarik ez jasotzea.

**UDALA > LAGUNTZAK**

# Enpresa ekimenak laguntzeko ordenantza dauka Udalak



Aretxabaletako enpresa ertain bateko hainbat langile lanean.

MIRARI ALTUBE

Udalak eskaera aztertu eta interes soziekonomikoko enpresa ekimena dela erabakiz gero diruz lagunduko du. Dirulagunza hori ondorengo gastuetarako izango da: enpresako teknikariak forma-

tzeko eta gerentearen soldatu ordaintzeko (gehienez 6.000 euro; ekoizpen ekipoen inbertsioetarako (gehienez 24.000 euro); eta era-tu eta abian jartzeko gastuetarako (gehienez 6.000 euro).

Ordenantzaren gaineko argibide gehiago gura duenak udaltxera jo dezala edo udalaren web-gunean begiratu [www.aretxabaleta.com](http://www.aretxabaleta.com), Udal dokumentuen atalean.

## LAU LANGILE UDARAKO

Bestalde, Udalak lau langile har-tu ditu Inemen bitartez uda sasoian egin beharreko hainbat lanetan laguntzeko, tartean Andramari jaiak.



MIRARI ALTUBE

## Beroari aurre egiteko, ur jolasak

Bero handia izan dugu astean: 30 gradutik gorako tenperaturak eta hego haize beroa. Horri aurre egiteko, gerizpe bila ibili dira asko eta umeek ura aukeratu dute. Iturrien inguruan –Gernika eta Herriko plazetan– pilatu dira asko, puxikak eta ur pistolak bete eta elkarri ura botatzeko. Eta Arizmendi ikastolako Basabeazpi gunean, ur jolasak egin zituzten eguztzen goizean.

**KIROLAK > UDAKO KIROL KAMPAINA**

# Batuka eta patinaje taldeak abian

Kirol zerbitzuak eskaintako kanpainaren lehen txandan uste baino talde gutxiago sortu dira

**M.A. > ARETXABAleta**  
Astelehenean jarri zuen abian udako kirol kanpaina Kirol Zerbitzuak. Adinaren araberako eskaintza zabala egin du aurten ere -4 urtetik gorako guztienako-, baina bakarrik bi talde sortu dira lehen txandan: batuka eta patinajea. Batukan 12 neska dabiltsa -10 urtetik gorakoak- eta Durana kaleko lokalean elkartzen dira, goiztan; patinajean, ostera, 10 bat neska-mutiko dau-de eta Iturrigorri pilotalekuaren egiten dute, arratsaldetan.

Hala ere, bigarren txandan neska-mutil gehiago ibiliko direla uste du eta beste talde batzuk sortuko direla, multikirolean eta

frontenisean jardungo duten taldeak, esaterako. Bigarren txanda uztailaren 13tik 24ra bitartean egingo dute eta izena emateko epea zabalik dago hilaren 9a bitartean. Zainduz gimnasioa deitu behar da horretarako (943 71 26 28).



Batuka taldeko neskak dantzaren, martitzeten goizean.

M.A.

## IZENEMATEA, ZABALIK

Aurreko urteetan baino ume gutxiagok egin du kirolaren aldeko hautua. Asier Muxika kirol teknikariaren esanetan kirol etxerik ez izateak –ez igerilekurik, ez gimnasiorik–zeresan han-dia izan du hautaketa horretan.

KIROLAK

## Uztailaren 10ean batzar orokorra du UDAk

2001ean jaiotakoek futbol eskolan izena emateko epea zabalik daukate

M.A. > ARETXABAleta

Batzar orokorra egingo du Aretxabaleta Kirol Elkarteak hurrengo egubakoitzean, hilak 10, Arkupe kultura etxearen (18:00). Batzarra hasteko, oraintsu bukatu den denboraldiaren berri emango diezate baziideei, bai egindako berri, bai diru kontuen berri. Gero, zuzendaritza batzordea berritu eta aurkeztu egingo dute, eta zuzendaritza horrek datorren denboraldia aurkeztuko du; baita diru kontuak ere. Bukatzeko, baziideei emango diez berba galderak eta eskaerak egiteko.


FUTBOL ESKOLA

UDAk antolatutako futbol eskolan izena emateko epea zabalik dagoela gogorarazi dute zuzendaritza batzordeko kideek. 2001ean jaiotako neska-mutikoek eman dezakete izena. Hauek dira behar dituzten datuak: neska edo mutikoaren izen-abizenak; jaizte data; helbidea; eta telefonoa. Horrez gain, kontu korronte baten zenbakia eman behar dute gurasoek.

Izena emateko, Mapfrek Errekabarren kalean duen bulegora joan daitezke interesatuak, UDAko zuzendaritza batzordeko edonori eman edo 677 56 74 78 telefono zenbakira deitu.

## > KULTURA Kultura Plana aurkeztuko dute egunean, hilak 9

Kultura Plana egiten ibili da Udala herritarren laguntza-rekin eta Elhuyar Aholkularitzak bideratuta. Herritarren hausmarketa eta iritziak jaso dituzte txostenean eta horiek Udaleko ordezkarri politiko eta teknikariei erakutsi dizkiete. Horren ostean behin-behineko ondorioak atera dituzte eta herritarrei aurkeztuko dizkiete datorren egunean, hilak 9, Arkupen. Herriko kulturaren gaineko hausnarketan parte hartu duten guztiak daude gonbidatuta aurkezpenera. Udalak behin-behineko ondorioen eta era-bakien berri emango du, eta herritarrek euren iritziak konpartitu ahal izango dituzte.



Hector Prieto, Avilesen jokatzen.

FOTOASTUR

Hector Prieto > Bocciako jokalaria

## "Emaitzarekin arduratu barik jokatu arren, lehen postuan bukatu genuen"

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta

Avilesirian (Asturias) jokatuberryen elkartea arteko 20. Espaniako Boccia Txapelketan urrezko domina eskuratu du Hector Prietok, Yolanda Martin donostiarrarekin batera. Bergarako Dordoka elkarteko kide biak pozik itzuli dira.

Urrezko domina eskuratu duzu Yolanda Martinekin batera; espero zenuten ala ezustekoia izan da?

Gogor borrokatzeko eta dominaren bat eskuratzeko asmoarekin joan ginen, baina, egia esan, ez genuen espero urrezkorik. Yolanda garaipen asko dituen jokalaria da eta eskarmen handia duka halako txapelketetan, baita nazioartekoan ere. Horregatik, bagenekien hark hartuko zuela bikotearen pisu handiena. Partiduz partidu joan ginen, emaitzarekin arduratu barik, eta ohartu orduko lehen postuan geunden.

Halako garaipenak poztasun handia emango du eta aurre-ra segitzeko indarra, ezta?

Bai, hala da. 10 urte daramatzat boccian jokatzen federatu moduan, eta Espaniako txapelketan domina eskuratzea edonorendako da poztasuna. 2001ean ere lortu nuen urrezko domina, baina Yolanda Martin eta Santiago Pesquera jokalarien ordezko izanda, urte askoan izan dira-eta bikote nazioarteko txapelketetan. Oraingo titulua, osteria, neuk jokatuta lortu dut, eta horrek askoz garrantzi handiagoa dauka maila pertsonalean.

Azaldu zelan jokatzen duzun zuk boccia kirolean.

Arrapala edo ranpa batekin jokatzen dut, bertatik bola botatzen da eta norabidea eta indarra zehaztu behar dira arrapalaren aldaparen bitartez. Arrapala hori mugitzeko garbiketa bat daukagu, jokalariaren argibide-

ak jarraitzen dituen laguntzailea; baina hari ez diote uzten partida ikusten eta kirolariak esaten dia na bete behar du. Nire kategorian arrapala erabili beharra daukagun kirolariak bakarrik jokatzen dugu –ezintasun handien daukagunak–, baina ezintasunaren arabera beste maila batzuk daude eta eskuarekin ere botatzen dute batzuek.

Hortaz, zuk laguntzailearekin jokatzen duzu.

Bai, eta laguntzaile horren eta kirolariaren arteko elkar ulertzea oso garrantzitsua da; horregatik, ohikoena beti berbera izatea da. Nire kasuan, aurten Antzuolako Unai Ormaetxea izan da; eskualde mailako txapelketetan lagundu izan dit, baina estatu mailako txapelketa baten lehen aldiz jokatu dugu elkarrekin. Gainera, aprobetxatu gurako nuke tarte hau garaipena Unai ni eskaintzeko, laguntzaile horiek

barik ezingo genukeelako jokatu; horregatik, kirolariak eta laguntzaileak parte-hartzale bakarra osatzen dugu eta Unai ni bezain txapelduna da.

Era berean, besarkada bat bidali gura diet gure zain izaten diren laguntzaile guztiei, ez bakarrik kirola egiterakoan.

Kanpotik samurra ematen du, baina kontzentrazio handia eskatzen duen kirola da, ezta?

Egia esan, kontzentrazio handia behar da, kontuan izan behar da sei minutu daudela sei bola botatzeko, eta denbora oso ondo erabili behar da. Bikoteka jokatuta zortzi minutu ditugu bola guztiak botatzeko; hau da, hiru jokalari bakoitzak. Eta gero, estrategia ere badago, espazio eta angeluekin jokatu behar da eta bikoteko kapitainak zein jokaldi burutu erabaki behar du jokoak aurrera egin ahala.

Zelako giroa egon zen Avilesen jokatutako txapelketan?

Oso giro polita, baina batez ere oso lehiakorra. Jendeak ez jakin arren, elite mailan jokatzen da boccia, bakarrik hori egiten duten kirolariak daude eta astean bost aldiz entrenatzen direnak. Nire kasua ez da hori; ondo pasatzen joaten naiz txapelketetara eta lagunekin aste bukaera atsegina pasatzen. Gainera, beste leku batzuetako kirolariak ezagutzen ditugu txapelketetan eta haien berri izatea gustatzen zaigu.

Dordoka elkarteko kidea zara; zenbat aldiz entrenatzen zara?

Eguenetan entrenatzen naiz Bergarako Ipintza institutuan. Nik ez dut elite mailan jokatzen, baina oso gustuko dut boccia.

**"Hamar urte daramatzat federatuta jokatzen, eta domina eskuratzea poztasuna da"**

**"Kirolariak eta laguntzaileak parte-hartzale bakarra osatzen dugu eta Unai ni bezain txapelduna da"**

**"Kontzentrazio handia eskatzen duen kirola da, sei minutuan sei bola bota behar direlako"**

 **Garbittu**

Errekabarren 3, behea ARETXABAleta  
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21  
garbittu@euskalnet.net

Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak

- Obra bukaerako garbiketak
- Auzotarren komunitateen eta garaileen garbiketak
- Kristalen garbiketak
- Arropa garbiketak

**M**obiliario  
**A**RENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABAleta



Hernanin egindako hip-hop jaialdian break dantzaria eta grafiti margolariak.

GAZTERIA ZERBITZUA

GAZTEAK &gt; HIP-HOP EGUNA

# Hip-hop jaia egingo dute hilaren 11n

Hip-hop hizkuntzaren bitartez gazteak erakartzea da asmoa, eta guztia euskaraz

Graffitiak margotzen irakatsiko dute, DJ lanak egiten eta break dantzaren oinarrizko pausoak

MIRARI ALTUBE &gt; ARETXABAleta

Hip-hop eguna antolatu du Gazteria Zerbitzuak eta hilaren 11n egingo dute, zapatua. Hip-hop hizkuntzaren bitartez gazteak erakartzea du helburu egunak, euskara bidelagun hartuta.

IKASI ETA GOZATU

Maider Etxaniz Gazteria teknikaria ibili da antolaketa lanetan: "Gazteen artean gero eta gehiago entzuten da hip-hop; hau da, graffitiak, break dantza... eta gustuko duten zerbaite antolatzea era-

baki dugu. Eta oso garrantzitsua dena, guztia euskaraz".

Hip-hop egunak bi zati izango ditu: "Goizean ikasi eta arratsaldean gozatu", dio Etxanizek. Hala, bada, goiz partean (11:00-14:00) tailerrak egingo dituzte hip-hoparen espresiobideak ezagutzen joateko: graffitiak zelan margotu tailerra; scratch eta DJ tailerra, musikarekin jolasean hasteko; eta break dantza tailerra, oinarrizko pausoak jakiteko. Hori guztia erakusteko adituak izango dituzte lagun gazteek.

**BERTSOSOUND SYSTEM**

Arratsaldean jaialdia egingo dute (16:00-20:00), Kurtzebarri eskola-ko gunean -eguraldi txarrarekin Iturrigorri pilotalekuuan-. Ekitaldia aurkeztuko dute lehenengo Dzren musikarekin eta scratch erakustaldia eginda eta ondoren gazteek izango dute tarte abesteko.

Gero, Bertsosound System jaialdia hasiko dute. Hain zuzen ere, Xabier Silveira eta Unai Muñoz bertsolariak eta Bilbo, Hernani eta Barakaldotik etorritako rap abeslari euskaldunek ekitaldia egingo dute. Selektah Kolektiboko kide, irrati esatari eta musikari Aritz Sound Systemek diskoka jarriko ditu eta Euskal Herriko hainbat txokotatik etorritako break dantzariekin era-kustaldia egingo dute. Bien bitartean, graffiti margolariak lanean jardungo dute.

Aritz Sound System &gt; Musikaria

## "Hip-hopa ideiak eta sentimenduak adierazteko modua da"

M.A. &gt; ARETXABAleta

Aritz Sound System musikari ezaguna izango da hip-hop eguna girotzen.

Hip-hopa zer da?

Hizkuntza da. 80ko hamarkadan AEBetako auzo txiroetan sortutako mugimendua da, espresiobidea. Ideiaketa sentimenduak adierazteko modua da eta horretarako baliabide ezberdinak erabiltzen ditu: rap musika, break dantza eta graffitiak.

Hip-hopak konektatzen du euskal gazteriarekin?

Geroz eta gehiago. Hip-hop mugimendua, estetikoki zein mamiari dagokionez, oso erakargarria da, baita euskal gazterarentzat ere. Mugimendu berritzalea da, hizkuntza sinplea du, zuzena eta iraultzailea.

Zer da gustukoentzutu?

Hip-hoparen osagai guztiek gustatzen zaizkien eta lehen kontaktua eduki dezan

ten baliabideak jartzenditugu guk.

Hip-hop eta euskara batera daitezke?

Hip-hop hizkuntza unibertsala da. Ez du adin, sexu, arraza edo hizkuntza mugarrak. Gaur egun, hip-hop munduko txoko guztietan egiten da. Egia da hemen duelagutxiartu dela eta berde samar dagoela, baina denborarekin izugarri garatuko den zalantzarikez dugu.



CONNY BEYREUTHER

KIROLAK &gt; ITURRIGORRI PILOTALEKUA

## Txukundu egingo dute Iturrigorri pilotalekua Andramari jaietarako

Horma zuria pintada askorekin dago orain; horiek kendu eta berdez margotuko dute gero

M.A. &gt; ARETXABAleta

Iturrigorri pilotalekua margotu eta txukundu egingo dute hemendik eta abuztuaren erdi-a artean. Udalak itxura berria eman gura dio eta Andramari jaietarako gertu izatea gurako luke. Hala izanez gero, Andramari bigarrenean izango diren profesionalen arteko pilota partiduak inoiz baino dotoreago ikusiko dituzte herriarrek.

**MARGOTU ETA EGOKITU**

Horma zuria dauka pilotalekuak orain; beheko partea pintadaz beteta, gainera. Pintada horiek kendu eta berdez margotuko dute asteotan. Izan ere, esku pilota telebista bidez ematen hasi zirenetik berdez margotu dituzte pilotaleku asko, lehenengo garrantzitsuenak, eta orain bigarren mailakoak ere bai. Hala, Aretxabaletakoak ere laster berde kolorea izango du

eta orain berdez margotuta dagoen goiko parteko zatia urdina izango da. Marka gorriak, ostera, zuriz margotuko dituzte.

Margotze lanekin bateria beste txukunketa batzuk ere egingo dituzte: sabaian dagoen sarea kendu eta frontisaren gaineko aldean plastikozko lona-rekin estalitako goma-aparra jarri; horrekin batera kirol etxe-an zegoen markagailua jarriko dute horman eta pilotalekuaren sarreran atea jarriko dute. Lan horien guztien kostua 27.730 euro da.

Santa Kurtz kalean dagoen Iturrigorri pilotalekua jarduera askoren kokalekua da: pilota partiduak, beste kirol jarduera batzuk -patinajea, jolasak...-, kontzertuak, jaialdiak... Izan ere, aterpea daukan herriko gune bakarrenetako da momentu honetan -kirol etxe barik.



Iturrigorri pilotalekuaren patin ikastaroa egiten.

M.A.

&gt; ERRETIRATUAK

## Basotxoko erretiratuek abesbatza sortu gura dute

Basotxo erretiratuen elkarteko kideak abesbatza sortzekotan dabilta. Herriko kantuak eta betiko euskal abestiak abestuko dituen taldea izango da eta interesa duten erretiratuei elkartzeko dei egin diete zuzendaritzat batzordeko kideek. Izan ere, abestea gustuko duten erretiratuko asko dagoela jakinik, lotsa barik joan daitzelako diote.

Horren guztiaren berri eman eta abesbatzaren kontua zelan antolatu erabakitzeten hasteko batzarra egingo dute uztailaren 22an, eguztena, Erreka-barren kalean Basotxok duen egoitzan (17:00).

&gt; DEIA

## Bruce Springsteen ikustera joateko autobusean lekuak dago

Aretxabaletako lagun batzuek autobusa antolatu dute Bruce Springsteen kantari ospetsuak uztailaren 26an Bilbon egingo duen kontzertura joateko. Autobus horretan hamar jarleku bete barik dituzte orain-dik; hortaz, baten bat interesa izanez gero Belar Meta dendatik pasa dadila edo bertara dei-tu (943 53 27 39).

Autobusa Aretxabaletatik irtengo da eta Arrasaten geratuko da. Jarleku guztiak betetzea lortuz gero, 8 euro izango da kostua. Argibide gehiago Belar Meta dendan emango dituzte.

SENIDETZEA > HAMARGARREN URTEURRENA

# Orain hamar urte sinatutako hitzarmena berretsiko dute

Oñatiko eta Chateaubernard-eko ordezkariek aktak sinatuko dituzte domekan

Chauteaubernard-etik datozen 72 lagunendako egitarau zabala prestatu du Anaitze Batzordeak

MIREIA BIKUÑA > OÑATI  
Aste bukaeran berretsiko dute Oñatiko eta Chateaubernard-eko udal ordezkariek bi herrien arteko senidetze hitzarmena. Chateaubernard-etik datozen 72 bisitariendako egitarau zabala prestatu du Anaitze Batzordeak.

17:30ak aldera helduko dira Oñatira, eta herriko familien artean banatu ondoren, 19:00etan bisita egingo dute herrian zehar. Udal ordezkariek harrera egin diente udaletxeo osoko bilkura aretoan, 20:00etan. Etxe Aundin afalduko dute.

## EKITALDI NAGUSIA, DOMEKAN

Bihar 09:45ak aldera irtengo dira autobusez Arrikrutz aldera, 10:30eko bisita gidatuan parte hartzen. Arantzazuko monasterioa bisitatuko dute eta bertan baziadu dute.

Arratsaldean, 19:30ean, kultur ekitaldia egingo dute Oñatz Dantza taldekoek. Aste bukaeran Aloña Mendi kirol elkartekoek garagardo festa egingo dutela aprobetxatuz, plazako karpan afalduko dute guztiak. 21:00etan bilduko dira garagardoa edateko, txerri-ukondoa jateko eta musikaz gozatzeko.

Aste bukaera borobiltzeko, ekitaldi nagusienak domekan egingo dituzte. 10:15ean kultur bisita egingo dute Oñatin; besteak beste, parroquia eta unibertsitatea bisitatuko dituzte. 12:00etan hasiko dute ekitaldi ofiziala. Bi herrietako udal ordezkariek Anaitze Monumentuaren aurrean elkartuko dira. Aurrekua dantzatuko diete, eta, gero, udal ordezkariek hitza hartuko dute eta alkateek aktak sinatuko dituzte. Ondoren, Udal Musika Bandak kontzertua egingo du, eta 14:00etan bazkaria egingo dute Soraluze jatetxeen.

## Aste bukaerako ekitaldiak

### Gaur, egubakoitzta

17:30: Ongietorria.  
19:00: Bisita herrian.  
20:00: Harrera udaletxeen.  
21:00: Afaria Etxe Aundin.

### Bihar, zapatua

10:30: Arrikrutzera bisita egingo dute.  
13:30: Bisita eta bazkaria Arantzazun.  
19:30: Kultur ekitaldia Oñatz taldearen eskutik.  
21:00: Afaria garagardo festako karpan.

### Etzi, domeka

10:15: Kultur bisita Oñatin.  
12:00: Ekitaldi ofiziala Santa Ana antzokiaren kanpoaldean. Aurrekua, udal ordezkarien hitzak eta akten sinatzeak.  
13:00: Udal Musika Bandaren kontzertua  
14:00: Bazkaria Soraluze jatetxeen.  
17:00: Itzulerako autobusa.

## Ikastolako umeak, ingelesez udalekuetan

Txantxiku Ikastolako ikasleak ingelesezko udalekuak hasi zituzten ekainaren 24an. Hain zuen ere, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleekin hiru talde osatu dituzte.

Enjoy English programaren helburua da ingelesa ikuspegia ludikotik lantzea. Hala, ingelesa oinarri duen askotariko ekintzak egingo dituzte; besteak beste, Enjoy English Show, hilaren 17an.

Txantxiku Ikastola 1995ean hasi zen ingelesa lantzeko programarekin lanean.



TXANTXIKU IKASTOLA

OSPAKIZUNA > III. GARGARDO FESTA

## Aloñak antolatutako garagardo festan, 11 garagardo mota probatzeko aukera izango da

Plazako karpa  
13:00etatik 22:00etara  
arte zabalduko dute  
domekara arte: Aloñako  
14 sailetako ordezkariek  
egongo dira lanean

M.B. > OÑATI  
Aloña Mendi kirol elkartea antolatutako III. Garagardo Festa atzo 19:00etan zabaldu zuten. Domekara arte zabalik egongo da pla-

zako aparkalekuuan jarri duten 450 metro koadroko karpa. Guztira 11 garagardo jarriko dituzte. Edatekoaz gain, jatekoak ere egongo da: txerri-ukondoa eta saltxitxa mota ezberdinak jarriko dituzte, eta oilasko izterrak egongo dira patata errekin. Aloñako 14 sailetako kideak egongo dira zerbitzari lanak egiten. Dagoeneko txandak zehaztu dituzte.

Karpa barruko giroa alaitzeako musika egongo da egubakoitzean eta domekan; hain justu ere, Kaixo taldeak eta Jose Luis Bikunak jarriko dute musika.

### TXARTELAK PITXARRENGATIK

Garagardoa edateko pitxarrak bueltatzeko sistemana aldaketa egingo dituzte. Pitxarraren truke, aste bukaera osoan erabil daitzekeen txartel bat emango dute.

Berrikuntza askorik ez du izango festak, baina iazkoa hobetzan ahaleginduko direla esan digu Aloñako presidente Anton Intzak. Garagardo festak bi helburu ditu: alde batetik, 14 sailen artean banatzeko, ahalik eta diru gehien batzea; eta, beste alde batetik, sailen arteko hartu-emanak sendotzea.

## oharrak

### ERAKUSKETA

#### > Homofobiaren buruzko erakusketa ikusgai kultura etxearen

Euskal Herriko Gay-Les Askapenerako Mugimendua (EHGAM) prestatuta, Homofobiaren aurpegiak izeneko era-kusketa dago kultura etxearen. Hilaren 11ra arte dago ikusgai, astelehenetik domekara arte, 18:00etatik 20:00etara.

### DIRULAGUNTZAK

#### > Udako ikastaroetarako laguntzak emango dituzte

Euskal Herriko Unibertsitateak antolatzen dituen udako ikastaroetan parte hartzen duten herriko ikasleek eta langabeek jaso ahalko dute dirulaguntza.

### LANPOSTUA

> Turismo bulegorako teknikaria behar dute  
Laguntza jasotzeko bete beharreko baldintzak dira: ikasle edo langabe izatea, Oñatin erroldatua egotea eta ikastaroa ordaindu izanaren agiria izatea. Baldintza guztiak egiazatzeko agiriak aurkeztu beharko dituzte udal bulegoetan. Jasotako eskaeren arabera zehatutako dute dirulaguntza.

### DIRULAGUNTZAK

#### > Udako ikastaroetarako laguntzak emango dituzte

Oñatiko Udalak turismo bulegorako teknikaria kontrataku du. Kontratua sei hilabete-rako izango da, lan jardun erdia-rekin. Soldada 1.100 euro inguru koa izango da. Gaur da azken eguna eskaerak aurkezteko.

JAIAK &gt; SANPEDROAK

# Datorren urterea arte itxarotea besterik ez da geratzen

Beroa izan da aurtengo San Pedro jaietako protagonista nagusia, antolatutako ekimenekin batera



Beroa pasatzen ziren *balance* zirkuituan.

MIRIAN BITERI &gt; ESKORIATZA

Aste bukaeratik osatzeko astirik izan barik eta domeka gauean european egindako helduen danborradatik osatu barik, jaietako egun nagusiari aurre egin zioten eskoriatzarrek astelehenean. Herriko zaindariaren egunean, ekimen erlijiosoa nagusitu ziren. Goizean prozesioak herriko kaleak igaro zituen eta jarraian meza egon zen. Udal ordezkariek ez zuten hutsik egin eta herriko ikurra eraman zuten parrokiaraino.

Arratsaldeko lehen orduan jende gutxi zebilen kalean, sargoriak itzalean egotera gonbidatzen zuen-eta. Zanguango taldearen antzezlanak, dena den, jendea era karri zuen plazara. Ordurako Santa Marina plazan gaztelekuak antolatutako *balance bike* zirkuitua eta hankapalu tailerrean gaztetxoak zeuden, baita gaztelekuaren jarraian egindako jaialdian ere.



Presoen eskubideak gogoan izan zituzten jaietan.



## UMEAK PROTAGONISTA

Martitzenean Umeen Eguna zen. Bazkaldu ostean, mus txapelketa egin zuten. Guztira, 39 bikotek parte hartu zuten eta Errastik eta Roman Lopezek osatutako bikoteak irabazi zuen. 18:30ean, berriz, umeen danborrada irten zen Intxaurtxuetatik. Partaidetza handia eta beroa izan ziren ekitaldi hartako protagonistak, Koldo Oiangurenkin batera. Danborrada plazara heldu zenean, omenaldia egin zioten azken horri, haurren danborradan 40 urtez jotzeagatik.

Azken egunean Euskal Jaia ospatu zuten. Gorosarrin egindako bazkarian giro ederra egon zen. Santa Marinan egitekoa zen hura, baina beroagatik aldatu egin zuten. Menua ere ezberdina izan zen: txuleta oilasko erreagatik ordezkatu zituzten. Bazkalostean jaiak jarraitu egin zuen plazan. Eta presoak gogoan izan zituzten ohiko kalejiran.



III. Sanpedrutako Kantu Txapelketan aparteko giroa egon zen.



Zanguangoren *Tocata y fuga en fú renol* antzezlanaren irudia.



Zaparrada batukada taldea, plazan.



Etxeko txikienek lan gogorra egin zuten martitzen arratsaldeko danborradan.

ARGAZKIAK: MIRIAN BITERI

## oharrak

### ZERGAK

> **Estolderia eta ur hornidura ordaintzeko epea zabalik dago**

Uztailaren 10ean amaitzen da 1. hiruhilabetekoari dagokion estolderia eta ur hornidura tasa borondatez ordaintzeko epea. Aurrezki kutxa edo banketxeen bidez egin behar da ordainketa. Betiko moduan, aipatutako epean ordaintzen ez badira, prozedura exekutibotik eskatuko dira, sor daitezkeen kostuak gehituta.

### GAZTEAK

> **Udaeroren eskutik, Zarautzera, Usakora eta Gamarrara asteon**

Astelehenean, hilak 6, aurtengo Udaero programa hasiko da. Egun horretan Zarautzera joango dira herriko gazteak, surf ikastaroan parte hartzera. Eguaztenean, Oñatiako Usakora irteera egingo dute. Bizikletaz joango dira hara bainua hartzera. Eguenean, berriz, Gamarrako igerilekuetan pasako dute eguna.

### ORDUTEGIAK

> **Hilaren 16ra arte goiz eta arratsaldez dago zabalik Ibarraundi**

Ibarraundi museoak udako ordutegia du abuztuaren 31ra arte. Hilaren 16ra arte, 09:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara egongo da zabalik; eta uztailaren 17tik aurrera, goizez bakarrik: 09:00etatik 14:00etara, hain zuzen. Egunotan Felix Likinianoren gaineko erakusketa dago ikusgai museoan.

INGURUMENA > UDALA

# Erosketa Berdearen gaineko deklarazioa onartu dute osokoan

Erosketa eta kontratacio publiko berdearen aldeko apustua egiten ari da azkenaldian Udala; oraingoan, konpromiso orokorrak adostu ditu

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA  
Eskoriatzako Udalak iraunkortasunaren alde lanean dihardu. Joan den astean egindako osoko bilkuran, Erosketa Berdearen harira hiru konpromiso orokor jasotzen dituen deklarazioa onar-

tu zuen aho batez udalbatzak. Horretan, Erosketa Berdeak bezala ezagutzen den politika apurka garatzearen alde lan egiteko konpromisoa hartzen du. Hau da, ahal den guztieta, hornikuntza kontratuak egiterakoan etiketa

ekologikoa duten produktuak, ekoizpen prozesuan material arriskutsuak ez dituztenak edo ingurumenean eragin murritzaga dutenak erosiko ditu.

## UDAL KONTRATAZIOAK

Bigarrenik, udal kontratacio publikoa egiteko baldintza-agrietai ingurumen parametroak sartzeko konpromisoa hartzen du. Horrela, produktuak, zerbitzuak, aholkularitza, laguntza edo

obrak kontratatzeraoan, beste zehaztasun ekonomiko eta teknikoekin batera, ingurumen kalitatea baloratu da. Horren harira, indarrean dagoen legedia eta Europako zuzentaraauak izango dira kontuan.

## SENTEZIALIZAZIOA

Azkenik, Eskoriatzako Udalak apurka iraunkortasun irizpide-dun politika sartzen ahaleginduko dela jakinarazi du. Politika

horren oinarri izango dira, batez, udal zerbitzuei administracioan ingurune praktika onen gaineko informazioa eta aholkulitzta ematea; eta bestetik, Erosketa Berdearekin sentsibilizazioa bultzatzea, gizarte eta ekonomia eragileak gonbidatuz irizpide horiek eta eratorritako produktuak erabiltzera.

## PAPERAK ETA DERIBATUAUAK

Esan bezala, Udalak denbora darama iraunkortasunaren alde lan egiten. Maiatzean egindako osoko bilkuran, erosketa eta kontratacio publiko berdearen aldeko apustuan lehen instrukzioa onartu zuen. Ingurumen-irizpideak erabiliz papera eta deribatuak erosteko jarraibideak adostu zituen orduan udalbatzak. Orain onartutako konpromisoak, berriz, orokorrak dira.

## ERRETIRATUAUAK

### 80 urtetik gorakoek afaria dute hilaren 9an

Izena eman gura duten erretiratuek astelehenera arte dute epea

M.B. > ESKORIATZA  
Olazar erretiratuen elkarteak beste afari-merienda bat antolatu du. Aurreko astean, San Pedro jaien harira urtero egiten dutenaren berri eman genizuen, eta orain, 80 urtetik gorako eskoriatzarrrendako afaria egingo dute la iragarri dute. Uztailaren 9an izango da hori, Elixoste elkartean.

Olazarko zuzendaritza batzordetik jakinarazi digute dagoeneko etxez etxe banatu dituztela gonbidapena herrian dauden 80 urtetik gorako erretiratuen artean. Marisa Isasmendik azaldu duenez, "guztira 123 gizon-emakume badaude ere, batzuk gaixorik daude eta ezin dira etorri. Hortaz, 102 gonbidapen banatu ditugu".

## IAZ, 70 LAGUN INGURU

Afari horretara joan gura dutenek jasotako gonbidapena astelehena baino lehen aurkezta behar dute erretiratuen elkartea duen egoitzan. Joan den urtean, 70 lagun inguru bildu ziren Elixosten.

Isasmendik aipatu du dagoeneko zehaztuta dutela egun horretako menua: has-teko, arrain-zopa egongo da eta bigarrenik, legatza saltsan; postrerako, berriz, pastela eta izozkia. Aurtengoan ere Ozteta jatetxea arduratuko da horretaz. Afari-merien da 19:00etan hasiko da.



MIRIAN BITERI

### Kontxi Zubizarretaren loreek irabazi dute aurtengo lehiaketa

Aurtengo Leiho eta Balkoieta Loreen Lehiaketa badu dagoeneko irabazlea: Aranburuzabala kaleko 52. eskapean bizi den Kontxi Zubizarretak lortu du saria. Epaimahaikideek baloratu dute "harmonia handiko" balkoia dela: "Kolore-

tan egoki konbinatua dago, itxitura zaindu eta orekatua du".

Zubizarretak Euskal Herriko produktuz osatutako saskia irabazi du, herriko lore ederrenak izateagatik.

## ZERBITZUAUAK > HAURRAK

### Ludoteca eta udalekuak kudeatzeko deialdia egin dute



Besteak beste, Tortolis ludotekaren kudeaketa aurreikusten du deialdiak.

en kopurua 59.000 eurokoa dela urteko. Behin-behineko bermea 1.180 eurokoa da eta behin betikoa, berriz, adjudikazioaren zenbatekoaren %5.

Proposamenak udaletxeko sarrera erregistroan aurkezta behar dira; esan bezala, martitzena baino lehen. Jarraian, epaimahaik A kartazal barruko agiriak kalifikatuko ditu eta, behar izanez gero, argibide edo dokumentu osagarriak eskatu ahalko ditu. B kartazalean aurkeztutako eskaintzak, berriz, alkate erabakiz izendatutako egun eta orduan irekiko dira. Ireakitze ekitaldia jendaurrean egingo da udaletxeko osoko bilkuren aretoan.



Gaztetxoak Errekaldeko gazte txokoan hezitzaileekin merienda egiten.

GOIENKARIA

**AISIALDIA > GAZTEAK**

## Gazte txoko berria urrian zabalduko dute Eguzki auzoan

Errekaldeko gazte txokoaren balorazio positiboa egin arren, txiki eta hotz geratu zaiela esan dute

**IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA**

Gazte txokoan ikasturtea amaituta, gurasoek, hezitzaileek, gazteek eta udal ordezkariek balorazio positiboa egin dute. Urriatik maiatzera bitartean zapatuetan eta domeketan ibili dira 12 eta 14 urte bitarteko 26 neska-mutiko Errekaldeko lokalean ekintzak egiten, txandaka jardun duten lau hezitzailerekin.

Hasieran arratsaldez egon arren, gerora, gaztetxoek eskatuta, zapatu gauean ere zabaltzen hasi ziren. Gaueko zerbitzuaz gain, beste berrikuntza bat izan da: hezitzaile taldea herritarrek osatua izatea.

Balorazio orokorra positiboa izan bada ere, gabeziak antzeman dituzte: "Errekaldeko lokala txiki geratu zaie eta hotza da. Gai-

nera, baliabide ekonomikoek ekintzak mugatu egin dituzte", esan digu Lierni Legorburu Hezkuntza teknikariak.

**GUSTURA EGOTEKO LOKALA**

Errekaldeko lokalean egin dituzte ekintza gehien. Legorburuk esan digunez, "gazteek batik bat nahi dute gustura egoteko toki bat". Errekaldeko ez ezik, herriko ekintzetan ere hartzute dute parte: Euskararen Egunean, Inauterietan, Gabonetan, Korrikan... Ikerkuntza amaieran ere irteera egin zuten Orioko kanpinera gazteek.

Ikasturtea amaitu bada ere, jadanik hasi dira gazte txoko berrira begira. Lokala Eguzki auzoko gimnasio berriaren ondoan egongo da eta oraingoa baino askoz handiagoa izango da. Gazteek eurek egokituko dute, lokala margotuz eta euren erara atonduz. Asmoa da urrian lokal berrian hastea eta irailean egingo dute begiraleendako deialdia.

**JAIAK > SAN MARTZIAL**

## Lizarragan San Martzial jaiak dira aste bukaeran

**I.A. > ANTZOLA**

San Martzial eguna izan zen martitzenean eta Lizarragan ospakizuna egin zuten. Aste bukaerarako ere antolatu dituzte hainbat ekintza.

Zapatu goizean plater tiroketa probak egin eta 16:30ean herriko plater tiroketa txapelketa izango da. 18:00etan ume jolasak, 19:00etan txokolate-jana eta 20:00etan trikitilaria. Afaria izango da gero, eta afalostean bertsolaria eta erromeria

Unanue, Agirre eta Biteri trikitilariekin. Eta 2008ko aitzur onearenak saria emango dute.

**MEZA ETA DANTZA DOMEKAN**

Domekako jai giroa txistulariek hasi eta txirrindulari igoera izango da 11:30ean. 12:00etan meza egongo da; gero salda banatuko dute eta erretiratuen-dako mokadua. Eguediko dantzarien saio ostean, 16:00etan erromeria egongo da eta tartean aizkora desafioa.

**> PRESOAK**

## 'Eltzikorta'-ren argazkia kendu dute Zurrategitik

Astelehenean, ertzainek Zurrategin zegoen *Eltzikorta* preso politikoaren argazkia 24 orduko epean kentzeko agindua eraman zuten udaletxera, eta egin ezean, ardura penalak eta administratiboak eskatuko zituztela esan. Udal ordezkariek argazkia kendu arren ertzainen jokaera salatu dute: "Antzuolako herrian hainbat lapurreta izan direnean Ertzaintzak agertu duen ardura eta orain atertu duena oso bestelakoak izan dira. Herri barruko trafikoaren jarrai-pena euren eskumena izanik ere, ez dute ezer egiten. Horrez gain, jakinarazpena gaztelania hutsean egin dute", dio alkateak.

**> MUSIKA**

## Bergarako Orkestra Sinfonikoa gaur Torresoroan

Gaur, egubakoitza, Bergarako Orkestra Sinfonikoaren emanaldia izango da, 22:00etan, Torresoroan. Alfredo Gonzalez Chirlaque zuendari dela sei pieza eskainiko dituzte musikariekin: Gustav Holst-en *Jupiter*; Christoph Willibald Gluck-en *Alceste* obertura; Miguel Matamoros-en *Juramento* boleroa; Sergei Prokofiev-en *The Montagues and Capulets*; *Cinema Paradiso* soinu banda Ennio Morricone-n, Alfredo Gonzalez Chirlaque-k moldatua; eta Alfredo Gonzalez Chirlaqueen beraren *Bost ierro* pieza kontzertua amaitzeko.

**LARREA**  
**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

**ANTZUOLA**  
Apaintekat eta isolamenduak  
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA  
676 997 400  
Biltegia: 943 78 70 40

**Tomas Gezalaga**

**Zoruen kutxilatu eta bernizatzea**

Kalegoi 21  
Tel.: eta faxa 943 76 64 07  
Poltsikokoa 616 277 999  
ANTZUOLA / BERGARA

**GAILUR**  
taberna eta gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA  
Tel.: 943 78 70 32

**Tomas Gezalaga**

**Apaintekarako eta industriarako pinturak**  
•  
**Paper margotuak**  
•  
**Moketak eta tapizatuak**

Kalegoi 21  
Tel.: eta faxa 943 76 64 07  
Poltsikokoa 616 277 999  
ANTZUOLA / BERGARA

**Harizki**  
SUKALDEKO ALTZARIAK

Zurrategi plaza 4, behe. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

**MUEBLES  
IGEA**  
Sukalderako eta  
bainurako altzariak  
Altzari rustikoetan  
espezializatuak

**zabalo**  
IGELTSEROTZA  
Jose Luis Zabalo

**ZAHAR BERRITZEAK:**  
Fatxadak  
Bainugela eta sukaldea  
Lokal komertzialak  
Teiliatuak

JAIAK > FERIXA NAGUSIA

# Jai batzordea: "Denon eskuetan dago jaiei bizitasuna ematea"

Kalean bizi izateko jaiak antolatu dituztela adierazi dute batzordeko kideek; aurrekontua 37.418 euro da

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA  
Aurpegi xelebreak ikusi ditugu gaur goizean Elgetako kaleetan; jaietako lehenengo *asaltoa* ondo joan den seinale.

Gaur, barikua, Erretiratuen eta Umeen Eguna dugu. Egongo da zer ikusi. Salbador kalean harategia zabaltzea aurreikusten duen Imanol Goikoetxea harri-jasotzaile lanetan ikusiko dugu, 13:00etan hasita. Goenatxorekin batera arituko da.

Bits festak, bestalde, ikusmin handia sortu du herriaren artean. Ekimen berria da, herrian lehenengo aldiz egingo dena. Salbador kalean egingo dute lehenengo sokamuturra saioaren



Idiak izango dira aurten ere Ferixa Nagusiko izarrak.

GOIENKARIA

ondotik, 20:15ean hasita. Besteak, gautxoriendako borondatezko alkoholemia probak egiteko aukera egongo da farmazia parean, gauerditik aurrera; ekimen berria hori ere.

## HERRI EGUNA, ZAPATUAN

Bihar, zapatua, Herri Eguna izango dugu. Urteroko asko lasterketa eta herri bazkaria egingo dira, baina buruhandiak aurrekoetan baino gehiago izango dira. "25 bat

inguru irtengo dira kalera", adierazi du Oxel Erostarbe alkateak. "Inguruko herrietatik etorriko dira eta 11:45ean irtengo dira kalera Ustekabe txarangarekin batera".

## IDIEN ERAKUSTALDIA

Domekako Ferixa ere indartsu dator. 22-25 idi pare inguruz osatutako erakusketa egongo da azokan, eta baita idi proba saio bat ere eguerdi aldera. Idi gazteen proba izango da. Elgetatik, Zumarragatik eta Bizkaiko herrietatik etorritako hiru pare harriak jasotzen saiatuko dira ordubetean. Idi gazte horiek, gainera, lehenengo esperientzia izango dute plaza lanetan. Ganadu azokari dagokionez aurten behiak, txahalak eta astoak ere egongo dira.

Makineria eta burdindegia azokan, bestalde, antolatzailleek 45-55 saltoki inguru egongo direla aurreikusten dute. Loreak, barazkiak, gaztak, frutak, txakolina, eztia edo landareen erakusketa eta salmenta ekarriko dituzte Elgetara.

UDALEKUAK

## Bi taldetan banatuta 42 ume aurten udalekuetan

L.Z. > ELGETA

Astelehenean, hilaren 6an, zabalduko dituzte udako udaleku irekiak Elgetan. 42 umek eman dute izena aurten, eta bi taldetan antolatu ditu Udalak. "2-5 urte bitarteko txikiiek talde bat osatuko dugu eta hortik gorakoekin beste bat. Hiru heitztaile egongo dira: bi txikiiek eta beste bat handiekin. Nik neuk ere lagundu egingo dut", adierazi du Kultura teknikari Xabier Gabiñak.

## UZTAILAREN 24RA ARTE

Kirol jarduerak eta tailer ezberdinak egingo dituzte umeek hilaren 24ra arte iraungo duten udaleku irekiotan. Harreragunea estreinatu egingo dute, gainera, ludoteca berrira eramango beharko baitituzte gurasoek. Astelehenean, lehenengo egunean, 09:00ak eta 10:00ak bitartean eraman beharko dituzte. Leku berean jasoko dituzte, 13:00etan.

JENDARTEA > ELGETARRAK UKRAINIAN

## Elkartasunak batu dituen bi familiaren istorio ederra

Udan, zazpi urtez, etxearen hartu duten gaztetxoaren familia ezagutzeko Ukrainian izan dira Ana Sousa eta Hodei Zenitagoia

L.Z. > ELGETA

Gaur egun 16 urte ditu Viecheslav Polischuck gaztetxoak. Ukrainianra da, baina ondo ezagutzen du Elgeta, zazpi urtez herrian izan dugulako uztalean eta abuztuan. Aurten ez da etorriko: graduatu egin da, eta unibertsitatean egin nahi dituen Ekonomia ikaskete-tarako prestatu behar du.

Faltan igarriko dute Zenitagoia-Sousa familian. "8 urte zituen lehenengo aldiz gurera etorri zenean eta urte hura gogorra izan zen", gogoratzen du Ana Sousak. "Orain, ordea, seme baten moduan ikusten dut. Hodei semeak eta biek ere konplizitate handia dute. Anaia bezala du".

ELGETARRAK UKRAINIAN

Viecheslav-en familiaik askotan gonbidatu ditu elgetarrak Ukrainianra, eta aurten animatu dira bisita egitera. Ekainaren 15etik



Ana Sousa eta Hodei Zenitagoia, Viecheslav Polischuck-en familiarekin Ukrainian.

ANA SOUSA

Patxi  
Taberna

Ondo pasa Elgetako jaixetan  
ZORIONAK!

Bokatak • Plater bereziak • Arrazioak

Salbador, 3 Tel.: 943 78 80 11 Elgeta

IDOIA  
IRIARTE IRURETA  
Odontologoa

JAI ZORIONTSUAK  
ELGETAR GUZTIO!!

Torrealdea 2 behea ezk. Elgeta  
943 76 80 06

&gt; OSPAKIZUNA

## Zurtitzako San Martin eguna ospatuko dute domekan Goierri auzoan dagoen ermitan

Urtero legez, uztalako lehen domekan ospatuko dute San Martin eguna Goierri auzoan dagoen ermitan. Meza esango dute lehenengo (12:30) eta ondoren mokadutxo eskainiko die Udalak elkar-tutakoei. Ohitura da mokadutxo jan bitartean gizonek dokean jokatzea ermita aurrean. Urte batuetan ez dute halakorik egin baina jokatzen dakitenak elkartuz gero aukera izango dute.

&gt; IRTEERA

## San Millan de la Cogolla eta inguruak ezagutzera egun-pasa doaz gaur Toki Ederreko erretiratuak

Egun-pasa doaz gaur, hilak 3, Toki Eder elkarteko erretiratuak Errioxa aldera. 26 lagunek eman dute izena eta autobus txikian joango dira, irteera guztietan egiten duten legez. San Millan de la Cogolla herri entzutetsua bisitatuko dute lehenengo, eta bertan dagoen Yuso monasterioa ikusteko asmoa daukate gatzagarrek. Baskaltzera, osteria, Castañares herriko Casa Palomo jatetxera joango dira, eta arratsaldean etxerako bidea hartuko dute.



Dorleta Bibreixon jaialdia ospatuko duten ingurua, ermita atzean dagoela.

GOIENKARIA



TXIRRINDULARI BATZORDEA

## Txirrindulari lasterketa domekan

31. Dorletako Ama txirrindulari lasterketa jokatuko dute etzi, domeka. 23 urtez azpiko eta elite mailako txirrindulariek 115 kilometro egingo dituzte; aurten, baina, ibilbidea aldatu diete: 10:00etan irten eta Arrasatera joango dira lehenengo; autobidera sartzeko biribilgunean buelta hartu eta, Gatzagatik gora, Legutioraino (Araba). Kurtzetako mendatetik Aramaiora jaitsiko dira eta Gatzagara egingo dute berriro; ondoren, beste itzuli bat egingo dute Arrasateraino, eta Gatzagako helmugan izango dira 12:40 inguruan.

JAIALDIA &gt; DORLETA BIBREIXON

# Dorletak duen magia eta erritmo lasaiak, uztartuta

Bihar gauean da Dorleta Bibreixon jaialdia; eguraldi eskasa eginez gero, bertan behera utz dezaketela jaia jakinarazi dute antolatzaleek

MIRARI ALTUBE &gt; LEINTZ GATZAGA

Herritar talde batek antolatu du Dorleta Bibreixon jaialdia eta bihar izango da Dorleta inguruan: "Dorletak magia berezia dauka eta, hilaren 7an ilbete izango dela jakinik, ilargia oso polita egongo da", jakinarazi digute antolatzaleek. Etxetik jatekoa eroaten dute-nek mahaiak izango dituzte bertan afaltzeko eta taberna txiki bat ere egongo da. Eguraldi onik ez dago iragarrita biharko, hortaz, zera diote antolatzaleek: "Eguraldi benetan kaskarra badago bertan behera utzik dugu jaialdia".

ERRITMO NAHASTEA

Hainbat eratako erritmoak lantzen dituzten taldeak izango dira, "era ezberdinakoa, baina guztiak lasai antzekoak" antolatzai-leen esanetan. Eta guztiak Euskal Herrian egindakoak: "La Pulguilla emakume gasteiztarra izugarria da flamenko dantzak", dio-te. Arrasateko Ain1 taldeko neskek, osteria, musika, poesia eta dantza bateratuko dituzte. Eta Hendaia Soon Comek reggaea ekarriko du. Durangon bizi den Mongok, osteria, bluesa du iturri nagusia, nahiz eta estilo ezberdi-

## Egitaraua

**SAN MIGEL PLAZAN**  
(19:00-20:00)  
Ain1 eta La Pulguilla

**DORLETAN (22:30)**  
Ain1 > Arrasate > Musika, poesia eta dantza.  
La Pulguilla eta lagunak > Gasteiz > flamenko.  
Soon Come > Hendaia > Reggaea.  
Mongo > Durango > Soula, jazz eta bluesa.  
DJ Esther

netako kantak egin; gainera, gehienak, euskaraz. Kontzertuen ostean Esther diskos jartzaileak jai giroa luzatuko du.

## Bernardo Atxagaren 'Zazpi etxe Frantzian' nobela berria sinatuta nahi?

Egin zaitez harpidedun eta hartu parte hileroko zozketetan. Uztaileko zozketan liburu sinatua jasotzeko aukera izango duzu.

Harpidedun egiteko:

943 08 10 50

harpidetza@goiena.com

Kuota: 20 euro

ASTELEHENENKO  
**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa



PAMIOLA

Yago Goronaeta > Ekon taldeko kidea

# "Kontzertuetan herritarrak ikustea asko poztu nau"

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO  
2003an agur esan arren, Ekon taldea taula gainera itzuli da. Arrasateko taldea da, baina aramaioar bat ere bada tartean: Yago Goronaeta Ekon taldeko gitarra-jotzailea da;

bada, zapatuan Arrasaten eman zuten kontzertuaren aurretik harenkin izan ginen.

Ekon taldeak Aramaion ere jarraitzaile asko ditu, ezta?

Nik uste dut baietz. Gainera, azken kontzertuetara aramaioar asko etorri da. Hatortxu Rocken eta Kobetasoniken herritarrak ikusi nituen eta horrek asko poztu ninduen.

Maiatzean hasi zenuten itzulerako bira. Bainha bira horretan, oraingoz behintzat, ez da Aramaio sartzen. Gurako zenuke zure herrian bertan kontzertua eman?

Bai. Ondo egongo litzateke hori. Gainera, modu horretan, herritar guztiak egiten dugun lana ezagutzeko aukera izango lukete.

Zer moduz doa bira?

Esan bezala, maiatzean hasi genuen. Lehenengo kontzertua Etxarriko gaztetxean eman genuen; guretako proba moduko bat izan zen hora. Gero, Bilboko



Yago Goronaeta.

Kafe Antzokian izan ginen. Oso urduri geunden kontzertu hartrako, baina dena oso ondo joan zen eta iusleak ere pozik geratu ziren. Hatortxun eta Kobetasoniken ere lan ona egin dugula uste dut.

**Nola hartu dute Ekonen itzuleria jarraitzaileek?**

Oso pozik gaude alde horretatik. Azken bi jaialdieta, esaterako, jende bat bereziki Ekon ikustera joan zen; batzuk, gainera, beharbada Ekon sekula iku-si gabekoak. Uste dut gure kontzertuak mito edo kondaira ere bilakatu direla, eta jendeak hori zuzenean ikusteko gogoa zeukan.

**San Martin jaiak datoz orain...**

Bai. Ezin izango ditut asko disfrutatu, baina zapatu gaeane, behintzat, bueltatxo bat emateko asmoa bauakat.

AUZOLANAK > ANDRAMARI ERMITA

## Bukatu dira ermita inguruko auzolanak

LEIRE KORTABARRIA > ARAMAIO  
Aramaioko Ondarea Berreskura-tzeko Taldeak zapatuan bukatu zituen Andramari ermitako eskailerak konpontzeko eta inguruak txukuntzeko auzolanak. Bi aste bukaeratan egin dituzte, eta bigarren horretan, batez ere, ermitako bide izkinatzen jausitako lurra kendu zuten. Taldeko ekinera, taldeko kide ez diren beste herritar batzuek ere parte hartu zuten.

Goiz osoan eta arratsalde hasieran -09:00etik 15:30era- ibili ziren jo eta su; inguruak "kurioso" utzita, gustura geratu eta Mari-xekara joan ziren bantzera.

**IRAILERA ARTE**  
Orain, deskantsatu egingo dute, eta irailean Ametzura bidea konpontzeko lanak hasi nahi dituzte. Oraingoan egin nahi zuten, baina nahikoan lan izan dute ermitako eskailerekin.



Andramari ermita inguruko eskailerak garbitzen.

> KULTURA

## Euskara ikastaroetan parte hartzeko izena eman daiteke oraindik

Udaleko Euskara batzordeak euskara ikastaroak antolatuko dituela iragarri zuen orain dela aste batzuk. Adierazi dute pozik daudela deialdiak izan duen erantzunarekin eta herritar askok erakutsi dutela ikastaroetan parte hartzeko interesa. Hori horrela, erabaki dute izena emateko epea luzatzea. Irailean hasiko dira taldeak antolatzen eta izena emandako pertsonen profilak aztertzen. Beraz, ordura arte ikastaroetan izena emateko aukera egongo da.



**"Aramaioko Udalbatzak  
Jai zoriontsuak  
opa dizkizue  
aramaioar guztioi,  
eta bereziki etxetik  
kanpo zaudentenoi!"**



Bizente Goikoetxea plaza 1 • ARAMAIO • Tel.: 945 44 50 16  
• E-posta: [udala@aramaio.org](mailto:udala@aramaio.org)



**agurra**

Aixer Agirre &gt; Alkatea

Ondo pasa eta gozatu!

**S**an Juanak pasa dira; sua piztu eta urte osoko gauza txarrak sutan erre ondoren, heldu dira San Martinak. Egun oparoak heldu dira, eguraldia lagun, lana alde batera utzi eta ospa ditzagun jaiak!

Antolaketan ibili direnei eskerrak eman beharrean gaude. Egitarua eskuian, kontzertuak, dantzaldiak, bertsolariak, herri kirolak, eta bestelakoak zuen gustoko izatea espero dugu. Bestalde, merezimendu osoz orain 30 urte Munduko Kopara joan zen Aramaioxoko Sokatira taldeari eskerrak eman nahi dio Udalak, Aramaixoko izena mundura zabaltzeagatik. Jaiak bi asteburutan luzatu ditugu; hala, bertso afaria eta pilota partiduak bigarren asteburua osatuko dute.

MUSIKA &gt; PANTXOA ETA PEIO

# "Disko berrian sartuko ditugun abestiekin gatoz"

Pantxoa eta Peiok zapatuan egingo dute emanaldia Aramaion bihar (23:00)

Irailean zuzeneko grabatuko dute, eta disco horretako abestiak abestuko dituzte

**XABIER URTZELAI > ARAMAIO**  
Pantxoa eta Peiok aurreko urteotan baino kontzertu gutxiago emango dituzte aurtengo udan, irailaren 11n eta 12an Tolosan grabatuko duten zuzeneko kontzerturako prestatzen dabilzeta. Hala ere, bihar Aramaion egingo dute emanaldia, eta Peiok GOIENKARIARI aurreratu dio disco berriko kantutegiarekin etorriko direla Aramaiora: "Aurten Pantxoak eta biok 40 urte betetzen ditugu kantagintza eta urtemuga hori herriarekin ospatu nahi dugu, disco berri batetik. Hala, disco berri horretan abesti esanguratsueta koak sartuko ditugu".

#### ABESTI EZAGUNAK


Iraileko zuzeneko horri begira, udako emanaldietan disco berrian sartuko dituzten abestiak joko dituzte: "Ez dugu esango udako kontzertuak entrenamendu modura erabiliko ditugunik, kontzertua kontzertua delako,

eta horregatik egiten ditugulako entseguak. Baino zuzenekoari begira ikusleekin-eta trebatzeko ondo etorriko zaizkigu emanaldi hauek, bai". Zein abesti joko dituzten aurreratu barik, guztiongandik aski ezagunak diren *Lepoan hartu ta segi aurrera, Itziarren semea, Urtxintxak, Azken dantza hau eta Bai euskal rari* aukeratutakoak artean egongo dira, seguruenik.

Disko berriaren gainean galdetuta, Peiok aurreratu du abesti klasikoak izan arren, moldaketa modernoak izango dituztela: "Abestiek bere horretan jarraituko dute, baina ukitu modernoak izango dituzte, molaketa txikiak".

#### GAUR, ROCK KONTZERTUA

Pantxoa eta Peioren emanaldiak musika lasaia atsegin dutenak aseko ditu, baina gazteak gaur ibiliko dira gustura, rock kontzertuan. Gaurko izarra Inglaterra-ko Cockney Rejects taldea izan-



Peio Ospital (Ezpeleta, 1948), Debagoienean egindako azken emanaldian.

J.A.

go da. 70eko hamarkada bukaeran sortua, punkari bestelako ñabardurak gehitu zizkioten; eta, are gehiago, kaleko hizkuntza eta langileen arazoak gehitu zizkieten kantuei. Hala, punk-oi! eszenako talde garrantzitsuenerikoa bilakatu zen.

Gerora, sasoi baten, ulerteziña izan zen erabaki bategatik hard-rockera hurbildu ziren arren, betiko punk-oi! estilora bueltatu ziren aspaldi, eta ordutik hona ez dute hori utzi.

Kanpoko talde horrekin batera joko dute Arrasateko Dirty Akoustik Brothers -gitarra akustikoz lagunduta punk-oi! musikaren bertsio klasikoak egiten dituzte- eta The Butxers taldeek. Gorroto talde aramaioarrak ez du joko azkenean.

Rock kontzertua, baina, ez da egubakoitzera mugatuko, zapatuan ere emanaldia izango da-eta, 20:00etan hasita. Kontzertu horretan Krisis, Residuos eta Deception Rock taldeek joko dute.

**dukiena**  
JATETXEA

Azkoaga auzoa. Tel.: 945 44 50 86  
ARAMAIO



**Iturrieta** Sagardotegia



Astelehenetan itxita

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Bertako sagardoa  
Hamarretakoak (astebukaeretan)  
Plater konbinatuak  
Menu bereziak

ITURRIETA BASERRIA - ARAMAIO (ARABA) TI: 945 445 385 - 685721593



Nekazalturismoa

Bost logela kounarekin • Afariak  
Internet WI-FI sistemarekin

**UXARTE**

Untzilla (Aramaio)  
Tel.: 945 44 51 46 • Faxa: 945 44 59 10  
www.uxarte.net • uxarte@euskalnet.net

## jaietako egitaraua

### BARIKUA, 3

19:00 Txupinazue (azkeneko urtietako arrakastie ikuizte, San Ferminetako jende kopurue gainditzeko intentue egindo da).  
19:10 Bertso triki poteue (Gazte asanblada). Trikitilarixen kalejira (Trikitixa eskola). Herriko buruhaundixek. Herriko txistularixek.  
20:30 Papagorri eskolaniaren emanaldixe kultura etxien  
23:00 Rock Kontzertue: The Butxers, Dirty akoustik brothers eta Cocney Rejects.  
23:30 Luhartz taldiekin erromerixie plazan.  
00:00 Droga testinga.

### ZAPATUA, 4

12:30 Umiendako ekintzak: Geppetoren tailerra.  
12:30 Txarangie.  
12:30 Tortilla txapelketa.  
17:00 Tiro plato txapelketie.  
17:00 Briska/Mus txapelketie.  
18:00 Txirritolinpiadak.  
20:00 Kale animaziñue. Bapatean taldearen zirko magikoa.  
20:00 Rock kontzertuek: Krisis, Residuos, Deception Rock.  
23:00 Pantxo eta Peio.  
00:00 Alkohol testinga.  
04:15 Aobete taldiek bisita gidatue egingo dau herriko itxurriek erakusteko. Irteera puntu: Ipitzikarriko eskumaldien dauen arbolie.

### DOMEKA, 5

10:00 Herriko txistularixekin dianak.  
12:00 Meza.

13:00 Herriko dantzarixekin emanaldixe. (urretik makillaje ikastarue egongo da, begizuluak eta tapeten ikesteko).

16:30 Jolas parkie, parkien.

18:00: Herri kirolak plazan (Baten batek mueble zaharren bat badauko etxien, ekarri daixela, aizkolarixek beso zabalik hartuko daue).

19:30 Dantzarixen topaketa: Hegoamerika, Portugal, eta Igorreko dantza taldiek.

22:30 Bertso monologuek, elizako eskaileretan.

22:30 DJ-a plazan.

### ASTELEHENA, 6

11:30 Ume jolasak.  
13:00 Txan magoa, plazan.  
16:30 Koadrilen arteko pikie (COBRA team, SWAT eta Aramaioko udaltzainen Akademia Ofiziala arduratuko die segurtasunaz, animuek beroketan hasten badie).  
19:00 Arrasate musikalen kontzertue kultura etxien.  
21:30 Herri afarixe. Afalostien: zaparra Batukada Taldie.  
01:00 DJ Txosnetan.  
07:23 Ogezozietz? kepringau! plataforman ekitaldi politikue.

### BARIKUA, 10

20:00 Bersto poteue.  
21:30 Bertso afarixe: Sebastian Lizaso, Amaia Agirre eta Manex Agirre. Gai jartzalea: Lierni Altuna.

### ZAPATUA, 11

Arrantza txapelketa (ordua zehazteke). Pelota partiduek (ordua zehazteke).



Koadrilen arteko pikie-n barruan, aramaioarrak proba arrakastatsuenean, Katxitolduen.

GOENKARIA

### JAIAK > 'KOADRILEN ARTEKO PIKIE'

# "Katxitoldue da 'Koadrilen arteko pikie'-n proba arrakastatsuena"

Astelehenean, 16:30ean batuko dira Aramaioko koadrilak jokoetan trebeena nor den erakusteko

XABIER URTZELAI > ARAMAIO  
Debagoieneko gainontzeko herriean ezezaguna izango da, baina Aramaion Katxitoldue jokoak sekulako arrakasta izaten du. Eta, astelehenean ere makinak bat lagun gerturatuko da proba hori jarraitzen eta, bide batez, gazteen kontura barre gustura egitera: "Zartada ederrak hartzen dituzte eta arrakasta handien duen jokoa da", adierazi du Kultura teknikari Ainara Inuntziagak. Katxitolduen indarrak

batzuk, bai koadriletan kideak jolasean, eta baita ikusle moduan gerturatuko direnak ere.

### SOKATIRAKOEI OMENALDIA

Iazko txupinazioak arrakasta izan zuen, bertso eskolakoei omenaldia egin zielako, batetik, eta sorpresaren bat edo beste egon zelako, bestetik. Aurten, jai egitarauan aurreratu dute San Ferminetan egoten den giroa ezerezan utzi gura dutela. Hala, orain dela 30 urte munduko sokatira txapelketan parte hartu zuten aramaioarrak omenduko dituzte, eta ez dakigu aurten ere sorpresak egongo ote den...

## Unzueta sagardotegia

### Ondo pasa jaixak!

sagardoa txotxetik

•

sagardotegiko menua

•

karta

eguneko menua

•

ospakizunak

•

enpresako bazkaria

Zabola z/g. Aramaio Tel.: 945 44 50 95



**BEHI-ALDE**  
**ERKOP**

**BEHI-ALDE, KOOP. E.**  
Olaeta-Aramaio (Araba)  
**Zuzenbide postala**  
Apartado 44  
20500 Mondragon



Tel.: 945 45 01 00  
945 45 03 15  
Faxa: 945 45 01 00  
945 45 03 15

**ITURRIOSTE**  
**GARAJE A**

Nekazaritza makinen eta autoen  
salmenta eta konponketa.

Olio, gurpil eta balazten konponketa

**Ondo ibili jaixetan!!**

Santi Kurtz plaza 14.  
Tel.: 945 44 51 28. ARAMAIO

ZIKLISMOA > DORLETAKO AMAKO 31. TXIRRINDULARITZA LASTERKETA

# Ziklismoz betetako uztailean, lehenengo hitzordua Gatzagan

Domekan, 23 urtez azpiko eta elite mailako ziklistak lehiatuko dira Gatzagan, 10:00etan

Datorren astean Antzuolak hartuko du errelebua eta hilaren 19an, Elgetak

X.U. > BERGARA  
Ziklismozaleek Frantziako Tourrari begira egingo dute uztaila, baina gurean ere izango dira ziklista amateurrek gertu-gertutik jarraitzeko hitzorduak. Izan ere, domekan bertan egingo dute Gatzagan Dorletako Amako 31. lasterketa. Hurrengo asteburuan, berriz, Antzuolak hartuko du errelebua eta uztailaren 18 eta 19ko asteburuan egingo dute Elgetako mendiko kriteriuma.

Domekako lasterketak (10:00) 23 urtez azpiko eta elite mailako puntako ziklistak batuko ditu.



Iaz Azpiruko mutilek hainbat erakustaldi eman zituzten; Gatzagan Pablo Hernan izan zen azkarrena, taldekideen baimenaz. x.u.

Iaz 92 lasterkari izan ziren Gatzaganeko irteera puntuari, eta domekarako ez dituzte gutxiago espero: "Gatzagako lasterketak Bizkaiko Birarekin bat egingo du, baina, hala ere, ziklista asko espero ditugu gurean", adierazi du Alberto Altubek. Izan ere, antolatzaileek ondo ikasi dute herriko lasterketa uztailean egin behar dutela, eta

ez irailean, herriko jaietan: "Irailean egin genuen urtean 23 ziklista azaldu ziren probara, ordurako txirrindulariak nekatuta egoten dira, ilusio barik".

#### IBILBIDEAN ALDAKETAK

Gatzagako lasterketak (115 km) aldaketa nabarmena izango du aurren. Gatzagara egin beharre-

ko lehenengoigoeraren ondoren Elorregiraino (San Prudentzio) jaisten ziren berriro ere. Aurten, berriz, Gatzagatik Legutiora (11:00) joango dira, handik Kurtzetara, Aramaiora (11:19) jaitsi eta Arrasatetik Gatzagarantz (11:45) berriz ere, bigarrenigoera egiteko; oraindik beste igorera bat geratuko zaie (12:40).



## ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.  
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!  
**Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.**



BERMEO  
2  
URTE

1200 b/min  
8 Kg

A+ Sailkapen energetikoa  
GARBIGAILUA F-2812

**470 € FAGOR**



BERMEO  
2  
URTE

1000 b/min  
8 Kg

A+ Sailkapen energetikoa  
GARBIGAILUA F-2810

**445 € FAGOR**



BERMEO  
2  
URTE

1000 b/min  
6 Kg

A+ Sailkapen energetikoa  
GARBIGAILUA WAE-2006-2EE

**310 € BOSCH**



BERMEO  
2  
URTE

170  
x  
60  
x  
60

A+ Sailkapen energetikoa  
HOZKAILUA 4F-0141

**335 € LYNX**



BERMEO  
2  
URTE

185  
x  
60  
x  
60

A+ Sailkapen energetikoa  
HOZKAILUA 3FC67NFX (NO FROST)

**649 € FAGOR**



Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen batzuk besteko energia kontsumoaren araberako energia aurreztea.



#### Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperativistendako prezio bereziak.

Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik. Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

## PILOTA

### Mendizabal, eskopeta irabazteko gertu

X.U. > BERGARA

Elgetako Lau t'erdiko ETB Kantxa sariko finalak jokatuko dituzte gaur (22:00), eta Aitor Mendizabal da finalistetako bat. Antzuolakoak Azpeitiko Larrañaga kanporatu zuen joan den asteko finalerdian, eta Ricoren kontra neurruko ditu indarrak gaur gauean.

Eskuko arazoak erabat ahaztuta, Mendizabalek iaz finalean egon ez izanaren errebantxa hartu gurako du gaur: "Finalean txapela eta eskopeta irabazteko asmoz irtengo naiz", adierazi du Asteleheneko Goienkaria-n. Ez du bide makala egin finalera iris-teko, Lintzoain, Jaunarena eta Larrañaga utzi ditu-eta kanpoan.

#### KADETE MAILAKOA

23 urtez azpikoen finala baino lehenago jokatuko dute Elezkano II.ak eta Jakak kade-te mailako finala, 22:00etan. Eta ondoren hasiko da Mendizabalen eta Ricoren arteko lehia.



> LEHIAKETA  
Udako argazkien lehiaketaren V. ekitaldia deitu du Goienak > 38



> DANTZA  
Brisa de Portmany eta Lore Gazteak zaoatuan Monterronen > 39

> OLATZ  
BIDELUZE  
Txikitatik gustatu izan zaizkio Olatzi kirolak eta gehien, futbola. Soraluzeko taldean dihardu. Arkitekto teknikoa da eta Eibarren dabil lanean > 42



# 'El clan del oso cavernario'-ren idazlea, Lezetxikin

Jean M. Auel idazle ezaguna Arrasateko kobatan izan zen eguaztenean, neanderthalei buruzko azken liburua prestatzen dabilela

Arrasatekoaz gain, Ekaingoa eta Spainia eta Portugalgo hainbat haitzulo bisitatzen ibili da azken hamaika egunotan idazle estatubatuarrar

**IKER BARANDIARAN > ARRASATE**  
Ezohiko bisita izan zuten atzo Lezetxikiko koban indusketa lanak egiten dabiltzan arkeologoek. AEBetako Jean M. Auel idazlea izan zen han, haren zazpigaren eleberriirako inspira-

zio bila dabil-eta. Auelek *Los hijos de la tierra* leloa daukan bilduma egiten dihardu, *El clan del oso cavernario* liburuarekin hasi zueña. Milioika liburu saldu ditu dagoeneko.

Lezetxiki bisitatu ostean, hedabideekin hitzordua egin zuen Garagartzako plazan. Lezetxikiko indusketen arduradun Alvaro Arrizabalaga eta antropologia aditu Leonard Strauss izan zituen alboan. Auel oso atsegina izan zen hedabideekin, eta umore oso onez erantzun zituen egindako galderak.

#### KOBAK IKUSTEKO TURISMOA

Azken 11 egunotan iberiar penintsula zeharkatzen dihardu Auelek haren lagunekin batera. Asturias, Granada, Malaga, Gibraltar eta Algecirasen izan dira, bestek bestetik; betiere, kobak ikusten. Bitxikeri moduan, aipatu zuen Gibraltarko kobak itsaslabarretan zeudela eta haien ikusteko txalupa txiki baten ibili zirela. Kontuan hartuta, Auelek 73 urte dituela eta makila baten laguntzarekin ibiltzen dela, umorea eta sasoia ez zaizkio falta, gustura dabil-eta.

*Los hijos de la tierra* bildumari bukaera emango dion liburua iberiar penintsulako kobetan oinarritu gura du, eta horregatik joan zen Lezetxiki ikustera. "Arrasateko ingurueta koek ez dakizue zen daukazuen. Hangoak dira aurkitu diren azken neanderthal aztarnak, eta inguruko mendarldea ikaragarria da. Neuk AEBetan izan nuen Lezetxikiren berri eta izugarri gustatu zait", azaldu zigun Auelek.

#### BISITARI ILUSTREAK

Garagartzan jende gutxi zegoen eguazten arratsaldean eta bisita iragarri barik zegoen, baina, hala ere, ustekabeen zaleren batek *El clan del oso cavernario* liburua sinatzeko eskatu zion, eta gustura hartu zuen eskaera best-sellerren idazleak.

Udaleko ordezkariek, berriz, Arrasateko ilustreen liburuan sinatzeko gonbidapena egin zioten Jean M. Aueli. Amerikarrik Arrasate bisitatzeaz harro zegoeila aitortu eta haren hitzak liburuan gelditu ziren gordeta. Are gehiago, Oihana Aranburu zinetegiak *Arrasate Iruditian* liburua oparitu zion idazleari.


MILIOIKA LIBURU SALTZEN DITUEN IDAZLEA

## Bildumako azken liburuarendako ideia bila eterri da Arrasatera

Jean M. Auel izena inork gutxik ezagutuko du, baina *El clan del oso cavernario*, *El valle de los caballos*, *Los cazadores de mamuts* eta beste hainbat libururen egilea dela esaten badugu, askok izango dute horietakoaren bat etxeen.

Chicago emakume honek bost seme-alaba hazi ostean ikasten hasi eta antropologian zaletu zen. Halako baten, Ayla pertsonaia asmatu zuen, eta berarekin *El clan del oso cavernario* liburua argitaratu zuen 1980an, best-sellerra bilhurtu zena.

Horren ostean, beste liburu batzuk eterri ziren, eta epe laburrean bildumako seigarrena izango da kalean. Une horretan, Auel zapigarrer-



Auelen lehenengo liburua.

na prestatzen dabil, neanderthalen amaiera kontatuko duena. Bilduma itxiko duena izango dela esan digu, eta iberiar penintsulako haitzuloetan kokatuta egongo dela. Horren ostean, idazteari utzik dion galdetu genion; baina berak, barrezka: "Aizu, 73 urte dauzkat, eta badut atsedena hartzeko premia" esan ostean, onartu zigun segureuenik bestelako libururen bat idatziko duela.

#### NEANDERTHALETAZ IKASI

Ikerketa horiek guztiek zer eman dioten galdetzean, zera esan zigun: "Neanderthalek ez zeukanen ia ezer, baina elkarri zaintzen zuten; berengandik asko ikas dezakegu".



Jean M. Auel, Alvaro Arrizabalaga eta Lawrence Strauss lamiarekin. I.BARANDIARAN



Auel Arrasateko Udalaren bisitari ilustreen liburuan sinatzen. I.B.



Zaleren bat gerturatzen liburua sinatzea eskatzeko. I.B.



Landetan, Arcachongo duna batean, lagunekin.

OLATZ GERRIKAGOITIA



Dordoña, iazko abuztuan. E. NARBAIZA

GOIENA &gt; ARGAZKI LEHIAKETA

# Abian Goienaren Udako Argazkien V. Lehiaketa

Dagoeneko has daiteke argazkiak bidaltzen, irailaren 18ra arte. Hiru sari daude eta irabazleak urriaren 5ean emango dira jakitera

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA  
Udako Argazkien Lehiaketa deitu du Goienak bosgarrenez. Debagoiendarrendako lehiaketa da eta dagoeneko has daiteke argazkiak bidaltzen. Hain justu, irailaren 18ra arteko epea dago argazkiak aurkezteko.

Baldintza nagusia da udako argazkiak izatea, uda honetan ateratakoak edo beste uda bate-

koak, eta beste inon argitaratu gabeak izatea. Bestalde, partehartzaile bakoitzak gehienez bost argazki bidali ahal izango ditu, eta bakoitzaren erreferentzia ere bidaliko du (non eta noiz ateratako den eta komentario laburra).

**ARGAZKIAK IKUSGAI**  
Argazkiak astero argitaratuko dira uztailaren 13an hasi eta iraila-

## PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

### > NORENDAKO

Debagoieneko edozeinek har dezake parte, ez dago adin mugarik.

### > DOAN

Parte hartzeko ez da ezer ordaindu behar izango.

### > UDAKOAK

Udako argakiak izan beharko dira. Izan daitezke aurtengo udakoak zein beste urte batekoak.

### > ARGITARAGABEAK

Argazkiak beste inon argitaragabeak izan beharko dira, eta zuri-beltzean zein koloretan izan daitezke.

### > AURKEZTEKO MODUA

Argazkiak aurkez daitezke paperean zein digitalizatuta. Digitalizatuta izanez gero, paperean errepruduzitzeko moduko bereizmen eta kalitatearekin.

### > NON AURKEZTU

Argazkiak bidali ahal izango dira e-postaz [argazkiak@goiena.com](mailto:argazkiak@goiena.com) helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri: Arrasate, Bergara zein Aretxabaletakora.

Egoitzara eramatekotan, aurkezta beharko dira kartazal batean, cd batean, edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta jpg formatuan.

Argazkiarekin batera adierazi beharko dira: egilearen izen-abizenak, adina, harremanetarako telefono zenbakia eta argazkiaren erreferentzia (noiz eta non ateratako den, zer edo nortzuk agertzen diren, edo beste komentario laburren bat).

Gehienez bost argazki aurkezta ahal izango dira.

### > BALORATUKO DA

Epaimeahaiko kideek baloratuko dute argazkiaren kalitatea, originaltasuna eta balore historikoa.

Irabazleen izena emango da jakitera urriaren 5eko *Asteleheneko Goienkaria-n*.

ren 28ra bitartean *Asteleheneko Goienkaria-n* eta *Goiena.net* webgunean sortutako foto-blogean. GOITBn ere emango dira.

### SARIAK

Hiru sari banatuko dira: lehena, Olympus E-420 reflex argazki kamera digitala; bigarrena, asteburuko egonaldia bi lagunendako Treceñoko (Cantabriako) Palacio

de Guevara hotelean eta hirugarrena, bazkari edo afaria Gatzagako Gure Ametsa jatetxeen.

Epaimahaia osatuko dute Goienako kideek eta argazkilari profesionalek eta baloratuko dute argazkiaren kalitatea, originaltasuna eta balore historikoa.

Irabazleen izena emango da jakitera urriaren 5eko *Asteleheneko Goienkaria-n*.

## Gure MERKEALDIA, 150 geltoki, erosotasun guztiekin. Eta gure zerbitzu guztiak, zure esanetara

EL BOULEVARD  
MERKEALDIA →

Uztailaren 1etik 18ra eraman  
gure zuzeneko 1.500 sarietako  
bat eta parte hartu  
**Punta Canarako** bidaia  
baten zozketan

Erosotasunez beterik **ZUTAZ** beterik.

el Boulevard  
de Vitoria-Gasteiz

[www.el-boulevard.com](http://www.el-boulevard.com)  
Bezeroarenaganako Arreta: 945 155 440

Familia komunak • Edoskitze-gela • Aulkien mailegua • Atseden-guneak • Haurrentzako parkea eta olgetarako gunea • Identifikazio eskumuturrekoia • Informazioa • Telefono publikoak • Iradokizunetarako postontzia • Kuxazaín automatikoak • Posta zerbitzua • Parafarmazia • Doñeko aparkaleku • Mugikortasun murriztua dutenentzako aparkaleku • Sarrera salmenta • Wi-fi konexioa • Taxietarako dejak • Loteria salmenta • ONCE kupoen salmenta • Web orria • Oinetako eta arroparen konponketak • Giltzetako kopía • Autocenter • Gasolindegia • Autogarbiketa • Konpost egiteko planta

OSPAKIZUNA &gt; XIX. ERROZIOKO ERROMERIA

# Etzi, Errozioko erromeria egingo dute Arrasaten

Al-Andalus elkartekoak antolatutako festa Arruena parkean egingo dute; sevillanak dantzatu eta Andaluziako jakiak dastatzeko aukera izango dute

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE  
Arrasateko Al-Andalus elkartekoek Errozioko erromeria egingo dute domekan. Urtero moduan, uzaileko lehen domekan elkartuko dira Zigarrolako Arruena parkean. Al-Andalus elkartekoek egitaraua zabala pres-tatu dute andaluzairendako horren garrantzitsua den jaia ospatzeko. Domezakoa 19. ekitaldia izango da, eta, beraz, ia bi hamarkada egingo dituzte euren ohiturak eta ereduak Arrasaten ezagutarazten.

ANDALUZIAKO JAKIAK  
Errozioaren Erromerian parte hartuko duten guztiak Al-Andaluziako jakiak dantzatzeko aukera izango dute Zigarrolako Arruena parkean. Al-Andalus elkartekoek egitaraua zabala pres-tatu dute andaluzairendako horren garrantzitsua den jaia ospatzeko. Domezakoa 19. ekitaldia izango da, eta, beraz, ia bi hamarkada egingo dituzte euren ohiturak eta ereduak Arrasaten ezagutarazten.

## Egitaraua

- 09:30** Andaluziako etxeee harrera eta gosaria.
- 11:15** Agur Erregina Errozioko salbea abestuko dute.
- 11:30** Errozioko Ama Birjina aterako dute elkartetik.
- 12:00** Lore eskaintza.
- 12:30** Meza nagusia Santa Teresa elizan.
- 13:30** Zaldiak hartuta Arruena parkerako bidea egingo dute. Alegria de la Sierra taldeak abestuko du.
- 19:00** Agur Erregina Errozioko salbea abestuko dute Ama Birjina agurtzeko.
- 19:30** Erromeria bukatuko dute.



Bazkaldu ondoren, sevillanak dantatzeko aukera izango dute Zigarrolako Arruena parkean.

GOIENKARIA

lus elkartean bilduko dira 09:30ean. Euskal Herri osotik joandako Andaluziako etxetako kideei harrera egingo diente, eta, bapo gosaldu ondoren, Al-Andalus abesbatzak Agur Erregina Errozioko salbea abestuko du. 11:30ean, Errozioko Ama Birjinaren irudia aterako dute elkartetik. Kantuen artean lore eskain-tza egingo diote Ama Birjinari. 12:30ean, Pedro L. Uranga abade-

ak meza esango du Santa Teresa elizan, eta Sueño de Aldalucía tal-deak dantza batzuk eskainiko ditu. Mezaren ondoren, eliza kanpoan egongo diren zaldiak har-tu, eta Arruena parkerako bidea egingo dute guztiak, Alegria de la Sierra musika taldearen lagun-tzarekin.

Orduan hasiko dute festa Arruena parkean, Eroski ondoan. Sevillanak dantzatu eta Anda-

luziako jaki tipikoak dastatu ahal izango dituzte. 19:00etan, Al-Andalus abesbatzak Agur Erregina Errozioko salbea abestuko dute Ama Birjina agurtzeko.

Errozioko erromerian parte hartuko dutenei Errozioko arropak jantzita eroatea aholkatzen diete antolatzaleek. Bestalde, diote ez dituztela euren gain har-tuko domekan gerta daitezkeen ezbeharrak.

DANTZA &gt; MONTERRON PARKEAN

# Brisa de Portmany taldearen dantza ikuskizuna Arrasaten

Eivissako taldeak Lore Gazteak taldearen eta txistularien eta gitarrien laguntza izango du

M.B. > ARRASATE  
Arrasateko Kultura zerbitzuak udarako gertatu duen egitarauaren lehen ekitaldia biharko dantza ikuskizuna izango da. Hain zuzen ere, Eivissako (Ibiza) Brisa de Portmany eta Arrasateko Lore Gazteak taldeek dantza emanaldia egingo dute Monterron parkean, 22:30ean. Era berean, Arrasateko txistulariek eta gai-

tarieki partaideak dantza emanaldian. Sarrera doan da. Eguraldi txarra egiten badu, emanaldia Amaia antzokian egingo dute.

HILAREN 24TIK 26RA EIVISSARA  
Lehen saioaren ondoren, Eivissako Brisa de Portmany taldeak 45 minuto inguruko saioa egingo du. Ondoren, Lore Gazteak taldekoak igoko dira oholtza

gainera. Umeek txantxoak eta banakoa egingo dituzte eta gazteek sorgin-dantza eta sagar-dan-tza. Biek ala biek, Arrasateko txistulariekin.


Ondoren, Lore Gazteak taldeko nagusiek egingo dute emanaldia. Monteagudo izeneko dantza nafarra egingo dute Arrasateko gitarriren laguntzarekin.

Hilaren 24tik 26ra Lore Gazteak taldeko partaideak, Arrasateko txistulariek eta gitarriekin batera Eivissara joango dira emanaldia egitera.



Eivissako (Ibiza) Brisa de Portmany taldea.

GOIENKARIA



MIREIA BIKUÑA

## Homofobiari buruzko erakusketa

Euskal Herriko Gay eta Lesbianen Askapenerako Mugimendua (EHGAM) antolatuta, Homofobiaren aurpegiak delako erakusketa ikusgai dago Oñatiako kultura etxearen. Hain zuzen ere, hilaren 11rte, egunero zabalduko dute 18:00etatik 20:00etara. Homofobiari buruzko askotariko informazioa ikus daiteke.

**1/ ETXEBIZITZAK****101. SALDU**

**Aramaio.** Iaz 423.000 euroan tasatutako etxeak, lorategiaren, orain 300.000 euroan salgai. 625 13 12 59.

**Arrasate.** 65 metro koadroko etxe berriut, 3 logela (1 janitzia), egonela, sukaldejantzia eta bainugela. Oso argitsua, dena kampokaldera begira, biziñeria sartzeo prest. Oso ondo kokatua, Nafarroa etorbiean. Prezio ezinhobea: 165.278 euro (275 milioi pezeta). 695 78 32 93.

**Bergara.** Etxebizitza salgai erdialdean. Sukaldea, egonela, bi logela, bainugela eta traslekua. 169.900 euro. Oso aukera ona. 618 44 38 44.

**La Mongie.** Apartamentua salgai La Mongien, eski pistetan bertan. Logela literekin, komuna, bainugela, egonela-sukaldea sofa-ohearekin eta balkoña pistei begira. Aparaleku eta trasteleku era badu. Hegozkera eta orientatua. 629 32 84 53.

**Oñati.** 70 metro koadroko etxebizitza salgai Kale Zaharrean. 6 urteko eraikin berria, igogailurekin. Bi logela, sukaldea, egonela, komuna eta trasteleku, argi patioan. 652 70 12 49.

**Oñati.** Etxebizitza jantzia salgai Olakuan. Hiru logela, bi bainugela, sukaldetutako eta jantzia, jangela eta garajea. 943 53 36 74 edo 635 06 24 79.

**Oñati.** Kale-kalean eta estreinatzeko dagoen apartamentua salgai. Bi logelakoa. Garaje itxia aukera. 231.390 euro (39.500.000 pezeta). Deitu 665 71 42 69 telefonora.

**103. ERRENTAN EMAN**

**Arrasate.** Estreinatzeko dagoen etxeak errentan ematea da. Uribarriko eliza atzean. Sukaldea, egonela, bi komuna eta hiru logela. Denek kanpora ematen dute. Igogailua eta garajea ere bai. Deitu 685 72 78 23 edo 670 84 52 46 telefonora.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan, lau edo bost ikaslerentzat, unibertsitateko ondoan. 605 77 51 71.

**Arrasate.** Erdialdean, Juan Carlos Guerra kalean, lau logelako pisua ematen da errentan ikasleentzat. Prezio negoziagarraria. 616 50 67 28 edo 943 79 56 42.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan ikasleentzat Jokin Zaitegi plazan. Hiru logela, bi bainugela eta egongela. Arratsaldezdeitzen, mesedezen. 646 68 05 86.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan ikasleentzat, unibertsitateko oso gerto. 656 73 48 48.

**Conil.** Apartamentua ematen da errentan, 615 75 11 47 edo 659 36 88 75.

**Jaca.** Apartamentua ematen da errentan erdigunean, abuztuako Kirogunea, igerileku, jacuzzi, sauna, paddle leku eta squasharekin. 609 47 86 91.

**104. ERRENTAN HARTU**

**Bergara.** Pertsona batendako etxebizitza txikia errentan hartuko nuke. 653 38 56 12.

**Debagoina.** Bikote bateketxebizitza hartuko luke errentan Oñati edo Arrasaten. (Leire). 625 70 07 51.

**Debagoina.** Ikastera datozen Erasmus ikasleentzako gelak behar dira Debagoinen irailaren hasieratik abenduaren amaiera arte. Deitu 656 77 66 32 zenbakira.

**105. ETXEAK OSATU**

**Arrasate.** Gela ematen da errentan unibertsitateko ondoan. Kampaidea. Gas naturala. Leku lasaia. 630 71 35 83.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean, sukaldetutako etxeak osatzeko. Persoanak barakarrantz. Deitu 618 14 71 34 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitateko 5 minutu. Ergin aldean. Wi-fia eta berogailua. Persoanak barakarrantz batera bizi izateko. Deitu 667 53 70 12 telefonora.

# IRITSI DA **MERKEALDIA** GORBEIA MERKATARITZA PARKERA

Zatoz eta eskuratu itzazu

**%30, 50, 60**ko deskontu harrigarriak,  
baita **%70**eko deskontuak ere!

LUXUS SPORT CARS - ISKIA - ULANKA - ZAPARRASTRILLO - CORTEFIEL - WOMEN'SECRET - DOUGLAS - CHARO DUARTE - SPRINGFIELD - PROMOD  
EL BROCHE - AUTOS GP - UNITEC MOVISTAR - ATENCIÓN AL CLIENTE CARREFOUR - VEGA - PRENSA - ESPACE COIFFURE - INMOBILIARIA GORBEIA  
WANAKA - ORO VIVO - GODO'S - SLIDE - TRIP BISUTERIA - KAVA - SPORTWELL - REC - LOS TELARES - PACO MARTINEZ - PIMKIE - GAME - SUN PLANET  
SWATCH - NATURA - VODAFONE - BIJOU BRIGITTE - ORANGE - ADMINISTRACION LOTERIA - ONCE - BARCELO VIAJES - ASERPLATA - VITAL KUTXA  
GRECIA - AMAZONAS - LA RAPA - CEYLAN CAFÉ Y TE - LAHORE - OSCAR G - MODAS ATENEA - EOLO 23 - FARMACIA - TRIP - FOOT LOCKER - SEPHORA  
M2 CAFETERIA - M2 - KURRUSKO - GAMBRINUS - OKETA - KEBAB - KIOSKO GOXOA - TÚNEL DE LAVADO - CARREFOUR - DECATHLON - BRICO DÉPÔT  
MCDONALD'S - YELMO CINES GORBEIA 3D - NORAUTO - KING JOUET - MUEBLES MAX DESCUENTO - MERKAL CALZADOS - SPLAFF! - SAMIRA - CIMER



gehien aurrezten duzun tokia



**GORBEIA**  
errazago, bizkorago, erosago, merkeago

Etxabarri Ibiña  
IRTEERA   
**AP - 1 EIBAR -GORBEIA**  
(GASTEIZ)

**Carrefour** 

**DECATHLON**

**Norauto**

 i'm lovin' it

**BRICO**  
**DÉPÔT**  
PRECIOS BAJOS TODOS LOS DÍAS

**merkal**   
calzados

**King Jouet**

**DIGITAL  
YELMO  
CINES  
GORBEIA  
3D**

**MUEBLES  
MAX'  
DESCUENTO**

**SPLAFF!  
Barra de Ruedas**

**CIMER**  
el outlet del electro

**SAMIRA**  
FASHION OUTLET

Olatz Bideluze > Arkitekto teknikoa eta futbolaria

# "Asko baloratzen dut nesken futbol taldeen artean dagoen harremana"

Txikitatik gustatu izan zaizkio Olatzi kirolak, eta gehien, futbola: "Familia aldetik ere beti

izan gara nahiko futbolzaleak. Esan daiteke barruan darama-dala futbolari izateko garra". Tal-

de ugaritan ibili ondoren, orain, Soraluzeko nesken senior tal-dean dihardu: "Lantokitik ger-

tuago izatearren aldatu nintzen, Eibarren egiten baitut lan, igogailu enpresa baten".

**AMAIA ARANZETA > BERGARA**  
Olatz Bideluze berigararrari betidatik gustatu zaio futbolean aritzea. 14 urte zituenetik dihardu talde baten edo bestean. Arkitektura Teknikoa ikasi zuen Burgosen eta orain, igogailuak eraikitzent dituen enpresa batean dihardu, Eibarren.

**Txoritxo batek esan digu aurrekoan ezkontza bat eduki zenuela eta dantzan gelditu beharrean bazkalostean futbolean egitera joan zinela.**

Bai, futbolarekin disfrutzen dut gehien, eta dantzari trebea ez naizenez... ba ez zidan pena handirik eman. Partidura berandu iritsi nintzen eta pena handiagoa eman zidan lehen ordu erdia jokatu ez izanak ezkontzan dantzan geratzeak baino.

**Azken partidua Arrasateren kontra galdu zenuten: Bergaran jokatutako finala, hain zuzen. Nola hartu zenuen porrot hura?**

Galtzeak edo irabazteak ez dit askorik axola, futbolean egitea biziki atsegina dudalako, eta beraz, galtzearen sentimendu hori ez da izaten hain indartsua. Hala ere, partidu garrantzitsua izan zen hura, finala zelako, eta ez zitzaigun gaizki etorriko Gipuzkoako senior mailako nesken arteko liga irabaztea...

**Finaleko azken bi taldeak ibarrekoak izanda, galtzean *pikeak* handiagoak izaten dira?**

Bai, jeneralean horrela izaten da. Jokalarien artean nabari izaten dira *pike* horiek. Osterantzean, ni inguruko talde askotan ibili izan naizenez gero, guztiekin ondo eramatea lortu dut eta asko baloratzen dudan kontu bat hori da; futbolak irakatsi didana, batik bat, elkartasuna eta adiskidetasuna izan da.

**Benetan esaten duten moduko gazi-gozoa da bigarren gelditzearen sentsazio hura?**

Egia esanda, azken finean, finalera iristerakoan gehien baloratzen duzuna finalera iritsi izan da; nahiz eta momentuan tristura antza izan, egindako beroketak, bertan sartu dituzun orduak eta egindako lan guztirekin oroitzen zara eta bigarren gelditzea ez dela batere txarra pentsatzen duzu. Jendeak asko sufritzen du bigarren gelditzearen trauma edo gabezia horrekin; niretzat garrantzitsuena gelditzen den lan guztia, jendearekin igarotako momentuak eta gauza



GOIENKARIA

## PERTSONALA

**Herria:** Bergara. **Adina:** 28 urte. **Ikasketak:** Arkitektura Teknikoa. **Zaletasunak:** Futbola, motorrak, mendia. **Gustuko futbol taldea:** Reala eta Bartzelona. **Jokalari onena:** Leo Messi; Karpin ere asko gustatzen zitzaidan. **Eta guapoena?:** Pep Guardiola. **Bizio bat:**

Esnea galletekin. **Bidalatzeko leku bat:** Thailandia. **Orain arte egon zaren tokirik ederrena:** Menorka. **Azkenekoz irakurritako liburua:** Albert Camus-en *La peste*. **Zer esango zenieke futbolean aritzen diren neska guztiei?** Aurrera jarraitzeko eta animo!

horiek guztia izaten dira. Hain zuzen, betiko dira, hori ez dela-ko inoiz ahazten.

Soraluzeko nesken senior mai-lan jokatzen duzu. Bergara-koia izanda, nola erabaki zenuen Soraluzera joatea?

Aurreko urtean Bergaran ez zen senior mailako nesken talde-rik sortu eta Soraluzera joateko aukera eman zidaten. Beraz, hara joatea otu zitzaidan. Gainera, Eibarren dihardut lanean eta lantokiarekiko gertutasunagatik ere, aukera ona zela pentsatu nuen.

**Noraino heltzea gustatuko litzaitzuke futbolean? Ametsen bat eduki duzu lehenengo mai-lara igo edo futboleko izar bihurtzearekin?**

Pertsonalki ez, baina hemen bai nabaritzen direla mutil edo nesken arteko desberdintasunak futbolarekiko. Jeneraoean, mutilek beti maila bat gorago heldu nahi izaten dute eta neskak berriz, apalagoak gara. Gainera, beti izan ditut lagunak eta familia ere bertan, uneoro nirekin, haiek ere futbolzaleak baitira, eta, egia esatearren, ez dut izan desio hori, futboleko izar bihurtu eta fama, dirua eta horiek guztia eskuratzeko.

**Nola lortzen duzu lana eta fut-bola bateratzea? Zaila egiten zaizu?**

Berez, 18:00 edo 19:00 alderako lana amaitua izaten dut eta futboleko entrenamendu orduak beranduago izaten dira. Ikerla garaian, unibertsitatean ere ondo etorri zitzaidan futbola bezalako zaletasun bat izatea; apur bat bazen ere, ikasketetatik aldentze-ko, lagunekin egon eta burua erlaxatzeko, oraintxe egiten dudan moduan.

**Arkitektoa izanda, futbol zeliaiak ondo begiztatuko dituzu eta pentsatzen dut batean edo bestean egonda izango zarela.**

Begiak alde guztietara joaten zaizkit, baina ez ditut futbol zeliaiak bakarrik begiztatzen, bai-ta etxeak edo beste edozein erakin ere. Hala ere, asko gustatzen zait Municheko futbol zeliai.

**Udako oporrak datozena eta, pentsatu duzu zerbait berezi-rik?**

Bada, Bretainia aldera joan nahiko nuke, eta, aldi berean, bizikletan ibili eta mutilarekin lasai egon.

# Elgetako eta Aramaiko jaiak datorren astean

Martitzenean eta eguaztenean Elgetako eta Aramaiko jaien berri izango duzue

GOIENKARIA > ARRASATE  
Atzo hasi ziren Elgetan eta Aramaion gaur emango diente hasiera herriko jaei. Goiena Telebistako kamerak herri bi horietan izango dira egunez egun, jaiet ematen duten guztia jaso eta zuei helarazteko asmotan. Izan ere, asteleheneko *Goiena magazinea*

saiuan, Elgetako eta Aramaiko jaiet utzitako irudi onenekin egindako saioa izango duzue ikusgai. Hori Txomin Madinaren eskutik iritsiko da.

Eguaztenean, berriz, Julen Iriondoren eskutik, Elgetako eta Aramaiko jaietan gertatu direnak zabalago ikusi ahalko dituzue. Herriarren iritziak, musika eta jai giroa zuen etxeetaraino irits daitezen sariatuko dira.

**GOITB, 'Jaiak'**  
> Astelehena, 19:45  
> Eguaztena, 22:15




Elgetako asto lasterketa.

GOIENKARIA

## Euskalteleko kamisetak eskuragarri

UBANE MADERA > ARRASATE  
Donostiako Aquariumerako eta Musakolako igerilekura sarrerak zozketatzen segituko dute irratikoek datorren astean, baina horrekin batera eta Tourra asteburuan hasiko dela kontuan hartuta, Euskalteleko txirrindulariak animatzen laguntzeko kamiseta laranjak zozkatuko dituzte. Parte hartzeko, 943 25 05 05 telefono zenbakira deitu edo *irratia@goiena.com* helbidera mezua bidali.

Arrasate Irratia,  
'Uda Giroan'  
> Egubakoitzta, uztailaren 10  
11:30etik 12:00etara.



## Iban Garate aktorea 'Ilunpean' saioan gonbidatu

Iban Garate aktorea elkarritzeta tuko du datorren martitzenean Jon Berezibar Goiena Telebistako kazetariak. Iban Garate aktore gaztea ezaguna da oso, euskal telesailetan eta filmetan egindako lanagatik. *Goenkale-n* ezagutu genuen eta ondoren, *Martin* telesailean. *Betizu* saioko aurkezle eta *Aupa Etxebeste!* filmean ere ikusi dugu Garate. 22:15ean izango da saioa.

**GOITB, 'Ilunpean'**  
> Martitzena, 22:15  
> Eguaztena, 15:10

## tele begi

Oihane Agirre  
> *'oagirre@goiena.com'*

## Interes turistikoa

Eta azkenean heldu da eguna; aste honetan estreinatu dute ETBn eguraldi mapa berria. Hemendik aurrera, eguraldi mapan EAE, Nafarroa eta Ipar Euskal Herriaren arteko muga administratiboak banatuta azalduko dira. Gainera, Frantziako Landak, Kantabria, Burgos, Soria eta Zaragozako iragarpena ere eskainiko digute interes turistikoaren aitzakiaz. Albiste honen bila sarera joan naiz, eta harrituta geratu naiz izan duen oihartzunaz. Ditzoxosko eguraldi mapa!

Ni bereziki haserretu nauena mapa berri hau aurkezterakoan erabili duten aitzakia da: interes turistikoa. Ikusle pasibo eta tontoak izaten jarraitzen dugu beraientzat. Denok dakigu, eta bereziki doazenen eta datozenen izen dantza honetan, Gobernuan dagoen alderdi politikoaren agindura egon direla eta egoten jarraituko dutela komunikabide publikoek.

## arrasate irratia

FM 107.7

**Zapatua**  
10:00 Asteko gainbegiratua.

**Domeka**  
10:00 Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**  
10:00-12:00 Uda Giroan  
Albistegia  
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)  
Astelehenetan Kirolak  
Ilunpean (elkarritzak, Euskal Herriko pertsona ezagun batetik)  
Sozioekonomia gaia, Iñaki Azkoaga komunikazio arduradunarekin  
Udal Gatz Bulegoa  
Sexologia Zerbizua  
Astearen errepasoa (Goienkariarekin)  
Eguneko eta asteko protagonisteak, elkarriketak  
Zozketak (egubakoitzean)  
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com*)  
11:55 Arrasateko albisteak, labur.  
12:05 Euskadi Irratiko albistegia  
12:10 Izaren ordua: abesti ezagunak  
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
14:00 Uda Giroan  
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegilaburra.

## astea GOITBn

EGUBAKOITZA, 3	ZAPATUA, 4	DOMEKA, 5	ASTELEHENA, 6	MARTITZENA, 7	EGUAZTENA, 8	EGUENA, 9
13:15 Marrazki bizidunak	08:00 Marrazki bizidunak.	08:00 Trikitraka trikiton.	13:15 Marrazki bizidunak:	13:15 Marrazki bizidunak:	13:15 Marrazki bizidunak:	13:15 Marrazki bizidunak:
13:45 Kantari.	09:00 Marrazki bizidunak.	09:00 Marrazki bizidunak.	Cloud Trotters.	Alex eta Alexis	Cloud Trotters.	Alex eta Alexis
14:15 Eltze beroa.	10:30 Trikitraka trikiton.	11:30 Kantari.	13:45 Kantari.	13:45 Kantari.	13:45 Kantari.	13:45 Kantari.
14:45 Berriak.	14:00 Elkartsun bideak.	14:00 Elkartsun bideak.	14:15 Eltze beroa.	14:15 Eltze beroa.	14:15 Eltze beroa.	14:15 Eltze beroa.
15:15 Berbaire.	14:30 San Pedroak 2009.	14:30 San Pedroak 2009.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.
16:15 Eskoriatzako San Pedroak 2009.	15:30 Trikitraka trikiton.	15:30 Trikitraka trikiton.	15:15 Nere herria:	15:10 Ilunpean:Iban garate.	15:10 Ilunpean:Iban garate.	15:10 Ilunpean:Iban garate.
16:45 Berriak.	16:30 Marrazki bizidunak.	16:30 Marrazki bizidunak.	Idiazabal	15:50 Batel estropadak.	15:50 Batel estropadak.	15:50 Batel estropadak.
17:15 Marrazki bizidunak.	18:00 Erreportajea.	18:30 Solaskide.	15:45 Solaskide.	16:20 Itsasoari begira.	16:20 Itsasoari begira.	15:50 Golb tb.
18:00 Ilunpean.	19:00 Itxasoari begira.	19:30 Berbaire.	14:15 Eltze beroa.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.	16:20 28 Klip.
18:45 Berriak.	19:30 Berbaire.	19:45 Erreportajea.	15:30 Zaharrak berri.	17:10 Marrazki bizidunak.	17:10 Marrazki bizidunak.	16:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak.	20:30 Golb tb.	20:30 Golb tb.	15:45 Kantari.	17:35 Erreportajea.	17:35 Erreportajea.	17:15 Marrazki bizidunak.
20:45 Kantari.	21:00 Ikusten.	21:00 Ikusten.	18:15 Trikitraka trikiton.	18:05 Harmailatik.	18:05 Harmailatik.	18:00 Elkartsun bideak.
21:15 Goiena Magazinea.	21:30 Ilunpean: Markos Zapiain	21:30 Ilunpean: Markos Zapiain	19:15 Marrazki bizidunak.	18:45 Berriak.	18:45 Berriak.	18:45 Berriak.
22:15 Solaskide.	22:45 Erreportajea.	22:45 Erreportajea.	20:15 wasemak.	19:45 Goiena Magazinea.	19:45 Goiena Magazinea.	19:15 Marrazki bizidunak.
22:45 Musikantoi.	23:30 Wasemak.	23:30 Wasemak.	21:15 Elkartsun bideak.	20:45 Kantari.	20:45 Kantari.	19:45 Goiena Magazinea.
23:45 Goiena Magazinea.	00:30 28 klip.	00:30 28 klip.	21:45 Berbaire.	21:15 Goiena Magazinea.	21:15 Goiena Magazinea.	20:45 Kantari.
00:45 Emisio amaiera.	01:00 Emisio amaiera.	01:00 Emisio amaiera.	22:45 San Pedroak 2009.	22:15 Ilunpean: Markos Zapiain	22:15 Ilunpean: Iban Garate.	21:15 Goiena Magazinea.
			23:15 Ilunpean: Markos Zapiain	23:00 Erreportajea.	23:00 Lamien artean.	22:15 Elgetako eta Aramaiko jaiak.
			00:00 Itsasora begira.	23:30 Goiena Magazinea.	23:30 Goiena Magazinea.	23:15 Musikantoi.
			00:30 Emisio amaiera.	00:30 Emisio amaiera.	00:30 Emisio amaiera.	23:45 Goiena Magazinea.
						00:45 Emisio amaiera.

## herritarrak galdezka

AGORROSINGO KANPOKO  
IGERILEKUAN JATEKO AUKERA  
**Uztailean oporretan dagoen bergarar batek deitu digu Agorrosin kirolgunearen gainean duen zabalta argitzeko. Hilabete honetan, denbora dueñezez, seme-alabekin batera Bergaran estreinatu duten kanpoko igerileku eguna pasatzea erabaki du. Haren zalantza da ea jatekorik sar daitekeen. Horretaz gain, etxetik hamaka eraman daitekeen edo ez ere jakingura du bergarar horrek.**

Bergarako Agorrosin Kirol Guneekin jarri gara harremanetan eta baiezta dugu eremu horretara jaki arinak eraman daitezkeela. Kirol teknikari Unai Asurmendiren esanetan, "ogitarakoak jan daitezke han; besterik ez. Tupper eta horrelakoak sartzea debekatu egin behar izan dugu, jendea denetarik ekartzen hasi zelako". Gogorarazi du, horren harira, Agorrosinen taberna dagoela.

Iragarri du goiko partean mahai eta aulkia berriak jarri dituztela, laster han baxkaldu ahal izateko: "Eskautua daude, baina oraindik ez dira iritsi. Orain daudenak dagoeneko zahartuta geratu dira, berdegunea egokitzen garaikoak dira-eta".

Kanpotik hamaka sartzeko aukera ere badagoela dio. Hori bai, egunen bertan eraman behar dela gaineratu du. Ezin daitezke egun batek bestera eremu horretan utzi.

### ESKORIATZAKO TAXI ZERBITZUAREN TARIFAK

**Eskoriatzar batek posta elektronikoaren bidez hauxe galduen digu: "Zen- nekerabakitzentzu herriko taxi zerbitzuan tarifik? Eta horiek zenbatekoak dira?".**

Eskoriatzako Udalari dagokio urtero herri barruko taxien tarifik zehaztea. Zehazki, udal taldeek oso-



Kanpoko igerileku mahaiak eta aulkia aldatu dituzte laster Agorrosinen. MIRIAN BITERI

ko bilkurau hartzen dute, hurrengo urteari begira, tarifen gaineke erabakia.

Bi tarifa mota daude: astegunetako, 07:00etatik 22:00etara; eta jai egunetako eta gauetako (22:00etatik 07:00etara). Lehenengoan, gutxieneko tarifa 3,1294 euro da eta egindako kilometro bakotzak 1,5636 euro balio du. Taxia zain dagoen bitartean, bezeroak 29,4314 euro ordaindu behar ditu orduko.

#### Galdera egiteko:

Zerbaitek arduratzentz bazaitu eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, egiguzi galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin.

- Telefonoz: 943 25 05 05
- Faxez: 943 25 05 12
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goienna.com

euro ordaindu beharko ditu; itxaron aldia, orduko, 18,7223 euro da.

Gauean eta jaiegunetan, gutxieneko tarifa aurrekoaren berdina da: 3,1294 euro, hain zuzen. Hortik aurrerakoak, baina, aldatu egiten dira. Hala, egindako kilometro bakotzak 1,5636 euro balio du. Taxia zain dagoen bitartean, bezeroak 29,4314 euro ordaindu behar ditu orduko.

#### OÑATIKO ZUBIKOAKO TABERNARA NONDIK?

**Oñatiako emakume batek telefonoz deitu digu, jakin gura duelako Oñatiako Zubikoa kiroldegiko igerilekutik tabernara joateko bidea zein den. "Lehen, berdegunetik irteera zuzena zuen; orain, taberna eraikin berrian dagoenez, ez dakit nondik joan behar dudan. Kalera irten behar dut?".**

Oñatiako Zubikoa deitu dugu eta han jakinarazi dugu igerilekutik tabernara joateko bezeroek ez duteela kanpora joan behar. Berdegunea pasa eta kantxa berdearen pasillotik tabernara joateko aukera dago.

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN



#### Zapatua, 4

Giro nahasia izango dugu, bereziki arratsalde partean. Iparraldeko haizea ibiliko da eta temperatura nabarmen jaitsiko da.



#### Domeka, 5

Ostarteak zabalduko diren arren, euria edozein momentuan bota dezake. Temperaturak behera egingo du berriro.

### EUSKAL HERRIAN

Giro beroaren arrastorik ez dugu izango. Hodeiak izango dira nagusi eta zaparradak botako ditu; eta baliteke trumoia ere jotzea. Temperatura nabarmen jaitsiko da.



### TENPERATURAK

MINIMOA	9ºC	Max. 0ºC
Eguaztena, 24	27	9
Eguena, 25	26	14
Egubakoitza, 26	24	14
Zapatua, 27	29	11
Domeka, 28	31	14
Astelehen, 29	35	17
Martitzena, 30	32	19

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

## bono fotoa

Larchago Ardoek emandako  
**Ardo botila packa\***

zozketatuko du GOIENKARIAK  
asmatzaleon artean!

\* Larchago iskillarapeko ekologikoa 2008 bi botila.  
Larchago kriantza 2006 botila bat.

**ERANTZUNA .....**  
IZEN-DEITURAK .....

HERRIA..... TEL: .....

Ekarriz txartela MARTITZEN EGUDERIRAKO  
Goienako edozein egoitzara

**Argazkiko behorrak belarra jaten ari dira Gesalibar auzotik gertu, Arabak, Bizkaia eta Gipuzkoak bat egiten dute tokian. Nola du izena toki horrek?**

Argazkia eta galdera > Joxefe Diaz de Tuesta

### AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

Bergarako Rosario Garitano.  
Zorionak!  
Erantzun zuena: Amarrandegia etxea.



## guardiako farmaziak

### ARRASATE

Zapatua, 4	Amezua	Santa Marina, 32	943 79 09 74
Domeka, 5	Español	Araba Etorb., 14	943 79 18 65
Astelehen, 6	Ruiz	Nafarroa Etorb., 1	943 79 14 09
Martitzena, 7	Etxeberria	Zarugalde, 42	943 77 16 30
Eguaztena, 8	Azkoaga	Ferrerias, 1	943 79 15 15
Eguena, 9	Azkoaga	Iturriotz, 17	943 79 79 99
Egubakoitza, 10	Corcuela	Maisu Aranbarri	943 79 22 26

### BERGARA

Zapatua, 4	Estella	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Domeka, 5	Estella	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Astelehen, 6	Alvarez-Mozos	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Martitzena, 7	Urritikoetxea	Oixondo plaza, 4	943 76 11 74
Eguaztena, 8	Zabala	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Eguena, 9	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05
Egubakoitza, 10	Estella	Matxiategi, 5	943 76 19 63

### ONATI

Zapatua, 4	Anduaga	San Lorentzo, 3	943 78 21 26
Domeka, 5	Anduaga	San Lorentzo, 3	943 78 21 26
Astelehen, 6	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Martitzena, 7	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Eguaztena, 8	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Eguena, 9	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Egubakoitza, 10	Juldain	Kale Barria, 6	943 78 11 28

### ARETXABAleta

Zapatua, 4	Agirre	Gorosari plaza, 10	943 71 48 28
Domeka, 5	Agirre	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Astelehen, 6	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Martitzena, 7	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Eguaztena, 8	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Eguena, 9	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Egubakoitza, 10	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2009ko egutegia.  
Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEZA.




Arrasateko **Eva Sanchez** eta Legazpiko **Jonathan Villamor** Arantzazun ezkonduko dira bihar. Bazkaria Zelai Zabal jatetxeen egingo dute eta bidaian Venezuelan Margarita uhartera joango dira. Familiakoen eta lagunen partetik, ondo ibili eta zoriontsu izan.



Arrasateko **Iban Diaz** eta **Belen Moreno** zapatuau, uztailaren 4an, ezkonduko dira Arrasateko udaletxeen, 12:30ean. Ospakizuna Itziarren egingo dute gero. Koadrilako lagunen partetik, zorionak, bikote, eta ondo-ondo pasa eguna.



Bergarako **Aitor Ortiz de Urbina** eta **Ainara Ruiz** bihar, zapatuau, ezkonduko dira Bergarako udal-letxeen. Ondoren, Zumaian ospatuko dute familiakoekin eta lagunekin. Bidaian AEBetara joango dira. Zorionak, bihotz-bihotzez, familiaren partetik.



Aretxabaletako **Jon Otxoa** eta Gasteizko **Izaskun Diaz de Gereñu** zapatuau, uztailaren 4an, ezkonduko dira Lezan (Araba) eta bazkaria Guardian egingo dute. Zorionak, bikote, etxeko guztien partetik.

## ESKELAK

GOIENKARIAN eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritza batera:

### Arrasate

Goiena: Otalora lizenziaduna 31. 943 25 05 05.

### Bergara

Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05.

### Oñati

Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

### Aretxabaleta

Goiena: Durana 11. 943 79 86 21. / Zerbitzu orokorrak: Basabe poligonoa E05. 943 25 05 05.

### Aramaio

Kintelen janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

### Elgeta

Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98

### Antzuola:

Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

### Eskelaren prezioa: 110 euro.

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteluheneko GOIENKARIAN, bietan, argitaratz gero, **150** euro.

### ASTELEHENKO GOIENKARIKO harpidedunak: 100 euro

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteluheneko GOIENKARIAN, bietan, argitaratz gero, **140** euro.

**Goienkaria: astero, 44.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.**



## hildakoak

- **Felipe Lasaga Larrañaga.** Bergaran, ekainaren 25ean. 78 urte.
- **Jesus Catalan Igea.** Bergaran, ekainaren 26an. 80 urte.
- **Julian Unamuno Lizarralde.** Bergaran, ekainaren 28an. 86 urte.
- **Jose Pagaldai Iñurrategi.** Eskoriatzan, ekainaren 30ean. 79 urte.
- **Gregorio Leibar Urkia.** Oñatin, uztailaren 1ean. 81 urte.

## 4. URTEURRENA

### Beñat Sanchez Garitaonandia

Larunbatean gaztetxeen egindako omenaldiagatik, familiak eskerrak eman nahi dizkie lagunei.



Bergaran, 2009ko uztailaren 3an.

Babeslea:

**Euskalduna**  
Hileta Zerbitzuak

Beilatekia  
Etengabeko zerbitzua  
Lore koroak  
Eskelak  
Tramite guztien bideratzea



Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99  
e-posta: [euskalduna@harrespil.net](mailto:euskalduna@harrespil.net)

# Uztailak 3-10

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa  
eguzteneko egurdia baino lehen.  
Posta elektronikoa: [kultura@goiena.com](mailto:kultura@goiena.com)  
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13

## Musika



BERGARA

### > Bluedays taldearen emanaldia gaur gauean Espoloiko kioskoan

Ostiral musikalak programari hasiera emanez, Bluedays taldeak joko du gaur, egubakoitza, Espoloian, 22:30ean. Carlos Sanz (gitarra eta ahotsa), Jorge Otero (baxua), Angel Hidalgo (gitarra) eta Julio Gartzia (bateria) osatzen dute Bluedays.

## Dantza



ARRASATE

### > Brisa de Portmany eta Lore Gazteak dantz taldeak zapatuan Monterronen

Eivissako Brisa de Portmany dantza taldeak Arrasateko Lore Gazteak taldearekin batera emanaldia egingo du bihar, zapatua, Monterronen, 22:30ean. 18 bikote dira Eivissako taldean eta ibilbide luzea dute, 1990ean sortutako taldea baita.

## Jaia



OÑATI

### > Garagardo festa aste bukaeran Oñatin, Aloña Mendi elkartearren eskutik

Garagardo festaren III. ekitaldia ospatzeko, karpa erraldoia jarri dute Oñatiko plazako aparkalekuaren. Edatekoaz gain, jatekoa ere egongo da: txerri-ukondo, saltxitxak, eta oilasko izterrak patata erreakin. Domekara arte zabalik.

ko 10 bat lan zintzilikatuko ditu Virginia Loperak.

Uztailaren bukaerara arte izango da erakusketa zabalik.

## Hitzaldiak

### ESKORIATZA

### > 'Iniciación a la micología' hitzaldia uztailaren 11n

Jose Mari Larrañagaren eskuik.

Uztailaren 11n, Elixoste elkartean, 17:00etan.

## Irteerak

BERGARA

### > Lekeitioko kale-antzerki jaialdira irteera

Lekeitioko nazioarteko kale-antzerki jaialdira irteera (18 urtetik gorakoei zuzenduta) uztailaren 11n izango da.

Zozketa bidez 50 plaza emango dituzte, doan. Izenematea astelehenera arte, uztailaren 6ra arte, zabalik dago, gaztetxe-an edo kultura etxeen.

Argibideak kultura etxeen, 943 77 91 60 telefono zenbakian.

## Ikastaroak

### ARRASATE

### > Yoga eskolak Arrasaten, goizez eta arratsaldez

Txindoki dorrean (Bañez Doktorea 1). Astelehen eta eguztenetan 09:30etik 11:00etara eta martitzen eta eguenetan

## Musika

ANTZUOLA/BERGARA

### > Bergarako Orkestra Sinfonikoa Antzuolan eta Bergaran

Bietan programa bera eskainiko du Orkestrak, Alfredo Glez. Chirlaquek zuzenduta: *Jupiter Hymn, Alceste, The Montagues and Capulets, Cinema Paradiso eta Bost Ierro.*

Gaur egubakoitza, Torresoroan, Antzuolan, 22:00etan. Bihar, zapatua Bergarako San Pedro parrokan, 20:00etan.

BERGARA

### > Krell talde donostiarra Nahikarin, zapatuan

Rock elektronikoa egiten dute donostiarrek. Azken lana aurkeztuko dute bihar.

Bihar, zapatua, Nahikari tabernan, 22:30ean.

BERGARA

### > Lord Witch eta Evernight zapatuan gaztetxean

Power metal musika egiten dute bi taldeek. Lord Witch bergararrek lehenbiziko diskoa aurkeztuko dute.

Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean. Sarrera doan.

BERGARA

### > Sidney Ellis kantari estatubatuaren zapatuan Tartufon

Jazz eta blues zirkuituetan ahots ezagunenetako da Sidney Ellis estatubatuaren beteranoarena.

Bihar, zapatua, Tartufo jatetxeko terrazan, 23:00etan. Sarrera, 10 euro.

## Antzerkia

### ARETXABAleta

### > 'Kanpaiak jo bitartean' uztailaren 12an

Glu Glu taldearekin. Hurrengo domekan, uztailaren 12an, 19:30ean. Sarrerak 8 eurotan.

## Ikuskizunak

ARRASATE

### > Kukai dantza taldearen 'Soka' hilaren 10ean

Kaleko ikuskizuna ekarriko dute Arrasatera.

Datorren egubakoitzean, hilaren 10ean, Arrasateko plazan, 20:00etan.

## Erakusketak

### ESKORIATZA

### > Felix Likiniano Herizi eskainitako erakusketa Ibarraundin

Eskoriatzako familia bateko semea, Likinianoren bizitzako pasarte adierazgarrienak eta haren sormen lan batzuk batzen ditu erakustak.

Ibarraundi museoan.

BERGARA

### > Txiki Agirre 'Keixeta'-ren margo erakusketa

Gaur, egubakoitza, zabalduko dute Keixeta-ren margo erakusketa, 19:00etan.

Uztailaren 19ra arte Barrenkaleko Aroztegi aretoan. Martzenetik egubakoitzera: 18:00-20:30. Zapatuetan: 12:00-14:00 eta

18:00-20:30. Domeka eta jaiegunetan: 12:00-14:00.

### ARETXABAleta

### > Margo erakusketa Arkupen

Pintura ikastaroko lanen erakusketa.

Uztailaren 15era arte Arkupen izango da ikusgai erakusketa.

BERGARA

### > Virginia Loperaren margoak Nahikarin

Artista gasteitzarraren erakusketa zabalduko dute gaur, egubakoitza, Masterreka-ko tabernan. Formatu ertaine-



ARRASATE

### > Errozio jaiaren XIX. ekitaldia domekan

Arrasateko Al Andalus elkartearren eskuik, Errozioko erromeria ospatuko dute domekan, uztailaren 5ean, Zigarrolan. 09:30ean hasiko dira ekitaldiak, etorriko diren Andaluziako etxeei harrera eginez. Ondoren, 11:30ean, Errozioko Ama Birjinaren irudia eramango dute Al Andalustik Santa Teresa elizara; 12:00etan lore eskaintza; 12:30ean meza nagusia; 13:30ean Alegria de la Sierra taldearen emanaldia eta arratsaldean erromeria 19:30ak arte.

Domekan, Arruena parkean (Eroski ondoan).

## ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

### PLANETARIUM BERRIA

**Donostiatik zerura begira:** Zuzeneko saioa. Igandean, uztailak 5, 12:00tan euskaraz.

**Itsua izar begiekin:** Itsu bat eta tirano bat protagonista dituen ipuin animatu bat. Larunbatean, uztailak 4, 19:00 gaztelaniaz, igandean, uztailak 5, 15:30ean frantsesetan.

**Biziaren jatorria:** Lurrazen eta Eguzki Sistemaren jatorria erakus-ten digun saioa. Larunbatean, uztailak 4, 13:00etan eta Igandean, uztailak 5, 19:00tan gaztelaniaz.

**Infinity Express:** Unibertsoa eta Eguzki Sisteman zehar bidaia Larunbatean, uztailak 4, 15:30ean frantsesetan. Igandean, uztailak 5, 13:00 etan gaztelaniaz.

**Kartoizko suziriaren sekretua:** Haurrei zuzendutako saioa Larunbatean, uztailak 4, 18:00etan euskaraz

**Eboluzioa (Berria!)** Izakion historiako gertaera eta unerik garrantzitsuenek azaltzen ditzigu. Larunbatean, maiatzak 4, 12:00tan euskaraz eta igandean, uztailak 5, 18:00tan euskaraz.

### ETA GAINERAK...

**Elektrizitate ikuskizuna:** Ileak puntan jarriko dizkizun esperientzia Uztailak 4an 12:15 eta 13:45ean eta Uztailak 5ean, 12:45 eta 15:30ean.

**Planetarium Txikia:** 4-8 urte bitartekoek ere izarrak ikus ditzaten. Uztailak 4an 13:15, 17:00 eta 17:30ean eta uztailak 5rak, 12:15, 16:15 eta 17:00etan

**Esperimentuak zuzenean.** Uztailak 4 eta 5ean, 18:15ean

**Simulagailuak:** Errusiak mendia eta

tranbia gidatzailearekin disfrutatzeko aukera Goizez: 12:15 – 13:45 eta arratsal-

dez: 17:15 – 18:45 asteburu eta jai –egu-

netan.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA  
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

Miramont-Donostia Tel.: 943 01 24 78  
[www.miramont.org](http://www.miramont.org)

19:00etatik 20:30era izaten dira  
yoga eskolak.

Argibide gehiago ondoko telefono  
zenbakietan: 635 71 06 16 (Maite) edo 943  
78 31 26 (Ana).

## Lehiaketak

LEKEITIO

> Euskal Zine eta Bideo Bilera  
Lekeitio

Edozein bideo sortzaile har  
dezake parte. Lanak DVD for-  
matuan aurkeztu beharko di-  
ra, euskaraz. Lanak entrega-  
tzeko epea irailaren 11ra arte  
dago zabalik.

Argibideak 94 624 34 82 telefonoan  
edo [www.bideobilera.com](http://www.bideobilera.com) webgunean  
eskura daitezke.

BERGARA

> Azokako paretarako grafiti  
lehiaketa

Udaleko Kultura sailak  
graffiti lehiaketa deitu du.  
Lehiaketa honen helburua da  
Bergarako azokan hutsik  
dagoen 7,05 m (horizontalean)  
x 8,22 m (bertikalean) neurriko  
pareta margotzea. Horretarako  
antolatu dute grafiti lehiaketa,  
eta lehiaketara aurkeztutako  
lan guztien artean, epaima-  
haiak aukeratutako grafitia  
margotuko dute grafiti horren  
egileek Bergarako azokako  
paretan. Lehiaketan 2009an  
gutxienez 16 urte beteko  
dituzten debagoiendarrak edo  
Debagoieneko ikastetxeetan  
edo unibertsitateetan ikasten  
dutenek hartu ahal izango dute  
parte, bakarka nahiz taldeka.  
Teknika librea izango da, eta  
gaia, berriz, Bergarako azoka  
edo azokako produktuak. 5.  
Graffitiaren zirriborroa 34 zm x  
29 zm neurrian aurkezta  
beharko da, formatu bertikale-  
an, eta euskarri gogor baten  
gainean. Era berean, lana CD  
batean ere aurkezta beharko  
da. Proiektu irabazleak 500  
euroko diru saria jasoko du.

Lanak Bergarako Kultura Etxean  
aurkeztuko dira, uztailaren 27ko 13:00ak  
baino lehen. Argibide gehiago kultura  
etxeen edo 943 77 91 59 telefono  
zenbakian.

DEBA

> Tene Mujika beka, historia  
hurbilaz idazteko

Debako Udalak eta Elkar  
argitaletxeak, Euskal Herriko  
historia hurbilaren ezagutza  
zabaltzeko eta gure literatura  
aberasteko asmoz, V. Tene  
Mujika beka sortu dute, 6.000  
euroko diru-laguntza emango  
duena. Gure herriaren azken  
50-60 urteetan izandako  
pertsona, talde, gertakari edo  
mugimenduren bat buruzko  
liburuak egiteko proiektuak  
aurkez litezke (adibidez:  
biografiak, kronikak, errepór-  
tajeak, saiakerak, elkarritz-  
tak, ikerketak...); lanak  
jatorrizko eta euskaraz sortua  
izan beharko du.

Projektuak, datorren abenduaren 1era  
arte bidal litezke helbide honetara:  
Tene Mujika Beka, Debako Udalatxoa,  
20820 Deba. Interesatuek ondoko  
telefonoan jaso ditzakete argibide gehiago:  
943 19 28 40.



## Tres días con la familia \*\*\*

Zuzendaria: Mar Coll.  
Aktoreak: Nausicaa Bonnin, Eduard  
Fernández. Espainia, 2009. 86 min.

Azken bolada honetan  
zinemari eskainitako  
lerroetan familiarri  
buruzko film askotxo izan ditugu: *Tres monos* Turkian egina  
dago eta badu zinema beltza-  
ren ukitu bat; *Los mundos de  
Coraline*, amesgaiztoekin zer-  
kusi handia duen animazio  
lana, neska batek gurasoekin  
duen harremanaz doa; eta  
agian, nahiz desberdinak izan,  
Kataluniatik datorkigun *Tres  
días con la familia*-k, badiut  
komunak diren osagaiak Hiro-  
saku Koreedaren *Stil walking*  
istorioarekin. Bietan, herio-  
ta bat dela medio, familia bat  
elkartzen da, japoniar filmean  
urteurren bat gogoratzeko,  
Mar Collen filmean aitonaren  
hiletan parte hartzeko.

*Tres días con la familia*  
Katalunian kokatzen da. Diru-  
dun familia baten patriarka-  
ren heriotza dela eta, haren  
hiru seme eta alaba elkartu-  
ko dira, euren bikotekide eta  
seme alabekin. Familia ez da  
askotan elkartzen eta orain  
seme-alabak, lehengusule-  
lehengusinak... elkartuko  
dira, eta nahiko motzak diren  
eszenen bidez, iraganean izan-  
dako harremanak eta denbo-  
rak sortzen duen urrunte  
emozionala sumatzeko auke-  
ra izango dugu. Orokorean  
familia osoa nolakoa den iku-  
siko dugu, momentu batzuetan  
ematen du istorioa azale-  
ko deskripzio baten gera dai-  
tekeela, baina ez da horrela.  
Familia osotik banandutako  
bikote bat eta Frantzian bizi  
den alaba bat bihurtuko dira  
protagonista nagusi, haien  
istorioak pisu handiagoa har-  
tuko du eta azken zatian haien  
azalpen dramatikoa zehatzaga-  
goa izango da, ondo deskribat-  
zeko bakoitzaren bizi izateko  
eta sentimenduen ezinegona.

*Tres días con la familia*  
pertsonaien sensazioak isla-  
tu nahi du. Hori dela eta, fil-  
maren bi herenak askeagoak  
dira eta azken zatian dena  
dramatikoki gehiago konkre-  
tatzen da. Filma jatorriz kata-  
lanez egina dago eta hona hel-  
du zaigun bertsioa -hori bai,  
aktore berberen ahotsekintz-  
gaztelaniara bikoiztutako ber-  
tsioa da.

Antonio Zabala

# Zinema

### ARRASATE

### MONTERRON

El caballero oscuro  
Egubakoitza: 22:30.

### ARETXABAleta

### ZARIA

Ángeles y demonios  
Eguaztena: 21:30.

### EIBAR

### UNZAGA

Ice Age 3: el origen  
de los dinosaurios  
Egubakoitza: 19:30, 22:15.  
Zapatuan eta domeka:  
17:00, 19:30, 22:15.  
Astelherenik eguztene-  
ra: 19:30, 22:15.  
Eguaztena, ikusleen  
eguna.

### GASTEIZ

### GURIDI

Ice Age 3: el origen  
de los dinosaurios  
16:45, 18:35, 20:35, 22:30.

Coco, de la rebeldía a  
la leyenda de Chanel  
22:30.

Ángeles y demonios  
22:00.

Terminator salvation  
20:00, 22:30.

Cleaner  
18:45, 22:30.

Transformers 2: la  
venganza de los  
caídos  
17:00, 19:40, 22:20.

Supercañeras: el  
internado puede ser  
una fiesta  
17:30, 19:45.

Pagafantas  
16:50, 18:30, 20:35, 22:30.

Corazón de tinta  
17:30, 20:00.

### Ejecutiva en apuros

17:00, 20:35.  
El primer día del  
resto de tu vida  
17:30.

Uztailaren 3tik 9ra.

### FLORIDA-GURIDI

Los hombres que no  
amaban a las  
mujeres  
18:00, 20:45.

Los mundos de  
Coraline  
17:30.

Perez sagutxa  
17:30.

Laughing Out Loud  
20:00, 22:30.

Tetro  
17:30, 20:00, 22:30.

La caja de Pandora  
18:00, 20:15, 22:30.

Los siete días  
18:00, 20:15, 22:30.

Vacaciones de  
Ferragosto  
20:00, 22:30.

Despedidas  
17:30, 20:00, 22:30.

Uztailaren 3tik 9ra.

### YELMO-GORBEIA

Ice Age 3: el origen  
de los dinosaurios  
(3-D emanaldiak)  
15:30 (zapatuan eta  
domekan), 17:30, 19:30,  
21:30, 23:30.

Transformers 2: la  
venganza de los  
caídos  
16:00, 19:40, 22:20.

Supercañeras: el  
internado puede ser  
una fiesta  
17:30, 19:45.

Ice Age 3: el origen  
de los dinosaurios  
16:30 (zapatuan eta  
domekan), 18:30, 20:30,  
22:30, 00:30.

Transformers 2: la  
venganza de los  
caídos  
16:00 (zapatuan eta  
domekan), 18:00, 19:00,  
21:00, 22:00, 00:00 (egu-  
nean izan ezik).

Uztailaren 3tik 9ra.  
Egubakoitzetik domekara.

Gauerdiko emanaldiak  
zapatuan.

### Obsesionada

15:40 (zapatuan eta  
domekan), 17:50, 20:05,  
22:20, 00:35.

Corazón de tinta  
20:35, 22:35, 00:35.

Ejecutiva en apuros  
22:10, 00:10.

Cher Ami  
16:45.

Terminator salvation  
15:45 (zapatuan eta  
domekan), 18:00, 19:15,  
21:30, 22:35, 23:45, 00:35.

Los hombres que no  
amaban a las  
mujeres  
15:50 (zapatuan eta  
domekan), 18:45, 21:40,  
00:30.

Noche en el museo 2  
16:10 (zapatuan eta  
domekan), 18:10, 20:10.

Ángeles y demonios  
15:45 (zapatuan eta  
domekan), 18:15, 20:45,

Siete minutos  
22:35.

Noche en el museo 2  
16:20, 18:25, 20:30.

La última casa a la  
izquierda  
15:55, 18:10, 20:30, 22:45,  
01:00.

Obsesionada  
16:00, 18:05, 20:20, 22:30,  
00:45.

Terminator salvation  
15:55, 18:10, 20:25, 22:40,  
01:00.

Kika superbruja y el  
libro de hechizos  
15:50 (zapatuan eta  
domekan), 17:50, 19:50.

Pagafantas  
16:40 (zapatuan eta  
domekan), 18:30, 20:20,  
22:10, 00:00.

La última casa a la  
izquierda  
16:00 (zapatuan eta  
domekan), 18:10, 20:20,  
22:30, 00:40.

La proposición  
18:15, 20:25, 22:35.

Uztailaren 3tik 4ra.  
Gauerdiko emanaldiak  
zapatuan.

### ÁBACO BOULEVARD

Ice Age 3: el origen  
de los dinosaurios  
16:00, 16:30, 18:00, 18:30,  
20:00, 20:30, 22:00,

Corazón de tinta  
22:30, 00:30.

Ejecutiva en apuros  
20:15, 22:15.

Cher Ami  
17:00.

¿Hacemos una  
porno?  
20:00, 22:00, 00:30.

Ángeles y demonios  
19:00, 22:00, 00:45.

Siete minutos  
22:35.

Noche en el museo 2  
16:20, 18:25, 20:30.

La última casa a la  
izquierda  
15:55, 18:10, 20:30, 22:45,  
01:00.

Obsesionada  
16:00, 18:05, 20:20, 22:30,  
00:45.

Terminator salvation  
15:55, 18:10, 20:25, 22:40,  
01:00.

Kika superbruja y el  
libro de hechizos  
16:10, 18:00.

Supercañeras: el  
internado puede ser  
una fiesta  
16:00, 18:10.

Transformers 2: la  
venganza de los  
caídos  
16:00, 17:00, 19:00,  
20:00, 22:00, 23:00,  
01:00.

La propuesta  
16:00, 17:00, 19:00,  
20:00, 22:00, 23:00,  
01:00.

Uztailaren 3tik 4ra.  
Gauerdiko emanaldiak  
zapatuan.



Corazón de tinta

# San Martzialera, letanian

**LETANIA** Ohiturari jarraituz, 250 lagun inguruk hartu zuten parte martitzenean San Martzialerainoko letanian, Bergaran

**BETERANOA** Juan Kruz Azkarate bergararrak 40 urte inguru darama parte hartzen, gurutzea eramaten

**SAN JOXEPE** Azken urteotan bezala, erretiratuen elkartekoek txokolatea banatu zuten mezaren ostean

EDU MENDIBIL > BERGARA

Martitzenean, San Martzial egunean, jendea 07:00ak aldera batzen hasi zen Bergarako Santa Marina parrokiaren inguruan. Elizan otoitz egin eta gero, 07:30ean puntuau 250 lagun inguruk (emakumeak nagusi ziren nabarmen) ekin zioten San Martzial ermitainoko igoerari, letania errebatuz. *Tropelaren* buruan, eskuetan gurutzea zeramala, Juan Kruz Azkarate eta haren ondoan Santa Marinako eta San Pedroko parrokoak, Juan Kruz Mendizabal eta Iñigo Mitxelena. Mitxelena villabonarrantzat lehen aldia zen letanian parte hartzan zuena. Gustura ziohan. Mendizabilek gidatzen zuen letania: "Juan Bataiatzailea donea..." eta besteak "Otoitz gure alde". Hamaika santuren izenak segidan. Lehen aldapa gogorlean utzi zioten letaniari; arnasa hartu eta isileen goraino. Bero umela egiten zuen eta denak izerditan ziren Askatzu ingurua heldu orduko. Han letaniari ekin zioten berriz: "Gerbasio ta Protasio doneak..."

**ERROSKILLAK ETA TXOKOLATEA**

Erroskillak saltzaileak zain zituzten ermita ondoko zelaian. Eta San Joxepe erretiratuen elkarteko zuzendaritzakoek txokolatea gertatzen ziharduten. 60 litro egin zituzten. Lehenengo baina meza zetorren. Mezaren ostean Aizpe baserriko Maria Biain eta Felix Aristegirekin (88 urte) egin genuen berba. "Abade bati San Martzial palestinarra zela entzun nion aspaldi..." esan zigun Felixek. Eta Mariak: "Begiratu Interneten bestela...". Maria eta auzoko beste andre batzuk ermita apaintzen jardun zuten bezperan, astelehenean. Domekan, erromeriara ez direla joango esan zigun Mariak, "nahikoa lan izango dut sukaldan, familiakoak atenditzen". Juan Kruz Azkarate, pozik egindako lanagatik: "40 urte inguru daramat eta fede guztiarekin etortzen naiz, San Martzial gozatu eta hemengo festa egitera. Domekan ere akolito jardungo dut". Txokolateak amaiera ezin gozoagoa eman zion goizean goizeko ibilaldiari.



LETANIAN Juan Kruz Azkarate gurutzearekin eta haren atzean Mendizabal eta Mitxelena apaizak eta beste partaideak. E.M.

## ahobero

"Athleticek beti sinetsi du nigan, nahiz eta min hartuta egon. Hori erabakigarria izan da Athleticekin fitxatzeko orduan"

Diaz de Zerio > Athleticeko jokalaria

Realak ere sinistu du Diaz de Zerioengen; txikitatik, gainera. Nahiz eta bigarren mailan egon, badira Realean jarraitzeko konpromisoa berretsi duten jokalariak; Elustondo eta Gonzalez, esaterako.

## iturri onetik

**Hainbat berritasun izango dira aurten Antzuolako Mairuaren Alardean**

Antzuolako jaiak uztailaren 16tik 19ra ospatuko dira eta aurten hainbat berritasun izango dira Mairuaren Alardean. Esate baterako, fusilarien konpainian emakumeek lehen aldiriz hartuko dute parte alardean. Era berean, musikak eta dantzak protagonismo handiagoa izango dute. Bergarako Udal Musika Bandak ere hartuko du parte uztailaren 18an Antzuolako plazan egingo duten alardean.

## piperraутса

Mikel Irizar > [www.goiena.net/blogak/piperraутса](http://www.goiena.net/blogak/piperraутса)

### Estrasburgo

**G**arrantzi handia dauka aste honetako sententziak, Spainia barruko bitxikeria konsideratzen genuen legedia erabat berretsi duen horrek. Duela 30 urte euskaldunon causak bazituen nazioartean sareak, lagunak eta begirunea. Oraingo sententziak argi uzten du pikutara joan dela hori guztia eta estatuen borondatean daudela gure itxaropenaren mugak.

Blokeoa erabatekoa da, isolamendua zitala, ezintasuna mingarria. Aztertu beharko dugu zer egin dugun gaizki, zer egin genezaken hobeto, zer egin aurrerantzean. Berreraiki beharko dira zubiak eta harremanak, moldatu diskurtsoak eta estrategiak, irabazi borondateak auzoko artean. Etorkizun kolektiboa independentiaren ingurutan kokatu nahi duenak aukera aparta du ibilbide berria asmatzeko.

## ai, ene!



**Dutxako errezel beldurgarria**

Dutxan nahiko emozio ez duzu-la? Esnatzea kostatzen? Hitchcocken *Psicosis* filmeko dutxako errezelaz dirudi honek.

<http://tinyurl.com/lc2of4>



*Eraman dotoretasuna zure etxera*



**gelatuz** s.l.

Zubillaga auzoa 1  
OÑATI  
Tel.: 943 71 63 22  
Faxa: 943 78 15 51